

## TXOTXONGILOEN MUNDU MAGIKOA HIRU EGUNEZ BERGARAN

Gaur hasi eta domekara bitartean hamar ikuskizun, bi erakusketa eta tailer bat izango dira; panpina bizidunen esparruan gaur egun dagoenaren erakusleihu izan nahi du XVII. Txotxongilo Mostrak. / 34

Taun Taun Teatroa konpainiako Iñaki Mata eta Itsaso Azkarate hainbat txotxongilorekin.

LUKEN UGARTEBURU

**200 lagun batu dira ikasturteari hasiera emateko LABek egindako topaketa sindikaletan** / 3

**Arrasateko Udalak auzoz auzo aurkeztuko du Mugikortasun Plan berria** / 8

**Barrua berotuko dute txikiteroek**  
MARITXU KAJOI 2024 / 10

**Goienagusik askotariko ekintzak aurkeztu ditu ikasturteko lehen hiruhilekorako** / 2

**Danbaka lehiaketako 16. partaidea aukeratzeko botazioa martxan dago 'Danbaka.eus'-en** / 35

### SINADURAK

	ANA CARPINTERO / 22
	MAIDER AZKARRAGA-URIZAR / 6
	ASIER LAUZURIKA ARRONDO / 30
	ANDER GARAY / 9
	MIKEL BAIN / 40

**Desfibriladoreak: bizitzak salbatzeko gailuak**

**Cabezon eta Popovici, 'start-up' enpresez**

### PROGRESIBOEN HILABETEA

**2x189 €**  
MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



## MULTIÓPTICAS

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE

943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA

www.multiópticas.com



eskatu hitzordua





# Egindakoa egonkortzeko eta horri eusteko unea

Goienagusik Seminarixoan egin zuen ekitaldian, 2024-2025eko ikasturtera begira dituen erronken, helburuen eta ekintzen berri eman zien bazkideei eta udaletako ordezkariari. Urteotan egindako lana "egonkortzeko eta horri eusteko" unea dela esan zuten

**Iñigo Barrena** BERGARA

Goienagusik 2024-2025eko ikasturtera begira dituen asmoen berri eman zien bazkideei eta udalei eguaztenean Bergarako Seminarixoan egindako ekitaldian. Hasi aurretik, ordea, orain arte hamahiru urte hauetan egindako lana egonkortzeko unea dela azpimarratu gura izan zuten. "Urte hauetan asko hazi gara eta ekintza ugari ditugu. Orain, ekintza horiek lantzea eta hobetzea da gure asmoa", adierazi zuen Arantza Gardokik, Goienagusiko lehendakariak.

## Helburuak

Egonkortze horretan, ikasturte berriari begira dituzten helburuak finkatu zituzten. Bazkideei dagokienez, egun 270 bat lagun direla aipatu zuten, baina zifra hori "hazten" ari dela esan zuten, eta hori da, hain zuzen ere, helburuetako bat. Bazkideen partaidetza sustatzea, Goienagusiren webgunea hobetzen jarraitzea eta eskualde izaera

sustatzen jarraitzea dira ikasturte berrirako finkatu dituzten beste helburuak.

Azken horretarako, Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko udalekin urtero sinatzen dituzten hitzarmenak "gakoak" direla esan zuen Gardokik, eta horiei "eusteko asmoa" dutela. Oñatiko eta Bergarako udalekin sinatu dute dagoeneko aurtengo, eta Arrasatekoarekin "lanean" dabiltzala esan zuen. Hiru herri horietaz gain, gaintzekoetara zabaltzeko helburua ere jarri dute, beste behin. "Gure asmoa eskualde osoko elkarte bat izatea da. Egia da ekintza gehienak hiru herri handienetan egiten ditugula, baina ahal dugunetan beste

**GAUR EGUN, 270  
BAZKIDE DITU  
GOIENAGUSIK, BAINA  
ZIFRA HANDITZEKO  
HELBURUA DUTE**

herrietara ere iritsi nahi dugu", zioen Gardokik.

## Lehen hiru hilekoa

Ikasturte berriko helburuez gain, lehen hiru hilekora begira presatu duten agenda ere izan zuten hizpide Seminarixoko ekitaldian. Hitzaldiekin, irteerekin eta ikuskizunekin osatutako hogei ekintzatik gora dituzte programatuta, eta lehena datorren astelehenan (10:00) izango da, Seminarixoan bertan. June Fernandez komunikatzaile eta eragile feministak haurdunaldi subrogatuaren analisi feministen gaineko hitzaldia egingo du. "Urtean antolatzen ditugun 50 hitzaldi horiek ahalik eta interesgarrienak eta puntako gaien gainekoak izaten saiatzen gara", azaldu zuen Goienagusiko lehendakariak. Lehen hiru hilabeteetako ekintzak ez ezik, bigarrenekoak ere nahiko "bideratuta" dituztela aitortu zuen Gardokik, baina horien berri aurrerago emango dutela azpimarratu zuen.



Iker Badiola Etxaburu, Bergaran bizi den ondarroarra. EHU

## EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak zuzendari berria du

Bergaran bizi den Iker Badiola Etxaburu ondarroarrak hartuko du Juan Ignacio Perez Iglesiasen lekukoa

**Iñigo Barrena** BERGARA

Ondarroarra jaiotzez, Bergaran bizi da Iker Badiola Etxaburu, Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedraren zuzendari berria. Duela egun gutxi jaso du izendapen berriaren albistea. "Ohorea da errektoretza taldeak neu aukeratu izana postu honetarako. Era berean, arduraz hartzen dut izendapena; izan ere, EHUko Kultura Zientifikoko Katedra erreferentea da Euskal Herrian eta hemendik kanpo", dio Badiolak. Katedraren sorreratik zuzendari izan den Juan Ignacio Perez Iglesias ordezkatu du ondarroarrak, eta, hain zuzen eta, esker oneko hitzak izan ditu harentzat. "Gogoan dut duela hamalau urte hark eman zidala dibulgazioko hitzaldi bat egiteko lehen aukera. Esker onak eman behar dizkiot, orduan hasi nintzelako dibulgazio lanak egiten, eta asko gustatu zitzaidan. Orduetik aurrera, hitzaldiak egin nituen, baita liburu bat idatzi ere", dio ondarroarrak.

Gainera, aitortu du Euskal Herriko Unibertsitatean esan ziotela lehengo zuzendariaren lekukoa hartzeko pertsonak zientzia munduan zebilen norbait izan behar zuela: "Juan Ignacioren ondorengoa izan behar zenak zientzialaria izan behar zuela esan zidaten, hori zen baldintzetako bat, gaur egun aktiboki zientzia munduan jarduten duen norbait jartzeak gauzak hobeto ulertzeko aukera ematen duelako".

## Ardura berriak

Egun, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean da irakasle, eta Biologia Zelularra eta Histologia Saileko zuzendari akademikoa ere bada, eta lan horiek Katedrako zuzendaritzarekin uztartuko ditu. "Katedraren barruan lau pertsona ari dira lanean, baina gauza ugari egiten dira. Esanguratsuen, esaterako, Naukas programa izango litzateke, zientziaren gaineko bakarrizketa saio batzuk. Herri askotariko elkarrekin elkarlan asko egiten dira zientziaren hedapenerako, eta sare sozialetan ere presentzia handia du", adierazi du Iker Badiolak. Orain zuzendaritza karguan dagoela proiektu berriak martxan jartzeko asmoa ere badutela aurreratu du: "Irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako zientziaren gaineko liburuak egiteko proiektua nahiko aurreratuta dugu. Askotan, uste dugu arazorik ez ditugunok soilik bizi garela gizartean, eta gainontzekoak kanpoak uzten ditugu. Haiei ere aukera emateko modua da esku artean dugun proiektua".

**KATEDRAKO  
ZUZENDARI ETA  
IKERTZAILE LANAK  
UZTARTUKO DITU IKER  
BADIOLAK**



Goienagusiko eta udaletako ordezkariak Seminarixoko ekitaldian. IÑIGO BARRENA



LAB sindikatuko liberatuak eta ordezkariak batu ziren eguaztanean, Amaia Antzokian. GOIATZ ARANA BEGIRISTAIN

## Topaketa sindikalak egin ditu LABek Arrasaten

Biltzar Nagusiko erabaki berritzaileenak prestakuntzatik aberasteko bildu dira aurten ere LAB sindikatuko egituraren aktibo diren liberatuak eta ordezkariak. 200 lagun batu ziren goizean, Amaia Antzokian, eta arratsaldean, Kulturaten borobildu zuten saioa

**Imanol Beloki Unamuno ARRASATE** Ikasturte berriari hasiera emateko, Arrasateko Amaia antzokian batu ziren eguaztanean LAB sindikatuko egituraren aktibo diren liberatuak eta ordezkariak, 2022an Baionan eta Miarrizten egindako X. Biltzar Nagusiko "erabaki berritzaileenak prestakuntzatik aberasteko". Saio monografikoa egin zuten goizean Amaia antzokian eta tailerrak arratsaldean Kulturaten.

### Goizez eta arratsaldez

Topaketa sindikala 10:00etan hasi zen, Amaia antzokian, eta bertan 200 lagun inguru batu ziren; arratsaldean, berriz, Kulturaten jarraitu zuten. *Kontrabotere sindikalismoa* gai nagusi hartuta, goizeko saio monografikoetan botere sindikalaren azterketa eta sindikalizazio estrategia lantzen izan ziren. Kontrabotere sindikalismoaz Edurne Larrañaga Celada eta Asier Etxenike Ugarte aritu ziren eta sindikalizazio estrategiaz, berriz,

Izaskun Garcia Bordagarai eta Oihana Lopetegui Aranguren. Langileak boteretzea, ahalduntzea eta haiek lehen leerroan izatearen garrantzia azpimarratu zuten saioaren hasieran.

### Begirada lan-baldintzetan

Goizeko saioan, sindikalizazio estrategia eta ekintza sindikala landu zituzten, baita bi hanka horiek nola uztartu ere. "Langile ahalik eta antolatuta eta ideologizatuekin nola gauzatu eraldaketa eta nola lortu lan eta bizi baldintza hobek", adierazi zuen Oihana Lopetegik, LAB sindikatuko Ekintza Sindikaleko arduradunak. Ipar Hegoa Fundazioko eta Aztiker Soziologia Ikerguneko ordezkariak hainbat

**"IDEIA NAGUSIA LAB ONDO KOKATUA DAGOELA DA", ESAN ZUTEN TOPAKETA SINDIKALETAN**

datu mahai gaineratu zituzten, bestalde: gatazka eta borroken ondorioak lan baldintzetan, afiliazio eta hauteskunde sindikalen bilakaera edota langileriaren pertzepzioa sindikatuekiko. Horren baitan, Oihana Lopetegik honakoa azaldu zuen: "Ideia nagusia da LAB ondo kokatua dagoela, LABen sindikalismo berria ulertzen ari dela eta bilakaera positiboa izaten ari dela eta langileriaren pertzepzioa ere badela".

### Langileak erdigunean

Ikasturte honetako lan-lerro nagusiei buruz galdetuta, asko izango direla esan zuen Lopetegik: bertako gutxieneko soldata, osasungintza publikoa, oro har langileen lan eta bizi baldintzak, jardunaldi murrizketa... Eta horien guztien lehen-tasun nagusia "langileen aldarrikapenak erdigunera ekartzea" izango dela gehitu zuen, "bai lan-baldintzei eta bai bizi-baldintzei dagokienez".

## Aske geratu da Joseba Arregi Erostarbe preso oñatiarra

Etixerat-ek baieztatu du kondena amaiera. Zigor osoa bete du Arregik, 32 urte eta erdiko kartzelaldia

### Larraitz Zeberio Lekuona OÑATI

Astlehenean eman zuen kondena amaieraren berri Etixerat-ek. Senitartekoen elkarteak ohar bidez azaldu duenez, "kondenaren bukaerara arte iraun dute Arregiren aurkako neurri bereziek. 2023ko abendua ezkerro bigarren gradu arinduan egon da kalera ateratzen, eta 2024ko ekaina ezkerro, hirugarren graduan, kontrol telematikoarekin".

78 urte ditu Arregik eta ezarritako kondena osorik bete ditu, 32 urte eta erdiko kartzelaldia. 1992ko martxoaren 29an atxilotu zuten, ETAko buruzagitzaren aurkako operazio batean, Bidarten (Lapurdi). Zortzi urteko espetxe-zigorra bete zuen Frantzian. 2000. urtean eraman zuten Espainiara, eta Auzitegi Nazionalak kondena gehiago ezarri zizkion. Horien artean, 2.354 urteko espetxe-zigorra

Zaragozako kuartel-etxeko atentatuagatik eta Bartzelonako Hipercorreko atentatuarengatik. Villenako (Alacant), Villabonako (Asturias) eta Martuteneko (Donostia) espetxeetan izan da. 2018an, barkamena eskatu zien biktimei.

### Espetxera itzulerak

2022an zortzi hilabetez egon zen Arregi etxean, Eusko Jaurlaritzak Martuteneko Tratamendu Bartzordearen eskaera berretsi baitzuen hirugarren gradua jasotzeko. Fiskaltzak, ordea, helegitea aurkeztu zuen eta Espetxe Zaintzako Epaitegiak aintzat hartu zuen; bigarren gradua ezarri, eta Martutenera itzularazi zuten, gradu erregresioaren ondorioz. 2023ko apirilean eta hirugarren gradua lortu arren, Fiskaltzak helegitea jarri eta espetxera itzularazi zuten.

## Urriaren 18a arte jarraituko du itxita Arlabango mendateak

Aurreikuspenen arabera gaur ireki behar zuten errepidea, baina lanen epea luzatzea erabaki dute

### I.B. LEINTZ GATZAGA

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi duenez, Arlaban mendateko lanak luzatu egingo dira, eta urriaren 18a arte egingo da errepidea itxita. "Trailaren lehenengo bi asteetan izan diren etengabeko euriek lanak aurrera eramatea eragotzi dutenez, Arlaban mendatean egonkortze lanak egin ahal izateko trafikoen etaldia urriaren 2tik urriaren 18a luzatuko da".

GI-627 errepidean, 19,350 kilometro-puntutik (Arlaban gaina) 27,200 kilometro-punturaino – Aingeru Guardako biribilgunea, Eskoriatzan– dagoen zatia guztiz moztu behar da Arlaban mendatean egingo diren errepide-lanengatik. Berezi, 21,900 eta 23,200 kilometro-puntuen artean egingo diren lanek errepidearen desnibela nabarmen aldatu behar dutenez, erabiltzaileen segur-

tasuna bermatzeko ezinbestekoa da trafikoa guztiz etetea.

### Sarbidea, baimenduei soilik

Hasiera batean trafiko etena irailaren 2tik urriaren 4ra bitartean izango zela jakinarazi zen, eta etenaldi horrek komunikazioa guztiz moztuko zuen Debagoiena eta Gasteiz artean, GI-627 errepidetik, bai ibilgailuentzat bai txirriindulgentzarak. Hala ere, lanek gehiago iraungo dute, eta trafiko etenaldia urriaren 18ko 20:00ak arte izango da.

Errepideko bi muturretan, larrialdietako ibilgailuek eta inguruko bizilagunek edo jardueraren ekonomikoren batengatik bertara joan behar duten pertsonek sarrera izango dute; betiere, obra eremuan sartzeko beste biderik ez badago –21,900 eta 23,200 kilometro-puntuen artean–.



# "Gerraren amaieran dago aldaketaren hasiera"

JUANTXO MADARIAGA HISTORIALARIA

Lehen Karlistaldia "une historiko berezia" izan zela dio Madariagak, "garai garrantzitsua" Euskal Herriarendako: orduan hasi ziren aldaketak, adibidez, euskararen arloan

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** BERGARA

Lanbroa Kultur Elkartek antolatuta, Lehen Karlistaldiaz jardungo dute urrian Irizar jauregian. Joseba Agirreazkuenaga historialariak *Karlisten oldarraldiaren aurrekariak eta ondoko gerra (1821-1839)* hitzaldia egingo du gaur, 19:00etan; hilaren 11n, Juantxo Madariaga historialariak (Madril, 1949) *Euskararen egoera Lehen Karlistaldian Bergara aldean* hitzaldia egingo du, Bergarako euskararen historia soziala aztertu baitu 1600etik 1876ra. Urriaren 25ean, *Bergarako besarkada eta beste bake saiok* Lehen Karlistaldian hitzaldia egingo du Mikel Alberdik, Zumalakarregi Museoko arduradunak.

**Nolako eragina izan zuen Euskal Herrian zein eskualdean Lehen Karlistaldiak?**

Euskal Herriarentzako garai oso garrantzitsua izan zen, borroka dinastiko batez harago, Euskal Herriaren etorkizuna borrokatu eta eztabaidatu baitzen gerra hartan. Une historiko berezia zen, kritikoa eta oso aldakorra, gauza asko aldatu baitziren. XVI, XVII eta XVIII. mendeak nahiko egonkorak izan ziren, hala nola populazioaren egiturari eta urbanismoari dagokionez, baina Lehen Karlistaldiaren garaian hankaz gora jarri zen dena.

**Hankaz gora?**

Bai. Lehen Karlistaldia une oso erabakigarria eta interesantea izan baitzen arlo guztietan, hala nola historikoan, politikoan, demografikoan, ekonomikoan... Industrializazioa ere orduko hartan hasi zen, gerra amaitutakoan, esate baterako, Bergaran, eta horrek eragina zuen migrazioetan, aldaketa linguistikoetan...

**Aldaketa linguistikoa aipatuta, zein zen euskararen egoera ordura arte?**

XVI. mendetik XIX. mendera nahiko egonkorra da. Jakindu-



Juantxo Madariaga historialari oñatiarra. JUANTXO MADARIAGA

## "XVI. MENDETIK XIX. MENDERA ARTE IA-IA POPULAZIO OSOA ZEN EUSKALDUNA ETA ELEBAKARRA"

riari dagokionez, ia-ia populazio osoa zen euskalduna, eta gogoan izan behar da elebakarren kopurua: gaur egun, lagun talde batean euskaraz hitz egiten egonez gero eta erdaldun elebakar bat gerturatzuz gero, denok pasatzen gara gaztelarrera, baina garai hartan ez zen horrela gertatzen: elebakar asko zeuden eta eurekin komunikatzeko derrigor egin behar zuten euskaraz. Profilarri dagokionez, batik batik, emakumeak ziren elebakarrak, edota maila sozial apalenekoak; goi-klaseetakoak, aldiz, hala nola apaizak, abokatuak eta jauntxoak –alegia, gehienak gizonak– elebidunak ziren. Erdaldun elebakarrak, berriz, %5 baino gutxiago ziren.

**Lehen Karlistaldiaren ondoren, ordea, bestelakoa zen egoera.**

Bai, gerraren amaieran dago aldaketaren hasiera, 1840tik

aurrera –1839an bukatu zen Euskal Herrian–. Halere, batik batik, Bigarren Karlistaldiaren garaian zehar aldatu ziren gauzak, abolizio foralekin, 1876tik aurrera: orduan beste itxura bat zuen munduak eta euskararen galerak handiak izan ziren.

**Garrantzitsua al da horrelako hitzaldi zikloak antolatzea halako gaien zabalkunderako?**

Karlistismoak eragin handia izan du Euskal Herrian, eta egokitzat jotzen dut horrelako hitzaldi sorta bat antolatzea gertatutakoak ezagutarazteko. Jorratu beharrekoa da garai hori.

**Atzera begiratu behar al da egungoaz jabetzeko?**

Dudarik gabe. Nire aztergaiari begiratzuz gero, euskararen egoera ezagutzeko atzera begiratu beharra dago. Euskararen egoera beti egon da lotuta arlo ekonomiko, politiko eta instituzionalari, eta hori zeharo ezberdina da XVIII. mendean, XIX. mendean eta gaur egun, egoera instituzionala era hala delako. Dena den, asko ikasten da historiari erreparatzuz, atzera begira, gaur egungo egoera analizatzeko, zer gertatu den jakiteko eta ezagutzeko.



lazgo erreka garbiketa, Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE

## Zabalik da hilaren 19ko erreka garbiketarako izen-ematea

Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean egitasmoa da antolatzailea, eta hirugarren aldiz egingo da

**A.R.K.** DEBAGOIENA

Debagoieneko Errekak Bizi Auzolanean egitasmoak bultzatuta, urriaren 19an, zapatua, egingo da aurten erreka garbiketa –Antzuolan urriaren 12an izango da–, eta antolatzaileek jakinarazi dute herri batzuetan –batik batik, txikienetan– nahikoa den arren plazan agertzearekin, ekintza horretan parte hartzeko eta aseguruia izan ahal izateko datu pertsonalak bete behar dituztela herritarrek; horrenbestez, urriaren 13a baino lehenago eman behar da izena, formularioa beteta: [labur.eus/errekabizi](http://labur.eus/errekabizi).

Hirugarren aldia du aurten egitasmoak, eta horrek duen indarra nabarmendu dute antolatzaileek: "Muskulua, bolumena: 600 pertsona batera sartzea egun batean erreka garbitzera ez da lan makala, eta hori lortu dugu azken bi urteetan. Eta lor-

tu nahiko genuke kopuruak gora egitea". Hala ere, parte-hartzaileen kopuruaz harago, egitasmoak duen filosofian jarri dute arreta: "Ekimenak bailara ikuspegia izateaz gain, Deba erreka eta hori elikatzen duten erreka txikiagoen ezagutza eta naturarekin dugun harremanaren sendotzea ditu xede nagusi; ezagutzen dena soilik zaintzen delako. Errekaren bueltan elkartu eta herrikideen arteko ezagutza eta harremanaren sendotzean ekarpena egiteko bokazioa ere badu egitasmoak".

**Auzolanaren garrantzia**

Antolatzaileek, herri bakoitzaren logikaz gain, bateratzearen garrantzia azpimarratu dute: "Herri bakoitzak izaera propioa izatea aberatsa da, baina baita bailara mailako auzolan bat antola daitekeela ikustea ere eragile ezberdinen artean".

## Nafarroa Oinez-era joateko autobusa antolatu dute

Zangozan egingo da aurten Nafarroa Oinez, urriaren 20an, domeka, *Piztu* lelopean, eta bailaratik joan-etorria egiteko aukera izango dute herritarrek, autobusak antolatu baititu Debagoieneko, Debagoieneko euskara elkartearen elkargoak.

Hain justu, Aretxabaletatik aterako da autobusa, lehendabizi, 08:45ean Azbeko geltokitik,

eta Arrasatera joko du handik, 09:00etan izango baita Zalduspeko geltokian. Bergaran, berriz, 09:15ean hartu beharko da autobusa, Ibargaraiko geltokian. Itzulerari dagokionez, 19:00etan aterako da Zangozatik.

Txartelak aurrez erosi behar dira, eta horretarako azken eguna urriaren 17a izango da, eguna: Loramendi, Jardun eta AED euskara elkarteetan daude salgai, bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 12.





Olentzero eta Mari Domingi haur batekin, Mirandaolan. JOSU ALTZELAI

# Familia-plana Olentzero eta Mari Domingirekin

Gabonak garai zirraragarriak dira etxeko txikientzat, eta Legazpiko Mirandaolan are eta zirraragarriagoak izan daitezke, Lenbur fundazioak antolatutako Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrerari esker. Bisita gehigarriak ere antolatzen dituzte

Urteak dira Lenbur fundazioa familiei bideratutako Olentzeroren eta Mari Domingiren etorreraren inguruko tailerra antolatzen hasi zela. Lehenengo urtean, 2011n, oso modu xumean hasi ziren, eta 50 haur legazpiarrek hartu zuten parte soilik. Hasiera hartan ez zuten pentsatu noraino helduko zen proiektua, baina, urtez urte, Miran-

daolara joaten diren familien kopurua hazten joan da. Euskal Herri osoko familiak joaten dira, eta azken urteetan 10.000 bisita inguru izaten dituzte. Abenduak egun gehiago izango balitu, ziurrenik kopuru hori handiagoa izango litzateke. Urtez urte, asko izaten dira kanpoan gelditzen diren familiak, ezin dituztelako txanda gehiago jarri.

Horren guztiorren eraginez, azaro hasieran hasten dira Olentzero eta Mari Domingi Mirandaolara joaten. Aurten, azaroaren 2an hasiko dira saioak, eta abenduaren 23ra arte iraungo dute. Asteburu eta jaiegunetan, eguneko hamar txanda egiten dira guztira, 10:00etan hasi eta 19:00ak arte. Ezin da ahaztu 18:00etako eta 19:00etako txandak heltzen

direnerako zerua ilunduta egoten dela, eta, bisita oraindik eta magikoagoa izateko, haurrak linternekin bertaratzera animatzen dituzte Lenburreko kideek. Asteburuez gain, astean zehar ikastetxeei bideratutako bisita bereziak ere egiten dituzte.

### Sarrerak salgai

Konturatu orduko, datak gerturatu hasi dira, eta Lenbur fundazioko kideek sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko. 8,75 euroko prezioa dute, eta *lenbur.eus* atarian daude eskuragarri.

Sarrera eskuratzeko aukera dutenek, familian, Olentzeroren eta Mari Domingiz gozatzeko aukera ezin hobea izango dute. Ekintza Mirandaolako parkean gauzatuko da, paraje zoragarri batean, Aizkorri-Aratz natura parkearen magalean. Lehenik eta behin, haurrek Euskal Burdinaren Museoa Olentzeroren eta Mari Domingiren trebetasunak ezagutuko dituzte, ipuin kontaketa baten bidez. Horrez gain, ikatza ikusteko eta txondorra nola egiten den ezagutzeko aukera ere izango dute.

Ondoren, Mirandaolako pertsonaia bihurriena den Burdintxoren laguntzarekin batera, parkera irtengo dira bisitari guztiak, eta egun osoko momentu zirraragarria biziko dute elkarrekin: Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera. Behin biek elkartuta, Mirandaola burdinola ikusgarrira sartu eta banan-banan familiek pertsonaia maitatu haiekin egoteko aukera izango dute. Modu horretan, eskutitzak emateko, argazkiak ateratzeko, muxu emateko eta beste hainbat gauza egiteko tartea egongo da.

Azkenik, bisita zapore onez amaitzeko, danbolinean erreta-

ko gaztainak eta patxintxiak jasoko dituzte Mirandaolara bertaratzeko guztiek.

### Bisita gehigarriak

Familien eskaerei erantzunez, zenbait txandatan bisita gehigarriak ere antolatu dituzte Lenbur fundazioko kideek. Modu horretan, egun osoko planak proposatzen dizkiete egun-pasa joan nahi duten bisitariari.

Alde batetik, aitona-amonon eskola bisita daiteke. Eskola horretan, garai batean erabiltzen ziren materialak aztertzeko aukera izaten da, hala nola lumaxoak, tintontziak, liburuak, idazmahaiak eta abar. Horrez gain, orduan egiten ziren joko eta jolasetan aritzeko aukera ere izango dute; besteak beste, tortolosak, txapak, kanikak, eta kromoak.

Beste alde batetik, Ezkion dagoen Igartubeiti baserrian, bertako arbasoek horrenbeste urtez mantentutako zenbait ohitura familian ezagutu ahalko dira. Esate baterako, Olentzeroren eta Mari Domingiren gaiari estuki lotuta, Gabonetako ohitura zaharrak jorratuko dira, bereziki. Aipatu beharrekoa da Igartubeiti baserriak egurrezko dolarea mantentzen duela eta bisitariak sagar-zukua dastatzeko aukera ere izango dutela.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenarentzat, 943 73 04 28 telefono-zenbakia eta *lenbur.com* ataria jarri dute eskuragarri Lenbur fundazioko kideek.

## OLENTZEROREN ETA MARI DOMINGIREN ETORRERAZ GOZATU DAITEKE LEGAZPIKO MIRANDAOLAN

### AZAROKO ETA ABENDUKO ASTEBURUETAN

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisitarekin eguna borobiltzeko, gure aitona-amonon eskola bisitatu eta garaiak jolasekin gozatzeko aukera.

Larunbatak 16:30ean eta Igandeak 11:30ean

### ABENDUAREN 7AN EGUN OSOKO PLAN EZIN HOBEA!

Igartubeiti baserrian antzinako Gabonak ezagutu eta sagar-zukua dastatzeko aukera.

11:00etan, Igartubeiti baserria  
13:00etan, Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita



LENBUR  
FUNDAZIOA







ZABALIK

MAIDER AZKARRAGA-URIZAR

## Urratsak sendo, oinak arin

Ez ziren makalak izan 70eko hamarkadako garai eta gertakizunak gurean, jakina da hori. Francoren itzalak eguzkia ikustea mugatzen zuen gurean asko eta asko. Hala ere, bost hamarkada baino gehiago pasa eta gero, eguzki argitan, distira betean jarraitzen dute ainubean dantzan hasi ziren haien ondorengoek.

Duela ia 55 urte hasi ziren, besteak beste, Txikitxuko lehen dantzariak arrasatear txikiaren oinak saltoka jarri eta besoak gora altzarazten; aipatutako itzal hori esku, kriskitin eta txistu hotsekin apartatu nahian, itzal hotzetan ordeitu ez zitezten. Hogeitazero geroago, txiki izandako horiei udaberria iritsi zitzaizkien; hazi txikienei lorea ateratu eta, ondorioz, lorategia bizi, anitz eta koloretsu mantentzeko sortu zen Txikitxu-Arrostaitz.

### LILI IZANDAKO HORIEK BERRIZ PIZTEKO ETA HERRIKIDEAK LORATEGIKO PARTE SENTIARAZTEKO

Pasa dira zenbait udazken eta udaberri orduz geroztik, eta baita makina bat arrasatear ere Seber Altube, Zarugalde, Zerrajera eta ospitale ondoko lorategietatik ere. Egun, inoiz baino indartsuago dago taldea

kulturaren olan, eta guztia ospatzeko aitzakiarik ez zaigu falta. Hori dela eta, 2025eko urrira arte, azken ekitaldira arte, ekintza andana egingo ditu dantza taldeak. Lili izandako horiek berriz pizteko, egungoak biziago jartzeko eta herrikideak lorategiko parte sentiarazteko.

*Sutan* hasi ginen duela bi zapatu urteurreneko ekintzen liburua irakurtzen. Lehen kapituluko egitekoak irakurrita, poliki-poliki jarraituko dugu liburua hitzez hitz, kapituluz kapitulu gainontzekoak irakurritik, osatuz eta betez: *janzten, ereiten, oroitzen, loratzen, zeharkatzen* eta *lotzen* amaituko dugu urtebete barru irakurketa.

Ahaztu zaizkigu 70eko itzal, ainube eta ordeiak. Aurrera egin zutenen pausoak jarraitu ditugu orduz geroztik, datozenek ere jarraituko duten segurantzaz. Guk urratsak sendo egiten jarraituko dugu, oinek arin dantzan jarrai dezaten.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

### Habsburgotarren eredia

ANA MALAGON

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/5PTDE](https://labur.eus/5PTDE)

Orain dela gutxi jakin nuen nor den Eduard. Nire familiarren izen oso arrunta da hori. Ez dakit berean ere hala ote den, ez dut zuhaitz osoa ezagutzen. Tira, berdin du, malagondarron eta habsburgotarren artean ez dago amankomunean ezer, nire familiarren historian zehar hilketa eta bahiketaren bat egon bada ere. Baina zerikusirik ez I. Mundu Gerra abiatu zuen Franz Ferdinand Artxidukearen hilketa edo Frantziako

Iraultzaren mugarririk bat den Marie Antoinetteren gillotinatzearen glamourarekin. Heriotzak eta heriotzak daude. Familiak eta familiak.

Eduard ez da Eduard soilik. Eduard Karl Joseph Michael Marcus Antonius Koloman Volkhold Maria Habsburg-Lothringen da. Arabar askok bezala, pasaportearen sartzen ez diren izen horietako bat du. Munichen jaio arren, hungariarra da. Diplomatiakoa, hungariarrek Vatikanon duten enbaxadorea delako. Eta diplomatiakoa, desadostasun ideologikotik, nahiko sinpatikoa iruditu zitzaidalako hasieran.

Autoironiarako gaitasun osasuntsu bat zuen norbait. *The Habsburg Way (Habsburgotarren eredia)* bere liburua aurkezten zuen elkarrizketa batean ezagutu nuen. Lasai, nik irakurri dut liburua zuk egin behar izan ez dezazun. Familia erregeta liburu bat da, baina legatza saltsan nola prestatu behar den azaldu beharrean, garai gatazkatsu hauetan habsburgotarrek historian zehar Europa gobernatzeko jarraitu zuten eredutik ateratako printzipio batzuk azaltzen ditu, gure bizitzak hobetzeko irakaspenen bat jasoko dugulakoan edo. *Spoilerra* egingo dizut: ez dago gehiegi jasotzeko. [...]

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
 Goiena Komunikazio Taldea  
 Kooperatiba Elkartea  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
 Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
 Iban Arantxabal.  
**Eduki zuzendaria**  
 Eneko Azkarate.  
**Erredakzio batzordea**  
 Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
 Monika Belastegi, Mirari Altube,  
 Larratiz Zeberio.

**Zuzendari komertziala**  
 Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
 Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
 Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
 Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
 Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
 Xabier Urzelai (Kirola),  
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
 Imanol Soriano,  
 Aitor Lagoma,  
 Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publikitate**  
 Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
 Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
 Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
 Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIKITATEA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 132 posta-kutxa  
 Tel.: 943 25 05 05  
 Telegram eta WhatsApp:  
 688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**  
 Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## BERBAGAI



Arantxa Urretabizkaia, martitzen arratsaldean, Kulturate atarian. L.Z.L.

# "Agintariak ez dira jabetu zenbat zahar errebelde datorkien"

ARANTXA URRETABIZKAIA IDAZLEA ETA KAZETARIA

**Larraitx Zeberio Lekuona** ARRASATE Urriaren lehen aldarrikatu dute Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna, eta Arrasateko Pertsona Nagusien kontseiluak gonbidatuta izan da Kulturaten Arantxa Urretabizkaia (Donostia, 1947). Hain zuzen, hainbat aitortza esanguratsu jasotako idazleak gogoetara gonbidatu zituen adinkideak. **Zergatik lotsatzen gaitu zahartzaroak?**

**Zahartzaroko alde onak eta txarrak zerrendatzea proposatu zenuen saioan; ze aldarterekin sumatu dituzu Arrasateko entzuleak?**

Baikor; izan ere, gauza positiboan zerrenda txarrena baino luzeagoa irten zen. Eta horrek zerbait esan nahi du. Beste alde batetik, entzuleak parte-hartzaile bilakatze

ariketa da, eta Arrasaten funtzionatu zuen.

**Zergatik lotsatzen gaitu zahartzaroak?**

Onartu ditugu dikotomia pare bat. Bat da *gazte berdin on*, eta bestea da *zahar berdin txar*. Hala, zahartzea gauza txarra da, eta horrela dugu sartuta burmuinean.

Horregatik lotsatzen gaitu zahartzaroak. Lotsatu egiten gara eta ahalegintzen gara gure itxura gaztetzen, adina ezkutatzeko...

**Beti ez da horrela izan, ezta?**

Ez. Nire belaunaldikoak gazteak ginenean ez zen horrela. Gazteak ginen ikasleak, eta merituak egin behar genituenak heldu errespetatu izatera heltzeko. Aldaketa 1968. urtearen bueltan etorri zen. Orduetik hona, bizitzaren gailurra gaztaroa da, eta hortik aurrera gelditzen den bakarra

da aldapan beherakoa. Hori da gaurko eredu eta denok onartzen duguna.

**Diozu zahartzeko modu tradizionala desagertzen dagoela ia erabat eta zahartzeko eredu berriak probatzen ari garela; zure mezua da nola zahartu aukeratu ere egin dezakegula orain.**

Ez dago inon jasota nola zahartu behar dugun ez eta nola egin behar diogun aurre zahartzarolari. Hartu kontuan, gainera, gizadiaren historian lehenengo aldian dela belaunaldi oso batek zeharkatzen duela 80 urteko muga. Belaunaldi horrek ez du maparik eta ez dago baliatzeko esperientziarik. Horregatik diot adi egon behar dugula zer gertatzen den hor; izan ere, atzetik gatozenek hortik ikasi beharko dugu.

**Belaunaldi aldarrikatzailea ari da heltzen zahartzarora, gainera.**

Hala da. Nik Euskal Herriko eredu gisa jartzen ditut beti pentsioen defentsan kaleak betetzen dituzten zahar horiek guztiak. Zaharrak dira, baina bizitzan zehar ikasi dute nola defenditu behar diren ideiak eta nola borrokatu behar den zerbait lortzeko. Eta hori ez da zahartzaroarekin ahazten. Gizarteari aldaketa oso handia dator hor. Agintariak ez dira jabetu zenbat zahar errebelde datorkien.

**Ze iritzi duzu zahar hitzaren erabileraz.**

Nik *zahar* hitza erabiltzen dut ez didalako lotsarik ematen zaharra naizela esateak. Esan behar dut baita ere euskarazko *zahar* hitza samurragoa iruditzen zaidala gaztelarazko *vieja* baino. Baina, galderara etorrita, iruditzen zait bestelako esamoldeak erabiltzea dela zahartzaroa ezkutatzeko beste modu bat. Kazetari gisa jarduten dudanean saiatzen naiz ni ere ahalik eta neutralen adierazten, baina idazle gisa ez dut betebeharrak, eta ni zaharra naiz eta gazteak bezala onartua izan nahi dut gizartean. Ez dut ulertzen jendeak esaten duenean: "Nire garaian". Uste dut garai hau nire ere badela, ez gazteena bakarrik.

**Adinkeriak kezkatzen zaitu?**

Kezkatzen nau eta kezkatzen nau are borondate onarekin egindakoak. Alderdi politiko batek aldatzen du ordezkariarik ospetsuena eta esaten dizu gazteagoa dela; oso interesantea da, baina gaztea izatetik aparte ideia berritzaileak ditu? Ala zaharragoen ideiak errepikatzen ari da? Hori axola zait, ez adina.

**Sumatzen duzu adinkeriarik?**

Nik bai, eta gauza askotan. Esaterako, Arrasateko saioan azpimarratu zen gizarte honek nola umetzen dituen zaharrak, eta zahartzaroak ez zaitu derrigorrez ezgai bilakatzen.

**"LEHENENGO ALDIZ HISTORIAN 80 URTEKO MUGA ZEHARKATZEN DU BELAUNALDI OSO BATEK"**

Kasuren batzuetan izan daiteke. Badira zaharrak ez direnak beraien erantzukizuna defendatzeko gauza edo ez dutenak nahi. Beste adibide bat jarriko dut. Aurrekoan entzun nuen Bruce Springsteen Donostiara datorrela. Ni zalea naiz eta Bruce Springsteen adinkidea da. Nire adina du. Ez dizkio inork bere eskubideak ukatuko. Ba, niretzat, hura bezain eredugarri dira pentsioen alde borrokatzen diren zaharrak.

**Eta genero ikuspegia sartzen badugu?**

Arrasateko saioan askoz ere emakume gehiago zegoen gizonak baino. Horrekin esan nahi dudana da emakumeek adin batetik aurrera erakusten dutela argi eta garbi ikasi egin nahi dutela, eta joaten dira unibertsitateko ikastaro berezietara, hitzaldietara... Beti daude emakumeak. Gertatzen dena da emakumeei esan digutela beti isilik egon behar dugula, ez dugula nabarmendu behar... Eta hori sartu zaigu burmuinaren sakoneraino.

**Zahartzaroren alde txarren artean aipatu zenituzten osasunik eza, gogoz kontrako bakardadea, trabarik ez egitearen ardura... Mezu indartsua duzu horrekin lotuta.**

Batez ere, emakumeoi gertatzen zaigun gauza bat da. Beti esan izan digute erortzen bagara jasoko gaituen sare familia dela, eta familiari lotuta gaudela. Eta horrela da, familiari lotuta gaude eta familia oso ondo dago, baina gure esku dago lortzea beste sare bat familiatik kanpo. Adiskideak, interes bat partekatzen dutenak –musika, literatura, jostea...-. Sare hori ere oso garrantzitsua da; izan ere, ez da maitasun kontua, baizik eta bizi-baldintza kontua. Nahita ere familiak batzuetan ezin du lagundu, eta lagunek bai.

**"ZAHARRA NAIZ ETA GAZTEAK BEZALA ONARTUA IZAN NAHI DUT GIZARTE HONETAN"**





Herritar bat, bizikletan, Garibai etorbideko bidegorrian. SARA LANZ

# Oinezkoak eta bizikletak lehenetsiko dituen herri "bizigarriagoa" helburu

"Arrasatearren bizi-kalitatea hobetzea" helburu duen Mugikortasun Plana aurkeztu du Udal Gobernuak; datorren astean hasita, auzoz auzo emango dute horren berri, sei saiotan, eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute urte bukaerara arte

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Datozen bost urteetarako Mugikortasun Jasangarrirako Plana aurkeztu du Udal Gobernuak, "Arrasate bizigarriagoa" oinarri hartuta. Bost ardatz nagusi izango ditu planak eta lehena oinezkoentzako espazio zabalagoak eraikitzea izango da, Garazi Etxeberria Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun zinegotziak azaldu duenez. Hala, oinezkoentzako mugikortasuna errazteko, espaloi zabalagoak sortu gura dituzte, baita aisialdirako gune berriak sortu ere, haur parkeak izan daitezkeen eremuak sortzearekin batera. Halaber, ikastetxe inguruetan "baketze eremuak" ezartzea da asmoa. "Hau da, haurren segurtasunerako autoen mugikortasuna gutxitzea".

Horrekin batera, mugikortasun bertikal "eroso eta irisgarriak"

bermatzeko, hiru igogailu berri egitea aurreikusten du Gobernuak: batetik, Gorostiza auzokoa eta Altamirako azken igogailua, aurreko planean gauzatu gabe geratu zirenak; bestetik, San Andreskoa, Maiatzaren Bata plaza eta Arrasate pasealekua konektatuko dituen.

## Bizikletari garrantzi handia

Etxeberriak nabarmendu du "funtsezkoak" direla herria bizikletaz "modu seguruan" zeharkatzeko modu berriak. "Hala, bidegorri konektatuak, erosoak, seguruak eta erakargarriak egi-

**UDAL GOBERNUA:  
"GALDEKETA EGINGO  
DUGU AUTOBUS  
GELTOKIA NON  
KOKATU FINKATZEKO"**

tea da lehentasunetako bat, eta aparkaleku estaliak eta seguruak sortzea bizikletendako –lur azpiko parkingetan, esaterako–.

## Bost disuasio-aparkaleku

Plan berriak jasotzen du bost disuasio-aparkaleku egiteko azterketa, honako gune hauetan: Zalduspen, egun autobus geltoki nagusia dagoen lekuan; San Andres auzoan; Uribarrin, unibertsitate ondoan; Bizkaia etorbidean; eta Fagor Arrasate dagoen industrialdean. "Arrasatera pertsona asko datoz lanera edo ikastera, eta, haiei garraio publiko duina eskaintzeko beharraz gain, aparkalekuen beharri soluzioa eman behar zaio. Modu horretan, bost gune horietako batean autoa utzi eta erdigunera garraio publikoan joateko aukera eskaini gura dugu, erdiguneko trafikoa murrizteko.

Hala, erdiguneko aparkalekuak bizilagunen izango dira".

## Noranzko bakarrek errepideak

Kale batzuetan noranzko bakarrek errepideak jartzea proposatzen du planak, eta horrek herritarrengan hainbat onura dituela azaldu du Etxeberriak: "Oinezkoek eta bizikletek espazioa irabaziko dute; bizilagunen izango dira; plaza edo elkargune berriak sortzeko aukera emango du, berdeguneak sortzeko aukera emango du eta zarata eta CO2 emisioak gutxitu egingo dira".

## Autobus geltokirako bi aukera

Azken urteetan hizpide nagusietako bat izan da autobus geltokiaren kokalekua, eta horri ere heldu gura dio Udal Gobernuak. Hala, azaro erdi inguruan galdeketa bat egin gura dute, eta herritarrei bi aukera eman: geltokia Zalduspen mantendu edo Arizmendiari plaza inguruan jarri. "Zalduspek aukera asko ditu, baina herritarrek entzun nahi ditugu eta erabakia haiekin batera hartu. Galdeketa erabakia ez da loteslea izango, baina kontuan izateko konpromiso osoa hartuko dugu".

Galdetegiaren xehetasunak datozen asteetan iragarriko dituzte, proposamen bakoitzaren aukerak eta eraginak aztertuta. Gainera, Etxeberriak zehaztu du herribusaren lineak urtebete barru berri egingo dituztela eta helburua "auzoak autobus geltoki berriekin konektatzea" izango dela, izan Zalduspen edo Arizmendiari plaza.

## Hainbat esku-hartze martxan

Proiektuak epe luzeko begirada duen arren, Udal Gobernuak hainbat esku-hartze egingo ditu agintaldi honetan: "Musakolako bidegorri zati berri bat egingo dugu, eta proiektua idazten ari dira; Uribeko bidegorriaren proiektua berrikusi eta zati bat egingo dugu; jada martxan dauden Santa Marina eta Altamirako lehen fasearen irisgarritasun eta berrurbanizazio lanak egingo ditugu; baketze-guneak

sortuko ditugu ikastetxe inguruetan haurren segurtasunerako –adibidez, San Andresko Herri Eskola ondoan–; eta hirigintza taktikoa martxan jarriko dugu, obrarik egin gabe, errepideak oinezkoentzako bilakatu, epe motz edo luzerako. Azkenik, mugikortasun jasangarrirako formakuntza eta kontzientziazio kanpainak egingo ditugu".

## Aurkezpena, auzoz auzo

Plana auzoz auzo aurkeztuko du Gobernuak, sei saiotan, eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute abendura arte. Honako hauek izango dira saioak, guztiak 18:00etan: urriaren 7an, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, erdigunekoentzat; urriaren 8an, Uribarri-Erguingo erretiratuen etxean; urriaren 10ean, udaletxe osoko bilkuren aretoan, landa-auzotarrentzat; urriaren 15ean, Santa Marinako auzo-alkatetzan; urriaren 17an, Etxaluzen, San Andresko bizilagunen izango dute abendura arte. Honako hauek izango dira saioak, guztiak 18:00etan: urriaren 7an, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, erdigunekoentzat; urriaren 8an, Uribarri-Erguingo erretiratuen etxean; urriaren 10ean, udaletxe osoko bilkuren aretoan, landa-auzotarrentzat; urriaren 15ean, Santa Marinako auzo-alkatetzan; urriaren 17an, Etxaluzen, San Andresko bizilagunen izango dute abendura arte. Honako hauek izango dira saioak, guztiak 18:00etan: urriaren 7an, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, erdigunekoentzat; urriaren 8an, Uribarri-Erguingo erretiratuen etxean; urriaren 10ean, udaletxe osoko bilkuren aretoan, landa-auzotarrentzat; urriaren 15ean, Santa Marinako auzo-alkatetzan; urriaren 17an, Etxaluzen, San Andresko bizilagunen izango dute abendura arte. Honako hauek izango dira saioak, guztiak 18:00etan: urriaren 7an, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, erdigunekoentzat; urriaren 8an, Uribarri-Erguingo erretiratuen etxean; urriaren 10ean, udaletxe osoko bilkuren aretoan, landa-auzotarrentzat; urriaren 15ean, Santa Marinako auzo-alkatetzan; urriaren 17an, Etxaluzen, San Andresko bizilagunen izango dute abendura arte.

## Planak, "hobetzeko beharra"

EAJk uste du planak "hobeto landu eta hausnartu beharreko arlo asko" dituela, "herritar guztien beharrei erantzun egokia emateko". Izan ere, Arrasate "scalextric" bilakatuko dela uste dute jeltzaleek, eta planak "arazoak" sor ditzakeela hainbat esparrutan; besteak beste, autobus geltokiaren kokapenean. "Beraz, herritarrek galdetegi bete aurretik informazio osoa eduki dezaten eskatzen dugu".

Beste puntu "kezagarri" bat "273 aparkaleku desagertzearena" da, Ander Garay jeltzaleen bozeramailearen iritziz, "eta horietako 149 egoiliarrentzako TAO aparkalekuak izango dira".

Horrekin batera, zera dio: "Zarugalde osoa oinezkoentzat izango da, baita San Andresko Doctor Bañez kalearen erdia, Etxetxikiak kalearen erdia eta Uribe auzoko egungo errepide nagusia. Horrez gain, Uriburu kaleko etxebizitzaren ondoan joango da errepidea, eta Ignacio Zuloaga kalea errepide nagusi bilakatu da Munarko noranzkoan".

Horregatik, herritarren parte-hartzea ezinbestekotzat dute jeltzaleek, plana "hobetu" ahal izateko. "Beraz, sei bilera horietan parte hartzea animatzen ditugu arrasatearrak, haien ekarpenak egin ditzaten".

**EAJ: "ARRASATE  
'SCALEXTRIC'  
BILAKATUKO DA, ETA  
273 APARKALEKU  
GALDUKO DITUGU"**



# Udalbatzaren onarpena dute ordenantza fiskalek

Martitzenean egin zuen udalbatzak urriko ohiko osoko bilkura, eta datorren urterako ordenantza fiskalak onartu zituzten, besteak beste. Halaber, behin betiko onarpena eman zioten Alfontso VIII kaleari izena aldatzeari; orain, 17 Emakume kalea izango da

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Udal Gobernuak 2025eko ordenantza fiskaletarako egindako proposamenak aurrera egin zuen martitzenean udalbatzan, nahiz eta EAJ abstenitu egin zen eta sozialistek kontra bozkatu zuten. Joseba Ezpeleta Ogasun zinegotziak hartu zuen hitza lehenik, haien proposamena argudiatzeko. "Oposizioekin negoziatu osteko testua da hona ekarri duguna. Zabor tasak %38ko igoera izango du, legeak hala behartuta, eta, beraz, familiei zuzenean eragiten dien tributuetan ez da igoerarik egongo. Gainontzekoetan, %3koa, KPIaren arabera. Aipatzekoa da, era berean, Foru Funsetik %4

inguru gutxiago jasotzea aurreikusitakoa baino milioi bat euro gutxiago. Horrekin batera, azpimarratu gurako nuke Urkulutik erosten dugun uraren prezioa %12 igo nahi digutela. Beraz, Partzuergoekin negoziatzen saiatuko gara, igoera baxuagoa izateko". Gaineratu zuen ordenantza horiekin epe ertaineko erronkei erantzun ahal izatea dela Udal Gobernuaren helburua.

Eva Abuin Elkarrekin Arrasateko zinegotzi eta gobernuki-deak bat egin zuen irakurketa-ekin eta Ander Garay jeltzalea izan zen berba hartzen hurrena. "Gobernuaren aldetik ibilbide

aldaketa bat ikusi dugu, adostasunetara iritsi ahal izan gara eta hori ontzat hartzen dugu. Agintaldia igoerekin hasi genuen eta hasieratik defendatu izan dugu zergak izoztea, Udalaren egoera ekonomiko ona kontuan hartuz. Hala, gure proposamena lau ardatzetan banatzen da: zerga eta tasa igoera orokorrik ez aplikatzea; trantsizio energetikoari lotutako bi hobari ezartzea, alokairuko etxebizitzako pizgarri fiskala ezartzea eta guraso bakarreko familientzako tarifa berezia aplikatzea kiroldegian".

Azkenik, Johanna Sanchez sozialistak zera esan zuen: "Ez da beharrezkoa zergak igotzea. Zergak izoztea eskatzen dugu

eta dirulaguntzak ezartzea alokairuko etxebizitzendako".

## 17 Emakume kalea izango da

Zuztarrak Errotuz taldeak abenduko osoko bilkuran aurkeztutako mozioa onartu ostean, behin betiko onarpena eman zion udalbatzak Alfontso VIII kaleari izena aldatu eta 17 Emakume kalea izena ezartzeari, eta taldeko hainbat kide osoko bilkuran egon ziren, horren lekuko izateko.

Jeltzaleak abstenitu egin ziren puntu horretan. "Ados gaude proposamenarekin, baina izen aldaketan gaineko lanketa osatu bat egin beharko litzatekeela uste dugu, aldaketa solteak egin beharrean", zioen Garayk.

Sozialistek, era berean, aldeko botoa eman zuten, baina Sanchezek ñabardura bat egin zuen: "Izen aldaketaren alde gaude, baina egindako lanari jarraipena eman behar zaio; osoko bilkurako koadroak emakumezkoenak izateko, esaterako". Abuinek zera erantzun zion: "Zuek Gobernuan zeundetenean Arizmendiarrrieta plaza eta Juan Arzamendi Musika Etxea izenak jarri zenituzten, biak gizonen izenak; harrigarria da orain hori esatea".

## Zinegotzi aldaketak ere bai

Azkenik, EH Bilduko Eñaut Arriaranek zinegotzi kargua hartu zuen martitzeneko saioan, Asier Murguzurrek uko egin ostean. Halaber, Pepa Gorosabel jeltzaleak ere uko egin zion karguari, baita udal hauteskunderarako jeltzaleen zerrendan hurrengoa zen Jon Berezibarrek ere, EAJk baieztatu duenez. Beraz, oraindik zehazteke dago nork beteko duen hutsune hori udalbatzan.



NIRE USTEZ

ANDER GARAY

## Gora Nagusien Kontseilua!

Nagusien Astea izan dugu irailaren 27tik urriaren 1era arte. Arrasaten badira bost urte Arrasateko Nagusien Kontseiluak egitarau osatu bat aurkezten digula arrasatearroi, guztion gozamenerako.

Aurten, bakarrikzeta umoretsu batekin hasi eta Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak?* konferentziarekin amaitu da. Bi ekitaldien erdian, kapelen desfile intergenerazionala, bi kontzertu ezberdin eta urriaren 1ean, Nagusien Egunean, manifestuaren irakurketa izan genituen.

Egitarau oparua eskaini digu Arrasateko Nagusien Kontseiluak, herriko hainbat eragileren kolaborazioarekin. Beraien aurkezpenean esan ziguten moduan, ez da bakarrik pertsona nagusientzako egitaraua izan, baizik eta herritar orori zuzendutakoa.

Aipaturiko ekintza horietako gehienez gozatzeko aukera izan dut, eta lerro hauek baliatu nahi izan ditut Nagusien Kontseilua zoriontzeko, azken bost urteetan Nagusien Astea antolatzeke egiten duzuen esfortzuagatik, baina baita egunero egiten duzuen lan eta proposamenengatik ere; bihotzez, eskerririk asko!



Martitzenean egin zuten urriko ohiko osoko bilkura. A.E.B.

PARLANCE  
LANGUAGE SCHOOL

IRLANDAN  
hizkuntza egonaldiak

Ferreries kalea 26 • Arrasate • 943 77 06 83  
www.parlance-idiomas.com

Gora Maritxu Kajoi!

Adara  
ILE-ARRINDEGIA

Tel: 943 08 10 58  
Biteri etorbidea 15 behea  
odoroleapaindegia@gmail.com  
Arrasate

GORA MARITXU KAJOI!

CENTRO ECUESTRE  
ZABOLAIN  
ZALDITEGIA

Gesalibar azuoa 36 - Arrasate - 627 83 15 55





# Barrua berotuko dute txikiteroek

Goizeko freskurari barruak epelduta egingo diote aurre gaur txikiteroek, haien ama birjinaren egun handian; berrogeita bosgarrenez ospatuko dute Maritxu Kajoia



Herriko Plaza jendez beteta, Maritxu Kajoik miraria egin zuen unean, iaz. GOIENA

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Urriko lehen egubakoitzarekin batera, iritsi da txikiteroen ama birjinaren egun handia; ate-jokadator Maritxu Kajoia. Urtero moduan, egun osoko egitaraua prestatu du Maritxu Kajoia Komisiñuak eta, iaz bezala, aurten ere Miren Barrenetxeak eta Ane Agirrek egin dute kartela. Egitarauari dagokionez, nabarmentzekoa da, besteak beste, 12:00etan irekiko dituztela txosnak eta bi ordu beranduago, 14:00etan, Palestinaren eta Sahararen aldeko elkartasun argazkia aterako

du. Bazkaltzen indarrak hartu ostean, ohi legez, Txatxilipurdik aisialdi hezitzailea eskainiko du 17:00etan Jokin Zaitegi plazan eta eguna iluntzearekin batera iritsiko da Maritxu Kajoiren miraria. 20:30ean izango da hori, Herriko Plazan. Bukatutakoan, Txita Sound Systemen emanaldia hasiko da txosnetan eta Luhartz taldea plazako oholtzara igoko da 23:00etan. Gauerdia pasata, La Fulana DJk jarriko ditu dantzan txosnan elkartzen direnak, 01:00etan hasita.

**Indarkeriarik gabeko jaien alde** Aurten ere indarkeria matxistari aurre egiteko baliabideak jarriko ditu Udalak, Emakume Txokoaren bitartez. Modu horretan, indarkeria matxisten prebentziorako eta sentsibilizaziorako gunea Arbolapetan egongo da, 18:00etatik 00:00etara. Indarkeria matxistan eta auto-defentsa feministan adituak diren emakumeak egongo dira laguntza, informazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzeko.

Gune horren helburuak asotarikoak izango dira, besteak

beste, honako hauek: emakumeak eta herritarrak, oro har, indarkeria sexistaren gaiaz kontzientziatzea; emakumeek jaietan indarkeria sexistarekiko dituzten bizipenak, iritziak eta interesak jasotzea; babes eta elkartasun-gune bat sortzea eta indarkeriari aurre egiteko bitartekoak ematea; erasotzailer izan daitezkeenei ohartaraztea dena libre ez dela eta erasoak dauden kasuetan erantzuna izango dutela; eta emakumeek haien burua defendatzeko duten gaitasunaz jabeaztea, eta ho-

rretarako bitartekoak eta lan-tresnak eskaintzea.

Bestetik, arreta-puntua egongo da Gazte Bulegoan, 00:00etatik zapatu goizaldera arte -08:00-. "Emakumeek\* eta neska\* gazteek jaietan indarkeria sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzeaz gain, arreta, babes zein elkartasun-gune bat izango da", azaldu dute udal ordezkariak. "Indarkeria sexistan eta auto-defentsa feministan emakume adituak egon dira eta, horrez gain, espazioa irekita egongo da LGTBI komu-

**ALDEDI**

Gora Maritxu Kajoia!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84





Arrasate Rugby Taldekoek jaso zuten inbutu preziatua, egubakoitzean. GOIENA

nitateak jaso ditzakeen erasoen aurrean".

Azkenik, telefono-zenbaki bat ere jarriko dute, urterokoa, laguntza eskaintzeaz gain, informazioa edo aholkuak emateko -688 80 91 37-. Egubakoitzean 18:00etatik zapatuko 08:00etara egongo da erabilgarri.

#### Trafikoa moztuta erdigunean

Festarako eguna izanik, gaur 18:00etatik biharko 08:00etara zirkulaziorako itxi egingo dituzte Otalora Lizentziaduna eta Zarugalde kaleak. "Jaigunearen

eta alde zaharraren arteko jende fluxuaren segurtasuna bermatzeko neurri gisa" hartu du Udalak erabakia. "Dena den, salbuespenak izango dira bertako garaieetako ibilgailuentzat -sartu eta irten ahal izango dira-, eta hondakinen kamioiak ere bertatik igaroko dira", gaineratu dute udal ordezkariak. Herribusa, aldiz, ez da igaroko itxitako eremutik eta ordu tar- te horretan San Frantzisko eliza ondoko biribilgunean eta Muzibarkoan izango ditu behin-behineko geralekuak.

Horrekin batera, TAO sistema ere bertan behera geratuko da gaur 13:30etik aurrera. "Ondorioz, aparkaleku-tasa ez da indarrean egongo arratsaldean eta ibilgai- luek ordaindu gabe aparkatu ahal izango dute eremu horietan". Aldaketa horiek guztiak "behar bezala" seinaleztatuta egongo direla azpimarratu du Udal Gobernuak.

#### Miraria, zuzenean, sarean

Esan bezala, 20:30ean egingo diote lore-eskaintza Maritxu Kajoiri eta orduan egingo du aurtengo miraria. *Goiena.eus*-en zuzenean jarraitu ahal izango da momentu horrek ematen duena, baita datozen egunetan Goiena telebistan ere. Era berean, Goiena telebistak jarraipen zuzena egingo dio gaurko egunari, herritarren eta antolatzaileen hitzak jasota.

### GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK, OHI LEGEZ, 'PHOTOCALL'-A JARRIKO DU PLAZAN, 12:30EAN HASITA

## Gauean, taxia landa-auzoetara

Gaur, egubakoitza, Udalak doako taxi zerbitzua jarriko du Udala, Bedoña, Meatzerreka, Garagartza, Gesalibar eta herriko beste landagune batzuetan kokatutako baserrietara mugitzeko. Taxia erabili ahal izateko, 688 73 52 23 zenbakira deitu beharko da -21:30etik aurrera-, eta taxilariekin hitzordua adostu. 22:00etatik 08:00ak arte egongo da marxan zerbitzua.

Bestalde, autobus zerbitzua ere indartu egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hala, gaueko zerbitzuak ibiliko dira, urteko gainerako zapatuetako linea (DG40G eta DG41G) eta ordutegi bereberekin. Gainera, Leintz Gatzagako alkateak eskatuta, DG41G herriraino iritsiko da bizilagunen batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bihar goizean errefortzuak jarriko dituzte Arrasatetik hainbat herritara.

Horrekin batera, Goiena Komunikazio Taldeak *photocall*-a jarriko du Herriko Plazan, 12:30etik 14:30era eta 17:00etatik 19:00etara. Hala, herritarrek argazkiak atera ahal izango dituzte, haien dotorezia denboran iltzatuta gera dadin, eta ondoren Whatsapp zein Telegram bidez jasoko dituzte argazki horiek, Goienaren eskutik.

#### Inbutu preziatua, ARTkoentzat

Joan den egubakoitzean egin zuten *nobenaixua*. Arrasate Rugby Taldeak jaso zuten Mari-

txu Kajoiren inbutu preziatua, "herrian egiten duen ekarpenagatik eta lanagatik", eta klubak "etorkizun oparoa" izan dezan aldarrikatu zuten komisioko kideek. "Herriaren indarra eta balioak transmititzen dituen dragoi taldea da". Era berean, Ramon Barrutia ARTko zuzendariak "pozez" hartu zuen albiste: "Azken batean, herriak gure lana aitortzea da inbutua jasotzea. Izan ere, gure proiektuak alde soziala eta kirol arloa uztartzen ditu, arrasatear eta debagoiendar guztiei aukera emanez".

**SALTOKI HOME**  
Sukaldea | Zeramika  
Altzariak | Komuna  
Argiztapena

**Ondo ibili  
Maritxutan!**

Kataide poligonoa z/g  
**Arrasate**





# Eskapularioa, Maritxu Kajoi eguneko zigilua

Maritxu Kajoi Komisiñuak egiten duen lehenengo gauza da eskapularioa. Aldarria zehaztu, eta irudiarekin batera inprimatzera bidaltzen dute Eguzkigraf-era. Arbolapetan eta Monte taberna kanpoan izango dira salmenta-puntuak; prezioa bi euro da

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE  
Arrasateko Maritxu Kajoi Egunean garrantzi handia ematen diote askok traje edo soineko ederra jantzita joateari. Batzuk kapelarekin doaz, dotore, beste batzuk gorbatarekin edo tximeleta-begiztarekin; beste batzuk, aldiz, kasualago jantzita. Kuadrilla gehienek bazkaria egiten dute, nahiz eta afaria egitea den antzinako ohitura; bakar batzuek egiten jarraitzen dutena. Goizean goiz ile-apaindegira joaten dira asko, eta beste askok parranda egitea soilik dute helburu, itxurari hainbeste erreparatu barik. Baina bada gauza bat ezinbes-



Eskapularioak, alde bietatik. MARITXU KAJOI KOMISIÑUA

tekoa izaten dena txikiteroen jai eder horretan, eskapularioa soinean eramatea.

**Gizarteari begira, aldarriarekin**  
Maritxu Kajoi Eguna ospatzen denetik urtero-urtero egin izan dute eskapularioa Maritxu Kajoi Komisiñuko kideek. Horrela, Maritxu Kajoi Egunean dotore-dotore jantzi eta eskapularioa soinean eramateko ohiturak jarraitzen du; debozioz, askoren kasuan. Are gehiago, Maritxu Kajoi Komisiñuak egiten duen lehenengo gauza da lepoan eramango den bereizgarria zehaztea, eta, denboraz, Aretxabaletako Eguzkigraf enpresara inprimatzera bidaltzen dute irudia, urriaren 4a aurretik guztiak prest izateko.

Beti izaten du aldarri bat, eta aurten Palestinaren eta Sahararen askatasuna aldarrikatzeko baliatuko dute. Horrekin batera, paparretik zintzilik eramateko, kartoiari sokak edo lokarriak jartzea ezinbestekoa da, eta egunerako soka guztiak prestatzeaz Iñaki Gurrutxaga *Harristi* arduratzen da; gero, Maritxu Kajoi Komisiñuko ki-

deak domeka batean batzen dira lotzeko; hau da, sokak kartoiari lotzeko.

**Salmenta-puntuak**  
Eguerdiko hamabietan jarriko dituzte salgai, bi eurotan, gaur, Arbolapetan; eta arratsaldean, berriz, Arbolapetan eta Monte taberna kanpoan jarriko dituzte, urtero-urtero moduan. Ez dute postua soilik jarriko eta bertan salmenta egiten egoteko tartea hartuko Maritxu Kajoi Komisiñuko kideek; izan ere, azokan egongo balira bezala, bertatik pasatzen den orori ia lepoan jarriko diote eskapularioa.

Maritxu Kajoi eguneko bereizgarria soinean jantzita ateratzea eskatzen dute urtero antolatzaileek, diru-iturri bakarra da-eta, tabernekin ematen duten laguntzaz gain, eta, horrenbestez, jai horretara batzen direnei eskapularioa erosteko dei egiten diete. "*Karpetoek* ez dutela erosten esaten dugu beti broma gisa Komisiñuko kideok; beraz, erosi, eta ez izan *karpeto*", adierazi dute Maritxu Kajoi Komisiñuko kideek.

**EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE**  
*Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!*  
**IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ**  
**MONTE • DAT • OSORIK**





Iaz, neska kuadrilla bat lore-eskaintza egiten eta talde-argazkia ateratzen. GOIENA



Arizmendiko Umezaintzan haurrak paperezko loreak egiten. JULENE AGIRRE

# Lore-eskaintza Maritxuri, ohiturari eutsiz

Maritxuren aurrera joan eta lore-eskaintza egiteko ohitura ere badute lagun talde askok, eta, bide batez, talde-argazkia ateratzen dute. Haiez gain, ikastetxeetako ikasleak ere joan izan dira Maritxuri lore-eskaintza egitera, baita abestera ere

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE Dotore jantzita, eskapularioa lepoan jarri eta lagun artean jai giroan ibiltzeaz gain, lore-sorta Maritxuri eramateko ohitura dute askok. Herriko Plazako iturriaren bueltan talde-argazkia ateratzen dute kuadrillek, eta lore sorta ere eskaintzen diote, *Ez gaude denok* aldarriaren azpian.

Ikastetxeetako haurrek ere ospatzen dute Maritxu Kajoi,

eta astean zehar apaingarriak egiten izaten dira: gorbatak, tximeleta-begiztak eta loreak. Maritxu parera ere joango dira aurten hainbat ikasle abestera eta lore-eskaintza egitera.

## Haurren lore-salmenta

Astean zehar ikasgeletan egin-dako loreak saskietan sartu eta saltzen ere arituko dira ikasleak egunean zehar, diru pixka bat ateratzeko.



**Gualbi**  
aholkularitza  
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Gora Maritxu Kajoi!*



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • [erana@aserana.com](mailto:erana@aserana.com) • [www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

## MIRARIA ZUZENEAN

'GOIENA.EUS' ATARIAN

URRIAREN 4AN, EGUBAKOITZA, 20:30EAN  
MARITXU KAJOI ARRASATEN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.







# Aurtengo urriaren 4a bereziagoa izango da arrasatear batzuentzat

Urtero argitaratzen du Maritxu Kajoi Komisiñuak jai ospatuko den egunean urteak betetzen dituzten arrasatearren zerrenda. Aurten 26 herritarrek beteko dituzte urteak urriaren 4an, eta "gogo handiz" ospatuko dute Maritxu Kajoi Eguna

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE  
Urriak 4 ditu, eta, urtero urriko aurreneko egubakoitzean gertatu bezala, Maritxu Kajoi jai ospatuko dute Arrasaten. Gazte zein heldu, herritar ororentzat berezia izaten den eguna da, baina badaude urtero modu bereziagoan bizi dutenak; izan ere, badaude urtebetetzea Maritxu Kajoi Egunean betetzen duten arrasatearrak, eta urtero euren zerrenda bat argitaratzen du komisioak. 26 izen-abizenek osatzen dute aurtengo

zerrenda, eta guztiek izango dute zer ospatu aurtengo Maritxu Kajoi Egunean.

## Plana ez da aldatzen

Gaurko egunean urtebetetze eguna ospatzen duten zerrendako bi dira Josu Herrero eta Ander Murua arrasatearrak, eta, Maritxu Kajoi modu ezberdinean ospatuko badute ere, "ohiko planari" eutsiko diotela aitortu dute. Muruarentzat eta, haren ustez, "arrasatear guztientzat oso berezia eta polita" izaten da

Maritxu Kajoi Eguna, "kuadrilla guztiak elegante jantzita elkartu eta herriko kaleetan batera" ibiltzen direlako. Herrero ere hala uste du, eta, haren "jai gustukoenak ez badira ere, oso egun polita da betiko lagunekin elkartzeko -batzuk, gainera, aspaldi ikusi gabekoak izaten dira-, bazkaltzeko eta eguna eurekin igarotzeko".

Aurtengoa berezia izango da bientzat, euren urtebetetze egunarekin bat egingo duelako jaiegunak. Muruari, baina, "bereziagoa" izango dela aitortu

arren, eguneko planean ez dio aldaketarik eragin: "Duela sei bat urte ere nire egunarekin bat egin zuen jaiak, eta egia da jende gehiagok zoriondu ninduela, baina planak berbera izaten jarraitu zuen: goizean lagunekin irten, eurekin bazkaltzera joan, eta ostean kalean buelta bat ematea". Herreroen kasuan, azken unera arte ere ez zen ohartu bere urtebetetze eguna eta Maritxu Kajoi aldi berean ospatuko zirela: "Anekdotak gisa, konturatu ere ez nintzen egin biak egun berean izango zirela. Ez dut irteteko gogo handirik, eta etxekoekin bazkalduko dut, nire eguna ere ospatu dezagun. Ea gero lagunekin trago batzuk hartzera irteteko aukera dudan".

## Herritik kanpo ezaguna

Arrasatearrak bai, baina herritikoak ez direnak ere sarritan etortzen dira Arrasatera Maritxu Kajoi jaira; izan ere, bailaran eta Euskal Herriko beste hainbat txokotan ezaguna den jai bat da, eta, goizetik hasita, herritik kanpo etorritako jendea ikusten da Arrasateko kaleetan zehar. Herrero dio kanpoko hainbat lagunekin hitz egin duela Maritxu Kajoi buruz: "Herritik kanpo jai ezaguna dela iruditzen zait, nahiz eta azkenaldian beherakada bat izan duela iruditzen zaidan. Baditut lagun batzuk -Euskal Herrikan kanpokoren bat ere bada- jai ezagutzen ez zutenak

baina etorri eta hemengo giroarekin harrিতuta gelditu direnak". Muruak, bestalde, unibertsitateko garaia gogoratzen du: "Unibertsitatean ari nintzenean, herritikoak ez diren lagun asko etortzen ziren Maritxu Kajoi Egunean festaz gozatzera".

## Kirolak eragina

Herrero eta Murua kirolari lotuta egon dira urte askoan, eta gaur egun ere lotuta jarraitzen dute, eta, beraz, Maritxu Kajoi festa ospatzen denean kirol hitzorduren bat izan dezakete. "Kirolak asko baldintzatzen du eguna; izan ere, iaz partidua jokatu behar izan nuen zapatu goizean, eta ezin izan nuen egunaz guztiz gozatu, afaltzeko orduan etxera joan behar izan nuelako", dio Muruak. Herrero zorte hobea izan du urte batzuetan; izan ere, "Arrasaten jokaturako partidua domekan" jartzen zituzten. Hala ere, gaur egun entrenatzaile ari da, eta "partidu batzuk zapatu goizean jokatu behar" izan ditu. Kontuak kontu, urtero bezala aterako dira Herrero eta Murua euren egunaz baina, batez ere, Maritxu Kajoi gozatzera.

## "NORBERE URTEBETETZE EGUNA IZAN ARREN, PLANA EZ DA ALDATZEN"

JOSU HERRERO, URRIAREN 4AN JAIOTAKOA



Herrero eta Murua, eskapularioa soinean dutela. GOIENA

## "EGUNA BEREZIA DA, BAINA AURTENGOA ARE BEREZIAGOA IZANGO DA"

ANDER MURUA, URRIAREN 4AN JAIOTAKOA





**CHAPIME TAILERRAK**



**TXAPIME AUTOAK**

**CITROËN C3 Berria!**  
GASOLINA  
%100 ELEKTRIKOA



*Gora Maritxu Kajoi!*

**KIA NIRO**  
HIBRIDO ENTXUFAGARRIA  
HIBRIDOA  
%100 ELEKTRIKOA



San Andrea sudea 5, Arrasate - Tel. 943 79 45 22



# Ford Tourneo Courier CAMPER

by TINKERVAN



Zure Ford Tourneo Courier berrirako **Camper** aukerak:

- Flexi-Bed Ohe-modulu erauzgarria
- Berogailua
- Toldoa
- Dutxa
- Hozkailua eta abar



INFORMAZIOA



 **GRUPO  
EASO  
MOTOR**

San Andres, 6 · 20500 Arrasate

 687 94 35 92 -  943 79 07 44

[www.grupoeasomotor.com](http://www.grupoeasomotor.com)



Easo Motor





Txakurrak taldeko kideak, promozio argazki batean. JOKIN MENDIZABAL

# Musikalki "osatuagoa" den lana kaleratu dute

Arrasateko Txakurrak taldeak 'Gizatasunetik at!' lan berria kaleratu du eta lehen kontzertuak ematen dabil. Lan "osatuagoa" dela diote, eta musikalki ere "eboluzio" bat nabaritzen dela. Zortzi abesti ditu lanak eta zazpi euskaraz dira

## Iñigo Barrena ARRASATE

Uztailean kaleratu zuten bigarren lan luzearen lehen abestia eta bideo-klipa eta abuztuan, aldiz, zortzi abestiz osatutako *Gizatasunetik at!* lanak argia ikusi zuen. Arrasateko Txakurrak taldeak kaleratzen zuen bigarren diskoa zen, eta taldekideak gustura dira aurkezturiko soinu berriekin. "Emaitzarekin oso gustura gaude", azaldu du Jokin Mendizabalek, Txakurrak taldeko kideak. Diskoa binilo formatuan kaleratu dute soilik, gaur egun "disko gutxi" saltzen direla iritzita. Nobedade garrantzitsuetako bat euskararen presentzia nabarmen handitu dutela da. "Lehen diskoan kantu bakarra geneukan euskaraz, baina argi genuen etorkizunera begira gure kantuak euskaraz egin nahi genituela. Oraingoan alderantziz gertatzen da, denak dira euskaraz bat izan ezik", dio. Gainera, euskarazko doinu horiek gizarteari kritika egiteko baliatu dituztela aipatu du: "Abes-

ti gehienek dute gizartearen gertatzen denaren gainean kritika puntu bat, diskoaren izenburutik hasita".

## Osatuagoa den lana

Lan berriak dituen nobedadeak ez dira soilik euskarari eta kritika sozialei lotutakoak; izan ere, Mendizabalek azpimarratu du osatuagoa den diskoa dela: "Musikalki bigarren lan honetan eboluzio bat izan dugu, abestiak gehiago landu ditugu eta buelta gehiago eman dizkiegu. Gainera, ahotsa ere berria da oraingo honetan, eta horrek ere beste ukitu bat eman dio".

Bilboko Pookah estudioan grabatu zuten lana, eta prozesua "naturala" izan zela aitortu du,

**ZORTZI ABESTIETATIK ZAZPI EUSKARAZ DIRA; LEHEN DISKOAN BAKARRA ZEN EUSKARAZ**

baina horra iristeko bidean egindako lana diskoan islatuta ikusten dela: "Estudiora lehen aldian baino askoz prestatuago iritsi ginen. Elkarrekin gehiago egon gara, gehiago ezagutu dugu elkar eta gure arteko konexioa ere handiagoa da. Hori diskoan ere nabaritzen da".

## Gozatzen hasita

Konexio hori diskoan ez ezik oholza gainean ere nabaritzen dela dio Txakurrak taldeko kideak, eta zuzenekoak hobeak direla uste du: "Orain kantuen zerrenda luzeagoa da eta horrek zuzenekoak osatuagoa izatea dakar". Hori helarazten saiatzen hasiak dira. Dagoeneko estreinatuta dute lan berria, eta aurrera begirakoak ere finkatuta dituzte: "Gure asmoa 2025eko sanjuanak arte jotzen aritzea da, hilero kontzertu bat edo bi emanda, hain zuzen". Momentuz, urrian Deustun izango dira eta azaroan, aldiz, Iruñeko Aitzina tabernan joko dute.



Keia taldearen kontzertua urriaren 24an izango da. GOIENA

## Kooltur Ostegunekin gozatzeko aukera, hamabosgarrenez

Datorren ostegunean, hilak 10, Hernaniko Bamms taldeak estreinatuko du denboraldi berria

## I.B.K. ARRASATE

Kooltur Ekintzako kontzertuak ikasturte berria hasteko prest dira. Beti bezala, ostegun gaueko, Euskal Herriko zein kanpoko panorama musikaleko taldeak entzuteko aukera egongo da Arrasateko gaztetxe oholza gainean. Aurtengoa Kooltur Ostegunen hamabosgarren aldia izango da eta Bamms taldeak izango du ikasturte berria estreinatze arduradoren egunean. 2017an Donostia aldean jaiotako boskotea da eta punk-rock doinuak jorratzen dituzte. Lehendabizi, zortzi abestiz osatutako make-ta bat grabatu zuten, eta 2021ean kaleratutako *Last chance* lan luzea da euren orain arteko ibilbidean argitaratu duten lana. Gainera, 2023an, Katapultatour Gipuzkoa 2023 programarako hautatutako musika taldea ere izan zen.

## Urriko egitaraua

Hilaren 10ean hasiko da Kooltur Ostegunak, Bamms taldearekin, baina dagoeneko hilabete osoan egongo diren kontzertuen berri ere eman dute. Urriaren 17an Kinki Boys Bilbon sortutako hirukotea izango da oholza gainean; kaleratu duten azken lanak *El país de las maravillas* izena darama. Astebete geroago, hilaren 24an, Oñatiko Keia taldearen txanda izango da, eta duela gutxi kaleratu berri dute *Tiraka nabil* abestia; horrez gain, gaur bertan kaleratuko dute euren lan luze berria: *Zamalanak*. Rock doinuekin gozaraziko dituzte ikus-entzuleak. Urria amaitzeko, hilaren 31an Eneritz Furiyak bakarlariak joko du kontzertua. Beti bezala, kontzertuak eguen gauetan izango dira, 22:00etan hasita, gaztetxean, eta sarrerek zazpi euro balioko dute.

## Hiriko Soinuak lehiaketan saritua izan da Erromintxelak

Barakaldon egiten den Hiriko Soinuak musika lehiaketan saritua izan da Arrasateko Erromintxelak taldea. Zapatuan jokatutako finala, eta horren ostean jakinarazi zuten Arrasateko taldeak Euskara Saria irabazi zuela, euskarazko kantu onena egin izanagatik. Sari horrekin batera beste bi ere eskuratu dituzte: lehenik, urriaren 25ean

eta 26an Barakaldoko plazan egingo den Hiriko Soinuak jaialdian parte hartuko dute; horrez gain, lau kantuz osatutako lan txiki bat grabatzeko eta masterizatzeko aukera ere izango dute, Gauda Produzioak estudioan. Gainontzeko hiru saridunak honako hauek izan dira: Sari Nagusia Deep Sea Monk taldearentzat izan da; Barakaldoko Artista Onenaren Saria, Debuk taldearentzat; eta Berdintasun Saria, berriz, Edgar Allan Pop taldeak eraman du.



# Martxan da sagar-zukua egin ahal izateko zentroa

Aurten sagar urtea ez den arren, Aramaioko Sagarzalien Elkarteak urtero bezala zabaldu ditu ateak Mendixolako sagar-zukua egiteko zentroan. Gainera, hori erabiltzeko gutxienerako sagar kilo kopurua 700 kilotik 500era jaitsi dute oraingoan

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO Normalean, bi urtean behin izaten da sagar urtea, eta aurten ez da tokatzen. Beraz, Aramaioko Sagarzalien Elkarteak (ASE) badakite iaz baino kantitate txikiagoa ekoiztu ahal izango dutela Mendixolan sagar-zukua egiteko daukaten zentroan. Horregatik, eta sagarra daukan ahalik eta jende gehienak makineria erabiltzeko aukera izan dezan, hori erabiltzeko gutxienerako eta gehieneko sagar-kilo kopurua aldatu egin dutela adierazi du ASEko presidente Unai Osorok: "Ikusi dugu sagar gutxi daukan jendea ez zela iristen prentsate bat egitera, eta, orduan, gutxienerako sagar kilo kopurua 500era jaitea erabaki dugu, eta gehienekoa 800 da. Beraz, hor bitartean daukatenean aukera izango dute dolarea erabiltzeko".

Gainera, Osorok azpimarratu du gutxienerakora iristen ez direnek ere aukera dutela, esaterako, biren artean egiteko. Hori lehen ere egiten zuten, eta, ho-

rrera, aukera zabaldu nahi izaten dute. Izan ere, helburua da sagarrari etekina ateratzea. "Sagar guztiak batera etortzen dira, eta kontserbatzeko eta urtean zehar aprobetxatzeko modua da hau", esan du Osorok.

## Jarraitzen duten prozesua

Sagar kantitatea norberak pisatuta eraman dezake Mendixolara edo bertan ere egin dezake lan hori, eta prozesu hau jarraitzen dute: "Sagarrak garbitzen dituen makina daukagu; beraz, garbitu egiten dira lehenengo, eta makinak berak beste batera bidaltzen ditu, sagarrak txikitzen. Konpota moduko bat egiten da eta hori sartzen da zuzenean prentsara, eta hark egiten

**SAGAR-ZUKUA EGIN NAHI DUTENEK TXANDA HARTU BEHARKO DUTE 644 93 46 03 ZENBAKIAN**

duena da zanpatu eta zukua atara". Prozesu horrek ordu eta erdi inguru irauten du.

Zukua sagardo bihurtu nahi duenak etxera eramaten du. Eta bestela, sagar-zukua egiteko, uperizazio deritzon prozesua jarraitzen dute Mendixolan, zukua ia 90 gradutan berotuta. Gero, botiletan sartzen dute, eta ostean, Maria bainutan egosten dute beste hamabost minutuz.

Aurtengo denboraldian langile bakarra dabil lanean, sagar urtea izaten ez den gainontzeko urteetan bezala; sagar urteetan bi egoten dira.

## Bazkideak, 30 inguru

Gaur egun, 30 bazkide inguruk osatzen dute elkarteak; Zaldibarko berri bat gehitu da. Eta Osorok gogorarazi du interesa duen edonor egin daitekeela ASEko bazkide. Haiek gutxiago ordaintzen dute zukua egiteko prozesua. Txanda hartzeko 644 93 46 03 telefono-zenbakira deitu behar da.



Dokumentalaren aurkezpenaren une bat, Gasteizen. JULIO ROCA

## Aurkeztu dute Sabin Salaberriri buruzko 'Ametsak' dokumentala

90 urteko musikari eta konpositore aramaioarraren ibilbidea jasotzen duen lana aurkeztu dute Gasteizen

### A.T.G. ARAMAIO

Urrezko Zeledonak elkarteak, Inspirartek eta Vital Fundazioak elkarlanean egin dute Sabin Salaberriri buruzko *Ametsak* ikus-entzuzkoa, eta Gasteizko Dendarabako Vital Fundazioaren Gelan egin dute aurkezpena. Salaberriri musikari eta konpositore aramaioarraren bizitzaren ibilbidea jaso dute, eta, protagonistaren ahotsaz gain, haren gertutakoek ere hitz egiten dute.

Aurkezpena Eduardo Valle gidatu du, eta hainbat pertsonak hartu dute parte: Urrezko Zeledonak-en lehendakari Josemari

Velez de Mendizabalek, Inspirarteko ordezkari Marijo Lojok, ikus-entzuzkoaren gidoilari Enrike Ruiz de Gordoak, dokumentalaren zuzendari Eloy Gonzalez Gavilanek eta Gasteizko Udaleko Kultura zinegotzi Sonia Diaz de Corcuera.

Guztiak nabarmendu dute Sabin Salaberriren "eskuzabaltasun, zintzotasun eta lanerako jarrera agortezina". Azken orduko ondorez baten ondorioz Salaberriri ezin izan zen aurkezpena joan, baina publikoak txalo zaparradak eskaini zizkion zenbait alditan.

## Osoko bilkuran, Barajuengo urbanizazio lanak

Barajuengo urbanizazioaren exekuzio-proiektua onartu du udalbatzak aurreko eguenean egindako osoko bilkuran. Asier Agirre alkateak adierazi du lan horiekin beharrezko azpiegiturak baserrietara sartuko liratekeela: telekomunikazioak, udal-argiteria berriak eta saneamenduak, eta, horrez gain, auzoko zorua berritu eta oinezkoendako geratuko dela.

Bestetik, Aramaiok ez zuen onartu Statkraftek Itsaraz Parke Eolikoaren plan berezia izapidetzea, eta horren aurkako errekurtsoa aurkeztu zuen Norvegiako enpresak; bada, udalak beste txosten juridiko batekin erantzun dio orain.

## Untzillako jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan

Kanpai-jotzearekin eta etxafuegoekin hasiko dira jaiak Untzillan, gaur, egubakoitza, 19:00etan. Gero, bertso afaria egingo dute elkarteak, Sustrai Colina, Onintza Enbeita eta Xabi Igoa bertsolariekin.

Bihar, auzoan hildakoen aldeko meza izango da eguerdian, eta ondoren puzgarriak egongo dira, trikitilarien doinuekin alaituta. Auzo bazkaria egingo dute elkarteak, eta arratsaldean mus txapelketa, *Naita kontu eta kanta* ikuskizuna, parrillada eta txokolate-jana izango dira. Elustondo anai-arreben dantzaldia ere izango da, baita bolo txapelketa ere. Domekan, meza eta bermut dantza izango dira.



Unai Osoro, Aramaioko Sagarzalien Elkarteak presidentea, sagar-zukua egiteko gunean, Mendixolan. GOIENA



# 'Atxabalta are harroago' baten aldeko lanketa

Udaleko Berdintasun Sailak LGTBI+ diagnostikoa egingo du, Sudergintza eta Eihera kooperatiba feministek gidatuta eta kolektiboko herriko bi taldeak bidelagun izanik. Urrian ekingo diote lantzeari eta urtebete iraungo du horrek

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Urrian hasiko duten LGTBI+ diagnostikoa lanketa Aretxabaleko II. Berdintasun Planaren baitan kokatuta dago, *Atxabalta are harroago* lelopean. "Udalak berdintasunaren aldeko apustu sendoa egin du, eta horren barruan LGTBI+ politikak sartzen dira. Orain arte landu barik zeudela ikusita erabaki dugu horri heltzea", adierazi du Ainhoa Sanchez zinegotziak astean egin duten aurkezpenean. Lanketaren helburua da kolektibo horren herriko "argazki ahalik eta zehatzena" osatzea eta aurrera begirako plangintza bat garatzea, Malena Gonzalez teknikariaren esanetan: "Kolektibo horren beharrak identifikatzea da helburua, ekintzak garatzen joateko".

**Taldeak eta norbanakoak**

Sudergintza eta Eihera kooperatiba feministek gidatuko dute diagnostia lantzeko egingo den bidea. Lehenengo zeregina izango da Aretxabaleko LGTBI+ komunitatearen errealitatea ezagutzeko.

Norbanakoei elkarrizketak egingo dizkiete eta eragileekin eta agente estrategikoekin bilduko dira: "Haien bitartez jakingo dugu nola erabiltzen duen komunitate horrek espazioa, nolako harremana duen aisialdiarekin, LGTBIfobiarik bada goen herri honetan eta zelakoa den, nola desatzen den eta horretarako nolako esparru potentzialak dauden...", azaldu du kooperatiben izenean Zuriñe Rodriguez kideak.

Udalarekin batera herrian eratuta dauden bi taldeek hartuko dute parte: Lohixak -Gazte Mugimendutik sortua- eta Atxabalta Harro. Urtebeteko prozesua izango da eta landutako guztia txosten batean jasoko dute: "Ez da izango herriko argazki bat bakarrik; neurri batzuk ere jarriko ditugu mahai gainean,



Udal ordezkariak eta Lohixak taldeko eta Sudergintza eta Eihera kooperatibetako kideak. M.A.

Udalaren esku geratuko direnak", dio Rodriguezek.

Taldeen gain, norbanakoei ere parte hartu ahal izango dute, eta, horretarako, helbide elektronikoko bat jarri dute eskura: [lgubi@aretxabaleta.eus](mailto:lgubi@aretxabaleta.eus). "Lan-

tan kolektiboek leku handia dute, baina espazio indibidualak ere izango dira; izan ere, esperientzia pertsonalak ezagutu gura ditugu, era guztiz anonimoan". Behin lana bukatuta herritarrei aurkeztuko diete hori.

## Zer deritzozu lanketari?



**MAIDER TRIVIÑO ETA MAIDER URRUTIA** LOHIXAK

"Gauza asko egin ditugu herrian, baina oraindik lan handia dago egiteko. Kolektiboko jende asko dago eta egoera zein den jakitun izatea garrantzitsua da, baina, bereziki, erabakiak hartzeko eta martxan jartzeko herri seguru eta erakargarria izan dezagun. Izan ere, parte-hartze handia espero dugu".



**BEÑAT ARIZABALETA** ATXABALTA HARRO

"Aretxabaleko egoera ezagutzeko eta aztertzeko ekimen garrantzitsua da; ondoren, plan batzuk martxan jarri ahal izateko eta horrekin egoera aldatzeko. Politika izan arren, halako prozesuak ez dira samurrak izaten, eta, sarritan, motelak, baina konfiantza dugu lanketan".

## Gazteen ongizate emozionala aztertuko dute herritarrekin

Diagnostikoaren bigarren fasea abiatuko dute Aretxabaletan eta Eskoriatzan, parte-hartze foroekin

**M.A.** ARETXABALETA

Ekainean ekin zioten gazteen ongizate emozionalaren gaineko diagnostikoaren lanketari Aretxabaletan eta Eskoriatzan, bi herrietako udalen eskutik. Egitasmoak argazki bat ateratzea du helburu, hainbat aldagai aztertuz: adikzioak, nerabeen aisialdia, harremanak eta elikadura ohiturak, besteak beste.

Prozesuaren abiapuntua izan zen DBHko ikasleekin ekainean egindako topaketa bat, eta han bizi-ohituren, kontsumoen eta bestelako jarreraren gainean hitz egiteko aukera izan zuten. Informazioa osatze aldera, urrian inkesta bat beteko dute bi herrietako 10 eta 18 urte arteko ikasleek.

**Parte-hartze foroak**

Lanketaren bigarren fasea jarriko dute abian orain, herritarren eta eragileen parte-hartzearekin. "Gazteengan eragin nahi badugu, komunitatearen argazkia izatea ezinbesteko da. Horregatik, herritarren eta herriko eragileen parte hartzea garrantzitsua da", diote Udaleko ordezkariak. Horretarako, parte-hartze foroak antolatu dituzte, udalerrietako "gizarte ordezkariak zabala" gonbidatuta: "Foro horiek balio dute drogen kontsumoarekin eta bestelako adikzioekin zein arrisku eta babes faktoreekin lotutako errealitatea ezagutzeko". Herritarren batek parte hartu gura izanez gero, honako helbidera idatzi behar du: [partehartze@](mailto:partehartze@)

[aretxabaleta.eus](mailto:aretxabaleta.eus) edo [prebentzioa@eskoriatza.eus](mailto:prebentzioa@eskoriatza.eus). Horretarako azken eguna urriaren 8a da.

**Galdetegia herritarren eskura**

Herritarrei bideratutako galdetegi bat zabalduko dute urriaren 9an, eta bi herrietako udalen webguneetan zintzilikatuko dute. Foroen zein galdetegiaren emaitzak urte bukaeran aurkeztuko dituzte. 2025ean prozesuaren azken fasea abiatuko dute; prebentzioan eta sentsibilizazioan garatu daitezkeen neurri zehatzagoak definituko dituzte orduan.

## Parte-hartze foroak

**Urriak 9**

**Hezkuntza formalak:** ikastetxeak, gurasoak, guraso elkarteak eta osasungintzako profesionalak. Aretxabaleta, Arkupe kultur etxea (18:00).

**Urriak 16**

**Hezkuntza ez-formalak:** udal teknikariak eta zinegotziak. Eskoriatza, kultur etxea (18:00).

**Urriak 23**

**Elkarteak, dendariak eta ostalariak.** Aretxabaleta, Arkupe kultur etxea (18:00).

## Amatasuna landuko dute feminismoaren ikuspegitik egunean

¿Desmadradas? Amatasuna feminismotik hitzaldia antolatu du Jabetze Eskolak urriaren 10erako, 18:00etan, Arkupen.

Feminismoak egiten duen amatasunaren birdefinizioaren gainean jardungo dute: "Emakume eta ama gisa kokatzeko beste modu bat, jarrera errealistago eta osasuntsuago batean, benetako beharrei erantzunez".

**Mobiliario ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



## ARETXABALETAKO SANMIGELAK 2024



Artisauak saltzen Durana kalean. ARGAZKIAK: OIHAN LOITI ETA IMANOL SORIANO



Kantu afarian abesten.

# Sanmigelek aseta utzi dituzte herritarrek

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Iraileko azken asteburuan iritsi eta joan ziren San Migel jaiak, aho-zapore gozoa utzita. Eguraldia nahiko ondo portatu zen, nahiz eta kantu afaria pilotalekuan egin behar izan zuten eta asko leku barik geratu, "pena handiarekin".

Azokako postuek eta haren bueltako ekitaldiek –trikitilariak, joaldunak, txalapartariak, ber-

tsolariak...– jendea elkartu zuten zapatuan Durana eta Mitarte kaleetan, eta talo-txosnan agortu egin zitzaizkien bai arto-irina –50 kilotik gora–, bai txistorra. Loramendi-Beinke dantzaren 30. urteurrenean bete-bete egin zen plaza eta, abesbatzaren laguntzarekin, askoren oroitzapenean geratu den saioa egin zuten. Elkartasun bazkarian ere jendetza batu zen.

Domekari doke txapelketarekin ekin zioten herriko sei taldek eta iluntzean ikusmina sortu zuten *Katiuska* zarzuelak; parroikia goraino bete zen Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldirako.

Udaleko Kultura Saileko ordezkariak "gustura" daude jaiak emandakoarekin, eta nabarmendu dituzte eragileek egingdako lana eta herritarren parte-hartze handia.



Beinke-Loramendi dantzatzen.

Aretxabaleta Abesbatzako kideak *Katiuska* zarzuelan abesten.

## Argazkilarien lanak ezagutzera emateko topaketa bihar

*Argazkia.eus* izenarekin Euskal Herri I. argazki jaialdia deitu zuen uztailean Aretxabaletako Udalak –Jardin Remoto ekimenak eta MUK lagunduta–, eta bihar, urriaren 5ean, lurralde bakoitzeko argazkilari banak euren lanak aurkeztuko ditu Arkupen eta saria jaso. Egun guztiko topaketa izango da eta sarrerak aurrez hartu daitezke 5 euroren

truke *Aretxabaleta.eus* eta *Argazkia.eus* atarietan, baita egunean bertan ere Arkupen.

Aretxabaletako Jorge Almeida, Jaione Garcia gipuzkoarra, Arabako Endika Diaz, Saioa Miguel bizkaitarra, Nafarroako Kike Balenzategi, Guillaume Fauveau lapurtarra, Nafarroa Behereko Nahia Garat eta Zuberoako Polo Garat sarituko dituzte biharko ekitaldian. Bakoitzak ordu erdiko tartea izango du lana aurkezteko eta erakusketa kolektiboa ere inauguratuko dute.

## 'Leihoak' antzezlanak irekiko du Arkupeko urriko programazioa

Antzezlanek aparteko tokia izango dute urriaren Arkupen. Teatro Paraiso taldearen *Leihoak* familiendako ikuskizunak irekiko du hori; domekan izango da, 17:00etan –sarrera, 3 euro–. Jolasaren bidez, bizitzako lehen-dabiziko urteetako irudien erakuntza eta deseraikuntza gogora ekartzeko bidaia proposatuko diete ikusleei.

Urriaren 13an, ostera, Patxo Telleriak idatzitako *Ai, gure juaneteak!* ikuskizuna izango da Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan. Hitzek eta musikak osatuta, Mikel Laboaren zenbait kanten berrinterpretazioa da: *Izarren hautsa*, *Negu hurbila*, *Haika mutil*, *Ihes betea...*

Urriaren 20an, ostera, Bilboko Pabellon 6ko Gazte Konpainiak adiskidetasuna eta harreman pertsonalak gai dituen *Egun zoragarriak* taularatuko du, 19:00etan, Arkupen.

## Euskal Herriko bola-joko txapelketari hasiera Aretxabaletan

Euskal Herriko 34. Hiru Txirlo Bola-joko txapelketari hasiera emango diote zapatuan eta lehenengo saioa Aretxabaletan izango da; 17:00etan elkartuko dira bolatokian. Ondoren, beste bi Aramaion jokatuko dituzte: urriaren 19an, Etxaguen auzoan, eta azaroaren 16an, Untzillan. Finala, ostera, azaroaren 23an izango da, Markinan.

## Ihes-gela umeentzat eta DJ ikastaroa gaztetxoentzat

Haur liburutegiak ihes-gela antolatu du 9 eta 11 urte artekoentzat urriaren 19rako; 4-5 lagunekoko taldeak osatuko dituzte. Izena aldeztatik eman behar da: [haurliburutegia@aretxabaleta.eus](mailto:haurliburutegia@aretxabaleta.eus) edo 943 08 10 01. 12 urtetik gorakoek, ostera, DJ ikastaroa izango dute dan-tz akademyren eskutik. Izena emateko bidea: [info@dantz.eu](mailto:info@dantz.eu).

RPS: 83/19

**Durana**  
Hertz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO  
ESPEZIALISTAK 3D  
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55





Eskoriatzaren ikuspegi orokorra, Atxorrotx menditik. IMANOL BELOKI

## Gazteen etxebizitza beharrak ezagutu nahian

Eskoriatzako gazteen etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko inkesta jarri berri du jendaurrean Eskoriatzako Udalak. Webgunean dago formularioa eta domekara arte dago epea betetzeko. Erantzunak modu anonimoan jasotzen direla azpimarratu dute

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Euskal Herriko herri guztietan bezala, Eskoriatzan ere bada etxe bila dabilen gazte bat, elkarrekin alokairuan bizi diren bi gazte, etxebizitza komunitarioan bizi den bat eta etxea erosi berri duena. Horien artean bada kezka eta erronka handienetako bat emantzipazioa. Etxebizitzaren prezio altuek eta soldata baxu edo mugatuek asko zailtzen dute gazteak gurasoen etxetik irtetea eta bizi-proiektu berri bati hasiera ematea. Hori dela eta, Eskoriatzako Udalak datu bilketa egin nahi du herriko gazteen egoera zein den jakiteko.

### Gazteen iritzia jaso nahian

Eskoriatzako Udalak herriko gazteek etxebizitza eskuratzeko eta emantzipatzeko dituzten oztopoak ezagutzeko inkesta bat kaleratu berri du, udal webgunean jarri dutena *–eskoriatza.eus–*. Zehazki, 16 eta 34 urte arteko gazteen iritzia eta asmoak jaso nahi dituzte; datuak mahai

gainean izanda, aurrera begira urratsak egiteko.

Gazteen iritzia eta asmoak jaso nahi dira, alde batetik. Horretarako, formulario bat dago betetzeko udal webgunean. Bestetik, lantalde bat osatu nahi dute hurrengo pausoak finkatzeko, eta, horretarako, beste esteka bat jarri dute udal webgunean, eta galdera hau proposatu: *Gazteen eta etxebizitzaren arazoari aurre egiteko lantalde bat osatuko balitz, parte hartuko zenuke?*

Datu horiek ez dira inkestarerkin alderatuko, modu independentean jasoko dira, eta, esteka horretako formularioa beteta, datu horiek soilik lantaldearen deialdia egiteko era-

**GAZTEEN ETXEBIZITZA BEHARRAK JASOTZEKO INKESTA BETETZEKO AZKEN EGUNA DOMEKA DA**

biliko direla adierazi du Eskoriatzako Udalak.

### Lantaldean parte hartzea

Galdetegia abiapuntua izango da etorkizunean etxebizitza-plan bat martxan jartzeko. Horrela, gazteek herrian emantzipatu daitezela errazteko, gazteen errealitatea eta beharrak aztertzea izango da lehen urratsa. Ondoren, interesa duten gazteekin etxebizitzaren arazoari aurre egiteko lantalde bat osatzea aurreikusten dute. Lantalde horrek jorratuko ditu herrian bizi ahal izateko baldintzak hobetzeko ideia eta estrategia berriak.

### Modu anonimoan

Eskoriatzako Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Sailak bideratutako galdetegia udal webgunean egongo da urriaren 6ra arte, interesa duten gazteek bete dezaten, eta ez da informazio pertsonalik batuko; hau da, inkesta anonimoa da eta erantzunak modu anonimoan jasoko dira.

## Euskara ikastaroa egingo dute adinekoen zaintzaileendako

Martitzenetan eta eguenetan izango dira saioak, 14:30etik 16:30era bitartean, Euskal Txokoan

### I.B. ESKORIATZA

Pertsonen zaintzari dagokionez, garrantzitsua da norbere hizkuntzan tratatua eta zaindua izatea, eta adineko pertsonen kasuan ere hala da. Askotan, baina, zainketa lanetan aritzen direnek euskararik ez jakitea ohikoa da. Hori kontuan izanda, Leintz Udal Euskaltegiak urritik urtarrilera bitarteko ikastaro berezia antolatu du, adinekoak zaintzen ari diren eta euskara ulertzen ez dutenentzat. Izena emateko epea zabalik dago, Leintz Udal Euskaltegian.

Helburua oinarriko ulermena lantzea eta esaldi erabilienak ikastea da, zaindutako pertsonen gertuagoko harremana lortzeko. Ikastaro egunak, berriz, martitzenak eta eguenak izango dira (14:30-16:30), eta ikastaroaren iraupena urriaren 8tik urtarrilaren 30era –guztira, 60 ordu–. Euskal Txokoan emango dira saioak, eta prezioa 75 eurokoa izango da. Hala ere, ikasturte bukaeran asistentzia %75ekoa izan bada, matrikula kostuaren %60ra arteko dirulaguntza jasotzeko aukera egongo da.

## GORA ETA BEHERA



## Zuhaitzen sustraiek lurra altxatuta, arriskutsu dago



Eskoriatzako gaztelekuko sarreran zuhaitzen sustrai handiek lurra altxatzea eragin dute, eta, beraz, eremu horretan estropezu egiteko arriskua dagoela dio irakurle batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).

## 'Dario' liburuaren aurkezpena izango da hilaren 10ean

Jaione Fernandez de Jauregi eskoriatzarrak, literatura erotikoa idatzitako lanaren ostean *–Historias de media X*, lehenengo eleberria aurkeztuko du herriarren aurrean. *Dario* da liburuaren izenburua eta 80ko hamarkadan Madrilen dago girotuta. Aurkezpena Zaldibar antzokian egingo du idazleak, 19:00etan, gazteleraz.

## Final zortzirenetako azken saioan arituko da Haizea Arana

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken final zortzirena jokatu da zapatuan, 17:00etan, Azpeitian. Hain zuzen, sei bertsolari ariko dira kantuan, eta tartean da Haizea Arana eskoriatzarra. Saioko irabazlea zuzenean sailkatuko da final laurdenetarako, eta, saioa amaitutakoan ezagutuko da puntuazioz sailkatutakoen zerrenda.



# Aniztasunaren alde, hiru eguneko programazioa

Gaurtik domekara arte orotariko ekintzak izango dira GayLur Euskadi elkarteak antolatutako Lur Anitz Fest jaialdiaren barruan. "Ilusio handiz ari gara jaia antolatzen, eta, eguraldi ona aurreikusten denez, jendea etorriko delakoan gaude"

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA**  
"GayLurren urduri gaude, eta urduri egoteko arrazoiak ditugu", diote elkarteko kideek, asteburu honetarako hiru eguneko programazioa antolatu baitute Eskoriatzan. Lur Anitz Fest jaialdia egingo dute, gaur hasita, eta orain arteko "GayLurren ekintzarik garrantzitsuena izango da. Eskoriatzarekin dugun konpromisoa oso handia da, eta erantzukizun handia dugu; izan ere, Eskoriatzan aniztasunaren alde antolatzen dugun lehen ekintza izango da, hasiera bat ekarriko duena", azaldu du Jonathan Galanek, GayLur Eskoriatzako presidentek.



Jaialdiko pankarta udaletxean. I.B.

## Errotzeko helburuarekin

Ilusioz ari dira azken antolaketan lanetan, eta euren gertukoek konfirmatu diete zapatuko jaira batuko direla. "Errioxatik, Kantabriatik eta Euskal Herriko zenbait herritatik etorriko da jendea, baita Madrilgo lagun

batzuk ere... Beraz, eguraldi ona egiten badigu, arrakastatsua izango dela uste dugu", adierazi du Galanek. Horrekin batera, azpimarratu du GayLurren ilusio handiena urtero egitea dela Lur Anitz Fest jaialdia. "Urtero

egin nahi dugu jaia, beti, urrian, eta horrela, indarra hartuz, Debagoienean erreferentzia bat izateko asmoz".

## Ekintza pila bat

Azpimarratzeko hitzorduen artean, Jonathan Galan eskoriatzarrak gaurko mahai-ingurua nabarmendu nahi izan du. *La soledad en el colectivo LGTBI+* izenpean, 19:30ean, Ibarraundi museoa izango dena. "Ekarpen handia egin dezakeela uste dut; izan ere, nahi ez den bakardedari buruzko gai oso interesgarriak jorratuko dira, baita kolektiboari zehazki nola eragiten dion ere".

Bihar, zapatua, berriz, GayLur Euskadi Elkartearen aurkezpena izango da, 11:00etan, Zaldibar antzokian; 100 lagun inguru batuko dituen paella erraldoia egingo dute bazkaltzeko, Fernando Eskoriatza plazan; 21:30ean Las Fellini taldearen ikuskizuna izango da...

## Erreka garbiketa egiteko izen-ematea zabalduko dute


Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean egitasmoak deituta, urriaren 19an egingo da erreka garbiketa, eta eskoriatzarrek ondo antolatzeko izena eman beharko dute. Domeka honetan, urriaren 6an, irekiko dute izen-ematea, eta urriaren 13ra arte izango dute aukera egitasmoan parte hartu nahi dutenek izena emateko; horretarako, [errekagarbitzeko@gmail.com](mailto:errekagarbitzeko@gmail.com) helbidera idatzi beharko da. Ekimenak bailara ikuspegia izateaz gain, Deba erreka eta hura elikatzen duten erreka txikiagoen ezagutza eta naturarekiko harremanaren sendotzea ditu xede nagusi; izan ere, ezagutzen dena soilik zaintzen da.



ALDAYPE

## Alex Oyarzabal, Gipuzkoakora

Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, irailaren 8an Zanbranan eperretan jokotutako ehiza txikiko txapelketan garaile izan zen Alex Oyarzabal eskoriatzarra, senior kategorian. Horren ostean, joan den asteburuan, zonako txapelketan ere garaipena eskuratuta, Gipuzkoako txapelketarako sailkatu da.



Leintz Gatzagako turismoa sustatzeko webgune berria. 'GATZAGA.EUS'

## Gatzagako turismoa webgune berria du: 'Gatzaga.eus'

Abao Komunikazio Agentziak egin du turismoa sustatzeko ataria, lau atal nagusitan banatuta

### Imanol Beloki Unamuno

LEINTZ GATZAGA

*Garena garelako, Gatzaga* lelopean, *Gatzaga.eus* webgune berria bistaratu du aste honetan Leintz Gatzagako Udalak. Ataria turismo-esperientzia berri batera bideratuta dago, orotariko elementuekin eta ikus-entzunezkoen laguntzarekin, bisitariak erakartzeko asmoz. Itxuraldaketa horrekin, informazio bateratua eman nahi diote webgunea kontsultatzen duten bisitariari, behar duten informazio guztia bertan bateratuta izan dezaten.

Turismoa sustatzeko webgunea lau atalez osatuta dago: Gatz Museoa, herria, ingurumena eta proposamenak; eta, informazio osatuaz batera, ikus-entzunezko irudi ikusgarriekin lagunduta dago, baita argazki ederrekin ere.

### Eguneraketak egiten

Abao Komunikazio Agentziak egin du webgunea, eta, guztiz amaitzeko azken ukituak falta diren arren, asteon bistaratu dute turismo webgunea, eta eguneraketak ere izango dira egunotan.

## Ondarearen Europako Jardunaldietan bisita berezia

Doako bisita komentatua izango da bihar, zapatua, 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz

### I.B. LEINTZ GATZAGA

Ondarearen Europako Jardunaldien IX. edizioa Gipuzkoako 31 udalerritan ari da egiten eguaztena ezker, eta Gatzagan bihar egingo du geldialdia.

Monumentuetako eta kultura-intereseko lekuetako atek irekitzen zaizkie herritarrei, eta doako bisitak eta jarduera bereziak egiteko aukera ematen dute. Hori horrela, kultura-ondarea aberasteko bide horretan, Gatzagako Gatz Museoa ere atek irekiko dizkie jardunaldi horien barruan bisita berezia

egin nahi dutenei. Izan ere, bisita komentatua antolatu dute biharko, zapatua, urriaren 5a, *Itsasotik basora-basotik itsasora gatzaren ibilbide komertziala* izenpean. Mendi azpiko ur gazia basoko egurrarekin berotuta lortzen dute gatz Gatzagako Gatz Museoa, eta jakinekoea da XVI. mendean *San Juan* baleontzian eramaten zutela, itsaso guztiak zeharkatuz. Ternuaraino, euskal arrantzaleek egindako bide komertzialean, basoak itsasoari lapurtutako gatz itzuliko nahi balio bezala.



# Mediku falta "urgentziaz" betetzea eskatu du Udalak

Osakidetzaren "gainbeheraz" kezkatuta, EH Bilduk mozioa aurkeztu du asteon, besteak beste, herriko anbulatorioan bederatzi medikutatik lau bakarrik daudela salatzen. EAJK kontra bozkatu zuen, Eusko Legebiltzarrean onartu berri den akordioan arretera jarrita

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Osakidetzaren egoeraz kezkatuta EH Bilduk aurkeztutako mozioa izan zen eztabaidagaia asteleheneko osoko bilkuran. Mozioak aurrera egin zuen, EH Bilduren aldeko botoekin (10) –Gorka Artola alkatea ez zen egon, aitatasun baimenagatik, baina Ainhoa Lete alkateordearengan delegatu zuen botoa–, EAJren kontrakoekin (6) eta PSE-EEren abstentzioarekin (1).

## Bederatzi medikutatik, lau

EH Bilduren arabera, Bergaran eta Debagoienean egoera "gero eta kaskarragoa" da, "jasanezina ez esatearren". Bergarako anbulatorioan, adibidez, bederatzi medikutatik lau bakarrik daudela salatu zuen EH Bilduk, eta, horren ondorioz, Internet bidezko txandak ezin direla hartu eta medikuarekin txanda hartzeko 08:00etatik 08:15era deitzera derrigortzen dutela. Eta badaude beste gabezia batzuk, EH Bilduko bozeramaile Maite Usabiagaren arabera: "Esku artean ditugun bailarako eta Bergarako datuak benetan dira larriak. Mozio honen helburua zen egoera larri hori mahai gainean jartzea; badakigu Eusko Legebiltzarrean neurriak hartzen ari direla, emaitzak goiz jota epe ertainera emango dituzten egiturazko neurriak; izan ere, egoerak aldaketa sakonak eskatzen ditu eta horrek bere denbora beharko du. Baina bailarako eta Bergarako egoera urgentziazkoa da, urgentziazko neurriak behar dituena. Bergaran, bederatzi mediku beharrean lau bakarrik daude; bailaran osasun mentaleko zerbitzua ere oso jaitsita dago eta badakigu gure bailarako anbulantzetan ere profesionalak falta direla".

## EAJ, Legebiltzarrera begira

EAJK mozioaren kontra bozkatu zuen, eta jeltzaleen eledun



Bergarako anbulatorioko zenbait langile, 2024ko ekaineko protesta baten. J.B.L.

## ONGIZATE ZERBITZUEK ITXARON ZERRENDA "OSO LUZEA" DUTELA DIO EAJ-K: "ARAZOA OROKORRA DA"

Mikel Letek irailaren 26an Eusko Legebiltzarrean EAJren, EH Bilduren eta PSE-EEren artean sinatu zen akordioan jarri zuen arretera: "Osakidetzaren sistema ona da, baina, beste osasun sistema batzuek bezala, baditu arazoak. Arazo nagusia da profesional faltarena, Estatu eta Europa mailako arazoa ere badena. EH Bilduren mozioa harriduraz hartu dugu, egoera ez delako hain txarra eta, bereziki, lehendakariaren eskutik mahai bateratu delako etorkizuneko Osakidetzaren adosteko eta arazoei irtenbidea emateko. Bestalde, profesionalen falta Udalera ekartzeko badugu, agerikoa da ongizate zerbitzuan txanda eskatzeko dagoen itzarote-zerrenda oso luzea dela, ia 48 egunekoa. Udalak hor bai eragin dezake zuzenean egoera hobetu dadin, baina kontziente gara arazoak

daudela profesionalak topatzeko. Ongizate zerbitzuetako itxaron zerrenda murriztea bai dela Udalaren eskumena, EH Bilduk bere mozioan egiten dituen eskaerak ez bezala".

## PSE-EEren abstentzioa

PSE-EEko Alberto Alonso abstenitu egin zen: "Azken egunotan lehendakariak esandakoek agerian uzten dute Osakidetzari bultzada eman nahi zaiola. Eta bultzada eman nahi bazaio da, neurri batean, geldi dagoelako. Horregatik abstenitu gara; zintzoak izan behar gara Osakidetzaren badagoela zer hobetu aitortzerakoan eta, bestetik, sinisten dugulako Legebiltzarrean mar txan jarri berri den mahaian".

Mozioko eskaeren artean, Osasun Sailari eskatzen zaio pertsonal politika eraldatu dezala profesionalak bermatzeko: "Has dadila pertsonal politika eraldatzen eta Osakidetzako mahai sektorialean adosten epe motz, ertain eta luzera begirako neurriak osasun langileen ordezkariekin. Eta urgentziaz ordezka ditzala Bergarako osasun zentroko bederatzi medikutatik falta diren bostak".



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

## Elikaenea

Korrika eta presaka bizi garen honetan, denbora altxor bat den honetan. Mundua aldrebestuta, natura egoera larrian, justizia soziala arriskuan, interes indibidualak kolektiboen gainetik daudenen honetan... herriko zoro zoragarri batzuk, ilusio, inplikazio, ausardia eta lanarekin beraien eta askoren ametsak egia bihurtu nahirik lokatzen sartu ziren orain urte batzuk. Eta honen ondorioa da Elikaenea, eta horren inguruan loratzen ari den dena. Luxu bat da, gure partez ekoizle konprometitu, kooperatibo, ekologiko, gertukoak... batu, elkarrekin lanean jarri eta guztia gure esku jarri dute; orain, gainera, nahi izanez gero, prestatua! Zer gehiago eska dezakegu?

Gertukoa, jasangarria, geurea, ekologikoa, kooperatiboa, justua... eta dena batera eta eskura. Orain, guri dagokigu erantzutea. Uste baino eraginkorragoak gara eredu eraldatzeko, kontzientziaz kontsumitu dezagun! Kontsumo arduratsua egin dezagun! Elikaenean egin dezagun! Errazago ezin izan digute jarri.

Eskerrik asko eta on egin dagizuela guztioi!

## Bergarako egoera sozioekonomikoaren gaineko aurkezpena

Udal Gobernuak "azterketa sakona" egin du azken hilabeteetan Bergarako egoera sozioekonomikoa aztertzeko. Emaitzak jasota, azterketa publikoki aurkeztuko dute urriaren 9an udaltekuko osoko bilkura aretoan (18:30). 2019an egindako ikerketa eguneratzea du helburu, gaur egungo egoera sozioekonomikoa ezagututa etorkizunera begira

aztertu beharreko alderdiak eta erronkak identifikatzeko.

Ikerketa Iker Research & Consultancy enpresak egin du, 20.200 euroko aurrekontuarekin. Besteak beste, gizartearen egoera eta bilakaera, etxebizitzaren datuak, garraioari eta irisgarritasunari buruzko datuak, ekonomiaren egoera, azpiegiturak eta ekipamenduak izan dira landutako puntuak: "Diagnostic soilaz harago, etorkizunean Udaleko jardunerako lehentasunak marrazten lagunduko du".

## OHARRAK

### Erreka garbiketan izena emateko aukera

Urriaren 19an garbituko dute Deba ibaia eta erreka auzolanean, eta bergararrek izena eman ahaliko dute urriaren 13ra arte: [errekagarbitzeko@gmail.com](mailto:errekagarbitzeko@gmail.com). Bergararrak Seminarioan, Labegarrietan, Elorregin edo Osintxun arituko dira, 09:30etik 13:30era. Amaieran, jan-edana egongo da partaideentzat.

### Jardun: gaztetxoentzako bertso eskola

Urriaren 8an hasiko dute ikasturtea. Izena emateko azken eguna gaur izango da: [debagoienakobertsoeskolak@gmail.com](mailto:debagoienakobertsoeskolak@gmail.com).

### Tailla eskolaren ikasturte berriaren hasiera

Urriaren 1ean hasi zuten ikasturtea, baina aukera dago izena emateko; interesatuek Zabalotegiko (11, behe) tailla eskolatik pasatu beharko dute lanegunetan, 18:00etatik 20:00etara.

### ZinemaOn zinekluba: urriko kartelera

Urriaren 9an, Michael Francoren *Memory* filma; urriaren 16an, Oskar Alegriaren *Zinzindurrunkarratz* –zuzendaria bertan egongo da–; hilaren 23an, Dolores Fonziaren *Blondi*; eta urriaren 30ean, Thea Hvistendahl-en *Handteringen Av Udode*. Film guztiak ikusi ahaliko dira Seminarixuan, 20:00etan. Sarrera: hiru euro.





Martitzenean Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatzeko San Martin plazan egindako agerraldia. IMANOL BELOKI

## Betea izango da urria erretiratuendako

Zahartze berriari buruzko hitzaldia eta eguneko zentzura bisita egingo dituzte datorren astean, Adinekoen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako barruan. Hilaren 10ean, berriz, San Joxepe erretiratuen elkartearen Kulturaldia hasiko da

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Adinekoen Nazioarteko Eguna eman dio hasiera urriari, eta hori ospatzeko Bergarako Udalak eta herriko nagusien elkarrekin eta eragileek prestatu duten egitarauaren barruan oraindik badaude hitzorduak. Esaterako, hilaren 8an, zahartze berriaren erronken gainean hitz egingo du Javier Yanguas Lezaun gerontologoa, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Urriaren 9an, berriz, atek irekiko dituzte Arin eguneko zentroan, nolakoa den eta lana nola egiten duten bertatik bertara ikusteko. Eguaztenean izango da hori, 17:30etik 19:30era.

### Aldarrikapenak ere bai

Egunaren aurretik egindako ekitaldiekin batera, antzerkia, hitzaldia, zinema, irteerak, bisitak eta aldarrikapena uztartu dituzte Adinekoen Nazioarteko Egunean. Hain zuzen ere, euren aldarrikapenak zeintzuk diren gogora ekarri zuten adinekoek

San Martin plazan, Bergarako Adinekoen Kontseiluak, San Joxepe Elkarteak, Duintasunak eta Bergarako Udalak antolatu zuten ekitaldian; bertan adierazi zuten eskubideak ez direla adinarekin iraungitzen. "Adineko pertsona guztiok eskubidea dugu bizi-baldintza duinak, pentsio publiko justuak, zerbitzu publiko unibertsalak eta exebizitza irisgarria eta osasungarria izateko. Erabaki nahi dugu nola bizi nahi dugun, nola izan nahi dugun zainduak guk geure burua zaindu ezin dugunean, baita nola hil nahi dugun ere", irakurri zuten plazako ekitaldirako prestatuta zuten manifestutik, eta hori horrela izateko eskaerak egin.

**ADINEKOEN NAZIOARTEKO EGUNAREKIN HASI ETA GAU BELTZAREKIN BUKATU**

### Umeekin eta gazteekin batera

Edozelan ere, zahartze berriaren gaineko hitzaldiaz eta eguneko zentzura joateko bisitaz gainera, ekitaldi gehiago izango dira urrian zehar erretiratuendako antolatuta. Izan ere, ekintzaz betetako Kulturaldia prestatu du San Joxepe elkarteak.

Hamabostaldia izango da aurtentzen Kulturaldia, eta, urriaren 10ean hasita, makina bat ekintza egingo dute. Esate baterako, egingo dituzte Martzillara irteera, bazkaria elkarteak bertan, bingo musikatua eta dantza topaketa, baina baita bestelakoak ere: besteak beste, Laboratorium museora joango dira; herriko hiru ikastetxeetako ikasleen bisita jasoko dute, "belaunaldien arteko harremanak sustatzeko"; eta Bergarako gazte ikerlarien hitzaldia joateko plana ere egingo dute. Horrekin guztiarekin batera, hilaren amaieran Gau Beltza Jardunekoekin ospatzeko asmoa ere badutela aurreratu dute.

## Hilaren 21ean bilduko dira Udal Gobernua eta Langileen Batzarra

Negoiazio mahaia eratuta "aukera zabaldu" dela uste dute langileek, baina mobilizazioekin jarraituko dute

### O.E.G. BERGARA

Udaleko Langileen Batzarrak jakinarazi du negoziazio mahaia adostu dutela Udal Gobernuarekin: "Bi aldeek negoziazio markoan elkarriketa zintzo eta eraginkorra bermatzeko elementuak zehaztu eta adosteko egindako proposamena onartu dugu".

Batzarrak dio "mobilizazioei esker" lortu dutela "jarrera aldatuta egotea Udal Gobernuan" eta "irailaren 26an eratu zen negoziazio mahaia" eratzea -21ean elkartuko dira-. *Konponbidea 5 puntu* negoziazio mahai-

rako edukiak aurkeztu eta onartu direla berretsi du, eta argitu euren aldarrikapenak "oraindik lortu ez" dituztela badakitela, baina "aukera bat" zabaldu dela baloratzen dutela. Gaineratu dute urrian mobilizazioekin jarraituko dutela.

Bost eskaera dira langileen batzarrak egiten dituenak: negoziazio mahai gardena, Udaleko lanpostuen balorazio orokorra; lantaldea gaztetzeko plangintza, lan hitzarmena negoziatzea eta kontratazio politikak aldatzea, hain zuzen ere.



JOKIN BEREZIARTUA

## Negozio-idea onenaren saridun

Miguel Altuna Lanbide Heziketan negozio berriak garatzen ibili dira goiz oso batez ikasleak EKNola jardunaldiaren barruan. Zerbiteko negozio-idea izan zen irabazlea, *cowork* espazio bat sortzera etorriko litzatekeena, makinak, software eta teknologia espezializatuak eskuragarri jarrita, enpresa txikien eta handien arteko elkarlana sustatzeko.

**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**21**  
**K**  
KALITATEA

Enpresa Registrada N°90/025



# "Ekintza txikienak erabakigarriak dira"

**ALAIN AYASTUY** BERGARAKO GAZTE MAILAKO TALDEKO KAPITAINA  
Gazte Nazional Ligan dago Bergarako Gazte Mailako taldea. Domekan, 12:00etan, Betoño CDren aurka jokatuko dute ligako bosgarren partidua, Agorrosinen

**Gontzal Belategi Zubia** BERGARA  
Iñaki Mardaras entrenatzailearen gidaritzapean, maila oso ona erakusten ari da gazte mailako futbol taldea. Gazte Nazional Ligan jokatu dute egun, eta, maila handiko liga izan arren, iaz mailaz igotzetik bost puntura gelditu ziren. Alain Ayastuy (Bergara, 2006) taldeko kapitainak hasi berri den denboraldia izan du hizketagai.

## Nola hasi duzue denboraldia?

Denboraldia nahiko ondo hasi dugu, baina emaitzek ez dute jokoaren maila erakusten. Adibidez, aurrekoan azken minutuetan sartu ziguten penalti bat, nahiz eta aurrez partidu ona egin genuen. Jokoz ondo gabiltza, baina aurrean golak sartzea falta zaigu. Athletic B-ren aurka garaipena eskuratu genuen, eta gainontzeko lau partiduetan maila oso ona erakutsi dugu. Kategoria zaila da. Edozeinen aurka irabazi dezakezu, eta, modu berean, edozeinen kontra galdu. Ekintza txikienak erabakigarriak dira.

## Nolakoa da halako maila bateko denboraldiaurrea?

Hilabete lehenago hasi ginen entrenamenduak prestatzen. Asteazken zehar lau entrenamendu eta bi lagunarteko partidu jokatu genituen. Egur dezente sartzen digute denboraldira maila onean iristeko.

## Nolakoa da liga?

Athleticen eta Realaren filialak daude, bigarren taldeak, eta haiek oso prestatuta egon ohi dira. Asteazken zehar guk baino gehiago entrenatzeko aukera izaten dute. Hala ere, ondo lehiatzeko gai baldin bazara, partidua ondo preparamen baldin baduzu, edozein talderen aurka lehiatu zaitezke.

## Zeintzuk dira denboraldi honetarako helburuak?

Esango nuke helburua maila mantentzea dela, baina poliki-poliki ari gara dena baloratzen.



Alain Ayastuy, Bergaran partidu batean. ALAIN AYASTUY

## "HELBURUA MAILA MANTENTZEA DA, BAINA POLIKI-POLIKI ARI GARA DENA BALORATZEN"

Esango nuke helburuak behin martxa hartuta erabaki behar direla. Lehenengo, lehiatzen hasi eta martxo inguruan non zauden ikusi, zer egin dezakezun baloratu eta horren baitan helburuak zehaztu. Gu partiduz partidu joaten gara, denetan ahal dugun eta ondoen eginaz. Aurreko urtean berdin egin genuen. Gaizki hasi ginen, baina denboraldi erdian martxa harrapatu genuen, eta, azkenean, mailaz igotzetik gertu egon ginen. Erregularra bazara, helburuak handiak izan daitezke. Aurten ere badut horretarako esperantza.

## Bigarren urtea duzue aurten; esperientziak laguntzen du?

Azkenean, beste taldeek egin dezaketena ezagutzen zoaz, zein den haien jokatzeko modua. Hori aprobetxatu egin dezakezu. Taldekideak laguntzen hasten zara, jokoa gehiago ulertzen duzulako.

Esperientziak, azkenean, badu bere pisua. Denboraldi bat gehiago goazenak dagoeneko ondo ulertzen dugu kategoria, kanpoko zelaiak zelakoak diren eta hori guztia.

## Zaila da ia astebururo horrenbeste kilometro egin behar izatea partidu bat jokatu ahal izateko?

Bai; azkenean, nabaritu egiten da. Autobusa hartu behar izaten dugu kanpoko partiduetara joan ahal izateko, eta, konturatu orduko, bidea luze egiten da. Arratsalde osoa kentzen digun zerbait da, eta bost ordu inguru egon behar dugu kontzentratuta, autobusera igotzen garenetik partidu amaizten den arte. Horrek guztiak kontzentrazio maila oso handia eskatzen duen kategoria bilakatzen du hau.

## Nolakoa da Iñaki Mardaras entrenatzaile gisa?

Oso intentsoa da. Asteazken zehar asko eskatzen digu, gero asteburuan prest egon gaitezen. Asteazken zehar eskatzen digunak ez du loturarik partiduetako emaitzekin; hau da, galtzen badugu, asteazken zehar asko egingo dugu, baina baliteke irabaziz gero oraindik eta gehiago egitea. Oso entrenatzaile ona da.



Hainbat haur xakea jokatzen. YON SUINAGA

## Xake ikastaroak antolatu dituzte 23 urtetik beherakoentako

Bergara Xake Eskolak ikastaroak emango ditu urritik aurrera, xakea gazteei gerturatu ahal izateko

### G.B.Z. BERGARA

Urritik aurrera xake ikastaroak emango ditu Bergara Xake Eskolak, gazteei xakea gerturatu ahal izateko eta modu horretan jokalaria belaunaldi berri bat sortzeko. Ikasteko zein hobetzen joateko gogoz dauden gazteena heldu nahi dute eskolekin. Bi talde ezberdin aterako dituzte: lehenak astearte arratsaldeetan elkartuko dira eta bigarrenak, ostiral arratsaldeetan.

Eskola guztiak Zabalotegi Dorrearen etxepean dagoen Bergara Xake Klubaren lokalean izango dira. Monitore titulatuak emango dituzte eskolok, eta hiruhileko prezioa 15 eurokoa da. Bergara Xake Klubeko kide Yon Suinagak adierazi duenez, ez da izena emateko epemugarik egongo, baina interesatuei ahalik eta azkarren apuntatzea gomendatzen die, gai garrantzitsuak jorratu ostean ez sartzeko.

### Xakea eta gazteak

Garrantzitsua da xakea gazteei gerturatzea, Suinagaren ustez: "Xakean egiteak hainbat gaitasun lantzeko aukera ematen du; adibidez, kalitate kognitiboak, memoria, bisio espaziala eta abar". Modu horretan, xakeak onura ugari ekar diezazkieke praktikatzen duten gazteei.

### Bergaran osasuntsu

Bergaran xakea osasuntsu dago: "Urteak dira lanean gabiltzala, eta xake eskolara etortzen den talde polita osatu dugu. Uztailen egiten dugun txapelketara, adibidez, 32 ume etorri ziren joan den urtean". Osasun hori helduen taldera ere estrapolatu daiteke: "Helduak ere asko gara. Klubean 40 pertsona inguru elkartzen gara, eta geroz eta jende gehiago animatzen da. Ligan ere jokatu dugu eta lau talde osatu ditugu".

## 21 urteren ostean, eskubaloiko senior nesken partidu bat

21 urte luze pasatu dira Labegaraietan Bergarako eskubaloi taldeko senior nesken partidu bat azkenengoz ikusi zenetik. Hala ere, lanak bere fruituak ematen ditu, eta, urte hauetan guztietan nesken harrobia lantzen egindako lanari esker, Bergarako taldeak azken urteetan finkatutako helburua bete dute: senior mailan talde bat edukitzea.

Domekan jokatu dute senior mailako neskek ligako lehenengo partidu, Zuhagan Orio Eragin taldearen aurka. Etxean jokatu dute 21 urteren osteko itzulera berezia, Labegaraietan, 13:00etan hasita. "Taldearen helburua taldea bera egonkortzea izango da, senior mailara egokitu... Urte luzeetarako proiektua izatea; beraz, emaitzei begira egon beharrean taldearen dinamikan zentratuko da gehiago", adierazi du Bergara Kirol Elkarteak ohar baten bidez.





Beart Eguneko erakusketa, iaz, Irala kalean. GOIENA

# Bearteko lanak ikusgai, beste behin, Irala kalean

Beste urte batez, Beart elkarteko artistek euren lanak jarriko dituzte ikusgai Irala kalean, Beart egunaren baitan. 70 lan inguru egotea aurreikusten du Xabier Agirre elkarteko presidentek, denak kolore eta teknika ezberdinekin egindakoak

**Julen Murua Mesonero** BERGARA

Elkarte gisa 30. urteurrena betetzen du Beartek aurten, eta, urteroko ohiturei jarraituz, aurten ere elkartearen eguna ospatuko dute. Igandean izango da, eta, urtero bezala, elkarteko bazkideek margotutako koadroak ikusgai egongo dira Irala kalean, 12:00etatik 14:00etara bitartean.

70 obra inguru egotea aurreikusten du Agirrek; bakoitzak bizpahiru lan eramateko aukera izango du, eta tamainaren arabera gehiago ere sartu ahalko dira. Oro har, helduek margotutako koadroak izango dira: "Bazkideen koadroak jartzen ditugu; beraz, gehienak eurenak izango dira, helduenak. Egia da posible dela nabarmendu egiten den gazteren baten koadroak ere egotea; nahi dugu belaunaldi berriek ere tokia izatea".

Eguerdiko koadro erakusketaren ostean, eta urteroko ohiturak jarraituta, bazkaria egingo dute elkarteko kideek; Sirimiri jatetxean izango da aurten.

**Elkartea "osasuntsu"**

Beart elkarte osatzen dutenen adina "goraka" doala aitortu du Agirrek; hala ere, "elkartea osasuntsu" dago, haren hitzetan, "urtean zehar antolatzen diren eskoletako taldeak umez beteta egoten direlako". Bide batez, elkartearen eguna antolatzekeko arrazoi nagusia belaunaldien arteko transmisioa da, Agirreraren arabera: "Belaunaldi berriek artearekin lotura izatea da gure helburuetako bat. Iaz, Gabonetako Aroztegiko erakusketan, sarrerako horma gazteek euren lanak jartzeko erabili genuen, eta parte hartze handia egon zen. Euren lanak eta artearekiko gogoa bultzatzea da gure helburua".

**KOADROAK ERAKUTSI OSTEAN, SIRIMIRI BAZKALDU ETA KONTXI IDIGORAS OMENDUKO DUTE**

**Kontxi Idigoras omenduko dute**

Beart Eguna ospatzen duten aldiro elkarteko kide bat omentzen dutela dio Xabier Agirre Bearteko presidentek, eta aurten Kontxi Idigoras omenduko dute, Ricardo Azkargorta irakaslearen hitzetan, "oso pertsona berezia, parte-hartzailea eta talde ekintzetan egindako ekarpenengatik beti nabarmendu delako".

**Joan den asteburuan, Okina**

Miguel Okina margolari bergararraren mendeurrena ospatzeko ekitaldia antolatu zuen Beartek joan den astebururako; Agirreraren hitzetan, "txupinazioa botatzeko, Okinaren mendeurrenaren baitan, hemendik eta datorren urteko udazkenara arte egingo diren ekimenak aurkezteko". Gainera, Miguel Angel Elkoroberezibarrek herriko artearen bueltako hitzaldi bat egin zuen. Elkarteko presidentek dio "harrera oso ona" izan zuela eta aretoa "jendez beteta" egon zela.



Dekolonizatu Bergarak parte hartu zuen solasaldietako bat. DEKOLONIZATU BERGARA

## Martinez de Irala hizpide izanda, solasaldia egingo dute

Dekolonizatu Bergara taldeak antolatu du solasaldia eta talde ariketa; Axier Lopez kazetaria da gonbidatua

**J.M.M. BERGARA**

*Irala: Gure heroia?* solasaldia egingo du Dekolonizatu Bergara taldeak urriaren 9an, 18:00etan hasita, kartzela zaharrean. Solasaldira joan daitezkeen herritarrekin batera, Axier Lopez kazetari eta idazlea –*Gure heroiak* liburuaren idazlea– ere bertaratuko da kartzela zaharrera, Izar Odriozola Dekolonizatu Bergara taldeko kidearen hitzetan, "gaia testuinguruan jartzeko eta Iralaren nondik norakoak hobeto azaltzeko. Horrekin batera, monumentuen eta kaleen izenak aldatzeko munduan izan diren askotariko adibideak emango ditu".

Odriozolak dio "ikuspegi dekolonialetik" helduko diela "Martinez de Iralaren, Bergarako kolonizatzaile eta inperialistaren, balentriei". Era berean, "kolokan" jarri nahi dute, solasaldiaren bitartez, "Martinez de Irala Ber-

garako *heroi* kontsideratzearen ideia".

Lopezek emango dituen monumentuen eta kaleen izenak aldatzeko adibideen bueltan, hiru galdera proposatu nahi dizkiete parte hartzaileei Dekolonizatu Bergara taldeko kideek: "Zer iritzi dugu monolitoaren inguruan? Zer egin dezakegu horren esanahia aldatzeko? Soilik monolitoak arduratzen gaitu?". Galdera horiekin, "monolitoarekiko dauden iritzi eta hausnarketa kolektiboak ezagutzeta" da helburua.

**Hilaren 17an bisita gidatua**

Hispanitatearen Egunaren baitan, Bergarako kaleetan zehar egingo den bisita gidatu bat antolatu du Dekolonizatu Bergara taldeak. Hilaren 17an egingo dute bisita gidatua, eta, Odriozolaren arabera, "irakurketa dekoloniala izango du".

## 25. aldiz, Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa

Bergarako Udalak, Azpeitiko eta Azkoitiko udalekin eta Fray Joseph Echevarria Elkartearekin batera, Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren 25. edizioa antolatu du.

Santa Marina parrokiaren izan gongo dira hiru kontzertuak, urriaren 6an, 13an eta 20an –guztiak, domekak–, 19:00etan hasita. Urriaren 6ko kontzertuan Juan

de la Rubia organista castelloarra eta Xabier Urtasun organista nafarra izango dira protagonistak; hilaren 13an, Ignacio Arakistain organista azpeitiarrak eta zeharkako txirula jotzen duen Aritz Segura erreteriarrek emango dute kontzertua; eta, zikloa amaitzeko kontzertuan, urriaren 20an, Bergarako San Pedro elizako organo-jotzaile titular Aitor Oleak emango du kontzertua, besteak beste, haren ekimenez sortu zen Airean ahots taldeak lagunduta.



# Bandera eta gutuna, herriaren eskertzetzat

Jose Luis Elkoro omentzeko ekitaldia izango da urriaren 10ean, Antzuolan egindako urratsak aitortzeko, hala nola Elay eta Oerlikon enpresak sortzen eta lan munduan euskararen presentzia bermatzen. Alkate eginiko ibilbidea ere nabarmenduko dute

## Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Jose Luis Elkoro herriko bandera eta gutuna jasoko ditu datorren egunean, urriaren 10ean, osoko bilkuren aretoan egingo den ekitaldian, 18:30ean, "Antzuolako herriak eskertze bat zor" diolakoan, Olatz Lezeta alkatearen hitzetan: "Herriari utzi duen aberastasun ekonomikoak zein euskarari eman dion bultzadak badu omenaldi bat egiteko besteko pisua".

Haren hitzetan, Elay eta Oerlikon enpresak sortzeko urratsengatik jasoko ditu oroigarriak, besteak beste. "Elgetan jaiotako bergarar batek Antzuolan enpresa bat irekitzeak herriari dakarzkion onurak asko dira. Antzuolar asko ari da hark sortutako bi enpresetan lanean, eta herriari lana izateak balio handia du". Elkoro, gainera, "irabazi ekonomikoez harago, ikus-

## EKITALDIA "XUMEA ETA POLITA" IZANGO DELA DIO LEZETAK, ETA "ILUSIONATUTA" DAGOELA ELKORO

pegi zabalagoa" zuela dio Lezetak: "Enpresa asko dabilta orain aniztasun funtzionala duten pertsonak lan munduan sartzen, eta Jose Luisek gai horretan ere aspaldi eman zuen pausoa".

### Euskara lan munduan

Euskarari lan munduan eginiko ekarpena ere aitortuko dute ekitaldian, Elkoro arlo horretan ere urratsak egin zituelako: "Garbi ikusi zuten gaztekeraz lan egin da ingurune euskalduna kutsatzen ari zirela, eta horri buelta eman behar zitzaioela. Baita lortu ere: egun, euskaraz egiten dute lan arlo guztietan, eta beste enpresa batzuentzat eredu izatera pasatu dira". Are gehiago, alkateak erantsi du "herriari ere hainbat erdal hitzun" euskaldundu zituela, eta egun [Elay] enpresak duen filofosofia ez dela aldatu.

### Alkate "erreferentea"

Euskal Herriko "alkate erreferenteena" izatea ere aitortuko zaio Elkorori: "Izugarria da Euskal Herriaren alde egin duen lana. Euskal Herriari klabeak izan diren momentu guztietan han egon da, eta hori ez da kasualitatea; ez da izan publikoki

asko nabarmendu den gizon bat, baina beti egon da atzeko lanean". Hark Euskal Herriari eginiko lanak Antzuolarendako "zeharkako onura garrantzitsua" dakarrela dio alkateak: "Askok amesten dugun Euskal Herri aske horren helburuan egin duen lanarengatik ere bada aitortza hau".

Ekitaldia irekia izango dela azaldu du Lezetak, "xumea eta polita", eta herritar oro dagoela gonbidatuta. Elkoro ere han izango dela jakinarazi du: "Izugarriko poza hartu du omenaldiaren berri izatean, eta ilusio handiarekin dago Antzuolara etortzeko".

## Zubimendiren liburuaren aurkezpena

Han egon zen. Jose Luis Elkoro, bizitza bete bat liburu du ondua Mikel Zubimendi kazetari bergararrak, eta horren harira erabaki du Udala Gobernuak aitortza egitea Elkorori: "Nahiz eta beti eskertuta egon herriari egin duenarengatik, askotan aitzakiaren bat behar izaten baita publikoki eskertza bat egiteko".

Ekitaldia egin ondoren, beraz, Zubimendi liburuaren aurkeztuko du. Hain justu ere, apirilaren 13an aurkeztu zuen, Bergaran, eta Elkoroen biografia batzen du; adibidez, Franco hil ostetik honako Euskal Herriaren gaineko hainbat pasarte garrantzitsu bilduta Elkoroen ahotik.

## Gastañaga aita-emeak, Artzain Txakur Txapelketako finalean

Euskadiko txapelketak 26. aldia du, eta han izango dira antzuolarrak, denboraldia txapelarekin amaitzeko prest

### A.R.K. ANTZUOLA

Domekan jokatu da Artzain Txakurren Euskadiko Txapelketa, Mañarian (Bizkaia), eta han izango dira Javier eta Xabier Gastañaga aita-eme antzuolarrak, Cool eta Sandy txakurrekin, hurrenez hurren. "Lana ongi egitera eta irabazten saiatzera noa, baina lorpenik eskuratu ezean ere lasai nago, zaletasun bat baita", adierazi du Javierrek. Xabierrek, berriz, "prest" dagoela: "Denboraldia maiztean hasi genuen, eta txapelketa asko egin ditugu orduetik hona; Gipuzkoa-

ko txapelketan lortu nuen Euskadikorako txartela, baina ez dut aurreikuspenik egin".

Hain justu, zortzi parte-hartzaile izango dira txapelketan, nor bere txakurrekin.

### Ez dago faboritorik

Gastañagatarren hitzetan, faktore askok eragin dezakete txapelketa batean, artzaina ez ezik txakurra eta ardiak daudelako zelaian, eta, beraz, ez dago faboritorik: "Taldean sekulako maila dago, eta oso indartsu gaude guztiok".

## GORA ETA BEHERA



### Ibilgailuak espaloietan aparkatuta

Herritar batek salatu duenez, Errekalde auzoa adibidetzat, aparkalekuak libre egon arren herritar batzuek edozein lekutan aparkatzen jarraitzeko ohitura dute, bidalitako argazkian bezalaxe; horiek oinezkoen bidea oztopatzen dute, eta hortik igarotzeko zailtasunak dituzte.

### EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.



### 'Kalabaza hamaika eratan' tailerrean izen-ematea zabalik

Kalabaza oinarri hartuta lau kontserba mota kozinatzeak aukera izango da urriaren 17an, 17:00etatik 20:00etara bitartean, liburutegian; *Hazien liburutegia* ekimena dela-eta, Olatxuko Laboreak-eko kideek emango dute tailerra. Hala ere, izena eman behar da aurrez liburutegian, plazak mugatuak baitira. Aman-tala eraman behar da.

### Udalak Aiherra-Antzuola Egunera batzeko dei egin du

Urriaren 19an, zapatua, ospatuko da Aiherra eta Antzuola herriaren arteko senidetzea, Aiherran, eta izen-ematea zabalik da urriaren 10era arte, eguna, udaletxean edo liburutegian. Udalak, beraz, animatzeko eta ospakizunean parte hartzeko dei egin die herritarrei. Harrera, herri-jokoak, aperitifa, bazkaria eta musika izango dira.



Jose Luis Elkoro, artxiboko irudi batean. GOIENA



# "Baso-jabeen artean ertsipena da nagusi"

**IÑAKI ETXEBESTE TANTAI BASO JABE KOOPERATIBA**

Baserritarren batzordeak eskatuta, baso-kudeaketa eredu alternatiboen gainean arituz en Etxebeste martitzenean; bestelako basogintza bat posible dela defendatu zuen

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA

Zortzi bat lagun aurrean aritu zen Iñaki Etxebeste (Arrasate, 1979) Elgetan. Errentagarria den kudeaketa eredu jasangarriagoa posible dela adierazi zuen, baina aldaketak egiteko prest egon behar dela. Hurrengo Baserritarren batzordean banatuko dituzte baso-kudeaketa egokirako gomendioekin Tantai egindako liburuxkak.

**Zein da basoen egoera Elgetan?**

Jabetzari dagokionez, muturreko egoera da Elgetarena. Baso-lurren ia %100 pribatuak dira. Debagoieneko herrien batez bestekoa da bi heren pribatua eta heren bat publikoa. Eskualdeko kontrako kasua Leintz Gatzaga litzateke, non baso-lur gehienak publikoak diren. Basoen egoerari dagokionez, Kanpazarko bidetik argi ikusten da: gaixotutako insignis pinu sail dezente daude. Douglas izeiak ere badaude, eta gaixotzen ari dira horiek ere.

**Baso-jabeen aldartea zein da?**

Elgetan zein Elgetatik kanpo antzerakoa. Egoerak dakarrena da jabeak, oro har, etsita eta noraezean egotea. Uste dut horiek direla hitzak, *etsita* eta *noraezean*. Alternatibak sortu dira 2018ko krisi fitosanitariotik hona, baina ez da alternatibarik heltzen edota heltzen diren alternatibak oso kontinuitate dira. Ez da kudeaketa eredu bera ezbaian jartzen. Beste espezie batzuk sartu dira basoan, baina espezie horiek emango dutena guk modu oso kritikoan ikusten dugu.

**Tantai Baso Jabe elkarteak eredu alternatibo jasangarria proposatzen du; bide bat egin duzue. Bideragarria, errealista eta errentagarria da benetan?**

Ekain amaieran bete genuen lehenengo ekitaldi ekonomikoa eta emaitzak esperotakoak baino zerbait hobek izan dira. Lan asko dago egiteko eta proiektua egonkortzeko urte batzuk behar-



Iñaki Etxebeste, martitzenean, Elgetako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. L.Z.L.

## "LEHEN URRATSA DA ALTERNATIBAK BADAUDELA JAKITEA ETA HORIEK ENTZUTEA"

ko dira oraindik. Baina bai, hau bideragarria da. Legazpin osatu dugu etorkizuneko irudi bat izan daitekeen lan bat eta ikusi dugu positiboa izan dela ekonomikoki ere.

**Tantai moduko proiektu batean sartzeko baso-jabeak prest egon behar du aldaketak egiteko; ze aldaketa?**

Lehen urratsa de alternatibak badaudela jakitea eta horiek entzutea. Adibidez, Tantairen proposamena entzutea. Baso-jabeak ez du zertan espezie jakin batzuekin lotutako kudeaketa ereduarekin jarraitu. Beste aukera batzuk badaude. Aldi berean, prest egon behar du ulertzeko beste kudeaketa eredu batek emaitza ekonomikoki positiboak eman ditzakeela. Jendartearen ikuspuntutik ere beste onurak batzuk bermatzen dira, askotan baso-ekosistemei

eskatzen dizkiogunak. Administrazioetik zein aholkularitza zerbitzuetatik ematen ditugu gai horien gaineko azalpenak eta ikusten ari gara hasi ginenetik hona geroz eta babes zabalagoa dagoela ikuspuntu teknikitik. Baina kosta egiten da baso-jabeengana heltzea.

**Aldea handia dago lehengo eta oraingo baso-jabeen artean?**

Normala ere bada. Azkenean, bizi gara gizarte batean non baso-jabe guztiek ez duten basoaren kudeaketa euren lehen-tasunen artean. Gaur egun ez dago lehengo baso-jabeek baso kudeaketarekin zuten lotura hori. Besteren batek gogorazitakoan edo lan bat egitea tokatzen denean konturatzen gara zer-nolako ardura den eta beste aukera batzuk badaudela.

**Tantaik baditu bazkideak Elgetan?**

Bai, bizpahiru badaude, eta gure ateak zabalik daude beste edozein kontsulta argitzeko. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da Tantai Baso Jabe kooperatiba eta gaur egun 321,31 hektarea kudeatzen ditugu Gipuzkoan. Euskal Herrian 500dik gora dira. Saretzen jarraitzea da asmoa.

## Udala gazteengandik jasotako proposamenak aztertzen ari da

Gazteleku zerbitzua zabaltzea da asmoa; maiztasuna eta ekintzen nolakotasuna definitu behar dira

**L.Z.L. ELGETA**

12 eta 14 urte arteko hamabost bat gazte hartu dute parte gazteleku zerbitzuaren gainean Udalak egindako batzar irekian. Zerbitzua martxan jartzea da asmoa, baina erabakitzeke dago ze funtzionamendu izango duen.

Gaztelekua zabalik izan den sasoiaren hainbat formula erabili izan dira: ikasturteko asteburu guztietan zabaltzea, neguko aste bukaeretan zabaltzea baina udaberrian ekintza puntualak egitea, urtean zehar hilean bizpahiru ekintza egitea... "Gaz-

teengandik jaso dugun erantzuna da nahiago dutela hilean pare bat ekintza egin. Proposamenak egiteko ere eskatu diegu; kasu batzuetan herrian bertan egiteko ekintzak proposatu dituzte eta beste batzuetan, irteerak egitea", esan du Hezkuntza zinegotzi Kepa de Vegak.

Astebetez proposamenak jasotzeko postontzia egon da ludotekan. Jasotakoak aztertzen ari da orain Udala. "Asmoa da urte osoko egitaraua ateratzea", esan du de Vegak. Ekintza bakoitzak bere izen-ematea izango du.

## Intxortako ibilbidean bisita gidatu irekia eta doakoa domekan

Gaur, urriak 4, betetzen dira 88 urte Elgetako frontea ezarri zela. Frankismoaren kontrako erresistentzia gogoratzeko egunak dira, eta Elgetako Udalak bisita gidatu irekia eta doakoa antolatu du domekarako.

Taldea 11:00etan abiatuko da Espaloia kafe antzokian dagoen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik. Asentzio inguruan dagoen lubakien gunea bisitatzeaz gain zentroa ikusteko aukera ere egongo dela jakinarazi du Elgetako Udalak. Izen-emateak egin daitezke *infoturismo@debagoiena.eus* zein *udala@elgeta.eus* helbide elektronikoetan edo 943 76 80 22 telefono-zenbakira deituta.

## Liburutegi zerbitzuak hainbat proposamen egin ditu urrirako

*Liburuekin hegan* gai hartuta, martxan da II. Irakurpuntu Lehiaketa; 5 eta 16 urte artekoek hilaren 31rako aurkeztu behar dituzte lanak. Hitzez Pitz irakurketa taldea ere elkartzen hasita dago; Adriano Mataren *Sanroketarako, etxean* eleberriarekin ari dira eta martitzenean elkartzen dira, 19:00etan.

Urriaren besteak beste, Josu Ozaitaren eta Ane Bastidaren bisita izango dute liburutegian. Ozaitak *Itzalitako kalabazzen berpiztea* izeneko hitzaldia egingo du hilaren 16an eta Bastidak *Hideane* liburuaren aurkezpene eta kontaketa hilaren 18an. Egitarau osoa liburutegiaren sareetan dago ikusgai.

## OHARRAK

### Martxan dira euskal dantzen ikastaroak

37 gazte eman dute izena, eta gaur hasiko dira saioak, Kezka dantza taldeko bi irakasleren eskutik. 16:15ean izango da txikien saioa eta 17:15ean nagusiagoena.

### Astrotopaketa eguaztenean

Hilaren 9an izango da ikasturteko lehen astrotopaketa, eta teleskopioa erabiltzen ikasteko izango da, 18:30ean, liburutegian.

### Herri Foroa urriaren 16an

Iaz herri hezitzaileen sarearen barruan sortutako Elgetako Herri Foroa hilaren 16an elkartuko da, eguaztena. Saioa 19:30ean izango da, udaletxeko areto nagusian.





Aukeran dantza konpainiak borobildu zuen sanmigeletako asteburua. IÑAKI IDIGORAS

# Esne Beltzak emango die hasiera gaur Errosaixoei, astelehen gauera arte

Zapatuko Herri Eguna eta asteleheneko Errosaixo Bixamona kalean pasatzeko egunak izango dira aurten ere, baina egitaraua zabalagoa da. Eraso sexistei aurre egiteko zerbitzua indarrean egongo da eta udaltzainek gidariengan jarriko dute arreta

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI  
San Migel jaien balorazio ona egin du Udalak, eta "ekintzak orokorrean parte-hartzaileak" izan direla gaineratu. Nabarmentzekoen artean bi ekintza aipatu ditu Kultura batzordeburu Iñaki Olalde: Iskidiren kalejira mitologikoa eta Aukeran dantza taldearen ikuskizuna. "Gurasoak etorri zaizkigu zoriontzera, batetik, eta asteburua borobildu zuen ikuskizunagatik jasotako balorazioa oso ona izan da". Egindako beste ekitaldien artean, arrakasta izan dute aurten ere auzotako jai batzordeen arteko jolasek –sortu berria den Ugarkaldeko Jai Batzordea izan zen garaile–, eta entzierro txikian ere hartu zuten parte haurrek eta gaztetxoek. Udaltzaingoan galdetuta, aurreko ateburua "lasaia" izan zela adierazi dute,

ez zela intzidentziarik gertatu; ezta Ertzaintzan ere. Orain, aste barruko egunetan atsedean hartuta, Errosaixoak datoz. Esne Beltza taldeak joko du gaur, 23:00etan, herriko plazan, eta astelehena bitartean egongo dira musika emanaldi gehiago: puzgarriak, pilota txapelketako finalak, arku tiroa probatzeko aukera, ohiko Herri Eguna sagardo, talo, animalia, artisau eta barazki erakusketa zein herri bazkariekin –600 lagun inguruk bazkalduko dute kiroldegiko kantxa berdean–, eta Errosaixo Bixamona, lagu-

**KIROLDEGIAN EGINGO DEN HERRI BAZKARIAN 600 BAT LAGUN BATUKO DIRA ZAPATUAN**

nekin mozarrotu eta eguna kalean pasatzeko plana, besteak beste.

## Gidariengan arreta berezia

Udaltzaingoak, baina, mezu konkretu bat zabaldu gura du jaietako bigarren asteburu honi begira, jaso dituen deien ondorioz: edanez gero ez gidatzea, hain zuzen. "Jaso ditugu abisu batzuk astean esanez asteburuan ikusi zituztela gidari batzuk azkar edo oker gidatuz euren ibilgailuak, eta asteburu honetan arreta berezia jarriko dugu horretan. Zorrotz jardungo dugu alkoholaren ondorioz gidatzen duenengan", azaldu du Idoia Lazpita udaltzainburuak. Gaineratu du asteburu honetan ere udaltzain gehiago egongo direla lanean eta, hain zuzen ere, zerbitzua 02:30ak arte luzatuko dutela.



Txantxikua Oñati Institutuko balkoira heltzen. GOIENA



Pertsonaia mitologikoak kalejiran. GOIENA



Bertsolarietako bi, oñatiarrak. GOIENA



Deigarria izan zen Suneren argiztapena. GOIENA

Bestalde, asteburu honetan ere egongo da sokamuturra, astelehenean, zehazki, eta kontuan hartzekoa da 16 urtetik beherakoek guztiz debekatuta izango dutela parte hartzea. "Burladeroak zezenetan daudenen babeserako" direla, eta ez ikusleentzako; hori ere kontuan hartzea eskatu dute.

## Erasoen aurkako zerbitzua

Eraso sexistei aurre egiteko zerbitzua indartu egin dute jai nagusietan eta datozen egunetan; telefono bidezko arreta zerbitzua

egongo da eta aurrez aurreko puntua Herri Egunean eta Errosaixo Bixamon Egunean. Aurrez aurreko arreta gaztelekuan emango da, 13:00etan hasita zapatuan eta 20:00etan astelehenean; 08:00etara arte, egun bietan. Telefonozko arreta zerbitzua ere erabilgarri egongo da laguntza behar duenarentzat, nola lagundu ez dakienarentzat edo jasandako erasoaren erregistratu nahi duenarentzat: 688 60 20 89. Txosnagunean ere era guztietako erasoak aurre egiteko protokoloa dute, eta datozen egunetan indarrean egongo da.





Jai batzordeen arteko jolasek arrakasta izan dute aurten ere. GOIENA



Bi konpainia berri gehiagorekin, aurrekoetan baino partaide gehiago izan ziren nagusien danborradan. GOIENA



San Migel Eguneko kontzertua plazan egin zuen Musika Bandak. GOIENA



Onenak berakatz-zopa egiten. GOIENA



Entzietxo txikian, korrika zezenarekin gazteak eta korrika haren aurretik haurrak eta gaztetxoak. ARANTZAZU EZKIBEL

### Hondakinetan aldaketak

Errosaixo jaiak direla eta, bestalde, zapatuan eta astelehenean Kale Zaharra, Kale Barria eta Atzeko kalea zirkulaziorako itxita egongo dira eta hondakinak batzen pasatzen den kamioia ezin izango da sartu. Ondorioz, Herri Egunean eta Errosaixo Bixamonean, kale horietako eta plazako taberna, komertzio eta elkarteetako arduradunek hondakinak inguruko beste batze-puntu batzuetara atera beharko dituzte: Maiatzaren 1a plazara,

ONCEko kabina ondoko aparkalekura; Lizaur kaleko lehenengo esekitokiaren ondora; Ramon Irizar edo Portu kaleko esekitokietara; edo Iturritxo aldamenen prestatuko den aparkalekura.

### Errespetuz eta erantzukizunez

Iraileko osoko bilkuran, herriko jaiak "gozatu bai baina errespetuz eta erantzukizunez" ospatzera gonbidatu zituen herritar guztiak Izaro Elortza alkateak, udalbatza osoaren izenean.

## Errosaixo jaietako egitaraua

### Egubakoitza, urriak 4

- 19:00 Pintxo-potea, musikaz girotua.
- 23:00 Esne Beltza taldearen kontzertua, herriko plazan.

### Zapatua, urriak 5

- 09:00 Aita Madina txistulari taldearen goiz-eresia eta kalejira.
- 10:30 Unibertsitate inguruan: herriko abere erakusketa eta gazta, fruitu eta barazki lehiaketak. Artisauen azoka eta taloak.
- 12:00 36. Sagardo dastaketa, herriko plazan.
- 14:30 Herri bazkaria, kiroldegian.
- 15:00 *Zuk ekarri zuk jan* bazkaria, Antixena gaztetxean, Txosna Batzordearen eskutik.
- 17:00 Gaztetxoekin herri kirolak, herriko plazan. Ondoren, profesionalen erakustaldia.
- 18:30 Obaneuke taldearekin erromeria, Atzeko kalean.
- 19:00 Meza, parrokiaren. Ondoren, Francisco Esnalen salbea.
- 20:00 Laket taldearekin erromeria, herriko plazan.
- 21:30 *Drag show* ikuskizuna, txosnagunean.
- 22:00 Rebel Noise, Hamarratz eta Los Zopilotes Txirriaos taldeak, txosnagunean. Jarraian, DJ Lumatzak.
- 22:30 Laket taldearekin erromeria, herriko plazan.

### Domeka, urriak 6

- 09:00 Aita Madina txistulari taldearen goiz-eresia.
- 12:00 Meza nagusia, parrokiako koruak abestuta.
- 12:00-14:00 Haur parkea, Etxaluzeko parkean.
- 12:30 Erraldoiekin dantzan, herriko plazan.
- 17:00 Arku tiro erakustaldia, San Martin zuhaitzian.
- 17:00 San Migel pilota txapelketako finala, Zubikoan.
- 17:00-20:00 Haur parkea, Etxaluzeko parkean.
- 19:00 Africa Bibang abeslaria, Atzeko kalean.
- 19:00 Ingot Rock taldearen kontzertua, txosnagunean.
- 20:00 London Orkestra taldearekin dantzaldia, herriko plazan.
- 20:30 Balkoitik balkoirako bertso-saioa, Maialen Lujanbio eta Urko Arregi bertsolariekin, Kale Zaharrean.
- 23:00 Ikuskizun piromusikala, plazan. Ondoren, dantzaldia London Orkestra taldearekin.

### Astelehena, urriak 7

- 10:00-12:00 Sokamuturra, herriko plazan.
- 15:00 Bazkaria, txosnagunean. Ondoren, sari banaketa.
- 17:30-19:30 Sokamuturra, herriko plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean.
- 19:00 Dibertsioak, txosnagunean.
- 20:00 Puro Relajo taldearen kontzertua, herriko plazan.



**ION  
ANDER  
CASTRO  
ZABALA**

Era guztietako  
aulkien konponketa  
Zumezko  
artikuluen salmenta

**TAPIZERIA  
OROKORREAN**

**943 78 71 65  
639 01 69 69**





Iker Martinez de Zuazok, Iñigo Ibarrondok, Ane Arrutik eta Egoitz Olalde osatzen dute Keia taldea. IBAI ARRIETA

## Erritmo biziagoekin dator Keiaren bigarrena

Gaur, egubakoitza, kaleratuko du 'Zamalanak' izenburua duen diskoa Keia taldeak. Zortzi kantu ditu, eta lehen lanak baino estilo argiagoa eta erritmo biziagoa. Kontzertuak lotzen hasita daude: urrian Arrasaten eta urtarrilean Oñatin joko dute

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI  
Zortzi kanta ditu Keia taldearen *Zamalanak* disko berriak, eta, Ane Arruti abeslariarengandik ateratakoak badira ere, taldearekin batera moldatu eta itxuratu ditu, "aurrekoan baino gehiago". Zarauztarra da Arruti, baina oñatiarrak Keia osatzen duten bete hirurak: Iker Martinez de Zuazo, Iñigo Ibarrondo eta Egoitz Olalde.

### Elementu gehiago ditu lanak

Bakarka kantatzeko abestiak zituen eginda lehen diskorako Arrutik, eta gero egin zuen topo oñatiarrekin, eta taldea osatu. "Orain, baina, taldea bazegoen, eta, nahiz eta niretik sortutako abestiak izan, aurrekoan baino biluziagoak ekarri ditut taldera, denon artean itxura emateko", dio Arrutik. Horrela izanda, *Erregaia* lanaren aldean disko hori "estilo aldetik argiagoa, erritmo aldetik biziagoa eta soinu aldetik ezberdinagoa" dela aurreratu du. "Beste elementu

berri batzuk sartu ditugu; sintetizadorea, esaterako".


**"Kontzientzia hartzetik" eginak**  
Hark ikusitako edo bizitako egoerak eraman ditu Ane Arruti zarauztarrak kantuetara, "kontzientzia hartzetik" idatzitakoak. Diskoko aurrerapen kantuan, adibidez, *Tiraka nabil-en*, harreman toxikoaz min-

tzo da. "Askok sufritu duten egoera da, izan bikotean, lanean edo talderen batean. Bideoklipean transformazioa ageri da, edertasun batetik nola pasatzen den lore izatera, goroldioak itolarria sortzeraino. Nire bizitzan pilatzen joan den zama arintzen lagundu dit diskoak".

Lan horretarako Usurbilgo Haritz Harreguy ekoizlearengana jo du taldeak, eta hantxe grabatu dute. Gaur, egubakoitza, jarriko dute salgai.

### Urtarrilean gaztelekuan

Disko berria kaleratuta, jendeari erakusteko lanetan ari da orain taldea eta dagoeneko lotuta ditu bi kontzertu: urriaren 24an Arrasateko gaztetxean joko dute, Kooltur egitasmoaren barruan; eta Oñatin, berri, urtarrilaren 11, gaztelekuan, Delirium Tremens taldearekin batera. Oñatiko kontzerturako sarrerak salgai daude dagoeneko [www.onati.eus](http://www.onati.eus) helbidean eta Txokolateixan.



**KEIA**  
**'ZAMALANAK'**

- **Diskoetxea:** Autoekoiztua.
- **Prezioa:** 10 euro.
- **Salgai:** Arrano eta Eltzia tabernetan.



### NIRE USTEZ

ASIER LAUZURIKA ARRONDO

## Mundu berri bat daramagu bihotzean

40 urte dira Pakito Arriaran El Salvadorren erail zutela. Konpromiso militante sakonak eta etorkizun hobe bat eraikitzeke determinazioak eraman zuten mundu berri baten aldeko borrokan bizia ematera. Asko dira orduz geroztik munduaren luze-zabalean zein gure herrian izandako borrokak, garaipenak eta porrotak. Fukuyamak aldarrikatutako historiaren amaiera etorri ez bada ere, ematen du etorkizun desiragarriak imajinatzeke gaitasuna kamustu digutela. Errazagoa zaigu etorkizuneko mundu distopiko bat irudikatzea, herrien arteko xamurtasuna oinarri izango duen mundu bat baino. Eta imajinatzen dugun (edo ez dugun) etorkizunak erabat baldintzatzen digu bizi dugun orainaldia. Etsipena nagusitu daitekeen garaiotan, ezinbestekoa dugu berriro ere bihotzean ditugun mundu berri horiekin amestea. Beharrezkoa dugu gure desioak, emozioak eta afektuak aktibatzea. Amorratzen, mintzen eta maitemintzen gaituenetik, aspirazio eta desira kolektiboak artikulatu behar ditugu. Arrazoiarekin batera, afektuak baitira mundu berri bat bihotzean daramagunok mugiarazten gaituztenak.



ALOÑA MENDI

## Finala jokatuko du Iñigo Erlek

Oihan Etxeberria oiartzuarrarekin bikote eginda jokatuko du domekan Iñigo Erle oñatiarrak San Migel pilota txapelketako finala. 32 pilotarik hartu dute parte irailaren hasieran hasi zen txapelketan, eta finalerara iritsita dago. Ohikoa den moduan, Errosoixo domekan, hilak 6, izango dira gazte eta nagusi mailako pilotarien finalak, 17:00etan, Zubikoa pilotalekuan.

## Txapelketa barruko saioa dute Tatiegik eta Arregik bihar

Azpeitian jokatuko da bihar, zapatua, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken final-zortzirena, eta saio horretan ari-tuko diren sei bertsolariaren artean daude Aitor Tatiegik eta Maider Arregi oñatiarrak. 17:00etan hasiko da saioa, Azpeitiko Soreasu antzokian, eta irabazlea zuzenean sailkatuko da final-laurdenetarako.

## Hilaren 10ean zabalduko dute epea eskulanetarako

Urriaren 10etik aurrera eman ahal izango da izena Udaleko Kultura Sailak antolatutako eskulanean ikastaroetan. Udal webgunean dagoen formularioa beteta edo kultura etxera joanda eman daiteke izena, hilaren 21a aurretik. Onartuen zerrendak 25ean publikatuko dituzte eta ikastaroak azaroaren 4an hasiko dira.





# UDAKO ARGAZKIEN 20. GOIENA LEHIAKETA

## Argazki irabazleak

Hauetxek dira Udako Argazkien 20. Goiena Lehiaketako irabazleak.

**Juan Luis Zabala** gatzagarrak *Denok iturrira, Leintz Gatzagako iturrian* argazkiarekin lehen saria irabazi du –bi lagunendako landetxe batean gaua eta gosaria–.

**Gaizka Untzueta Irasuégi** arrasatearrak *Lhasa, Tibeteko hiriburua* argazkiarekin bigarren saria irabazi du –Gure Ametsa jabetxean bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria–.

**Alix Barbero** ofiatiarrak *Marina irla, Kolonbia* argazkiarekin hirugarren saria irabazi du –Samsung Galaxy A05s eskuko telefonoa–.

**Izaro Hernandez Urzelai** aretxabaletarrak *Tre Cime di Lavaredo, Dolomitak* argazkiarekin Gazte Saria irabazi du –motxila, bastoiak eta kantinplora–.

**Elias Villavicencio Mugica** arrasatearrak *Arrasaten* argazkiarekin Publikoaren Saria irabazi du –bertako produktuen saskia–. Zorionak guztioi!




### 1. saria

*Denok iturrira, Leintz Gatzagako iturrian*  
Argazkia: Juan Luis Zabala | Leintz Gatzaga



### 2. saria

*Lhasa, Tibeteko hiriburua*  
Argazkia: Gaizka Untzueta Irasuégi | Arrasate



### 3. saria

*Marina irla, Kolonbia*  
Argazkia: Alix Barbero | Oñati



### Gazte Saria

*Tre Cime di Lavaredo, Dolomitak*  
Argazkia: Izaro Hernandez Urzelai | Aretxabaleta



### Publikoaren Saria

*Arrasaten*  
Argazkia: Elias Villavicencio Mugica | Arrasate



Argazki guriak kanal berrari honetan:  
<https://bebas.eus/udakoargazkiak-2024>



# Hastera doa LF2 mailako ikuskizuna, Iturripen

**SASKIBALOIA** Mondragon Unibertsitateko neskek bihar, zapatua, hasiko dute Errioxako Bosonit Unibasketen kontra liga txapelketa (18:30). Kirol zuzendari Iñaki Ogara 'Arri'-k nabarmendu du talde morea prest dagoela kategoria berrirako

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Bihar, zapatua, 18:30ean Gorka Garcia eta Ibai Gaztelu epaileek norgehiagokaren hasiera adierazten dutenean harmailetan batutakoek momentu historikoa bizi izango dute, Arrasatek lehenengoz izango du-eta LF2 kategorian emakumezko talde bat.

Hala, Ointxe!-ko kirol zuzendari Iñaki Ogara *Arri*-ren ustez, taldea gertu dago denboraldi berrirako. "Denboraldiaurre emankorra izan da, taldea non dagoen ikusteko balio izan duena. Bost lagunarteko jokatu ditu taldeak, eta egia da ez dutela partidurik irabazi, baina kontrario gogorak izateak balio izan du konturatzeko lehiakorrak direla, eta hori garrantzitsua da; izan ere, bost partidu horietako lau goragoko taldeen kontra jokatu dituzte, Challenge kategorian -maila bat gorago- jokatu duten taldeen kontra. Eta partidu oso parekatuak jokatu dituzte; azken laurdeneko bizpahiru jokalditan erabaki dira norgehiagoka horiek. Bosgarren partidua kategoria bereko Ibaizabalen kontra jokatu zuten, eta orduan ere azkenera arte partidu lehiatua izan zen. Horrenbestez, taldea prest ikusten dut maila



Muko zenbait jokalaria, taldeak aurkeztu zituztenean. GOIENA

honetarako, nahiz eta egia den taldearen benetako maila Gabonen ostean ikusiko dugula".

## Ilusiotik tira egitera

Taldekideek kategoriari neurria Gabonen bueltan hartuko badiote ere, *Arri*-k garbi dauka orain nondik egin behar duten tira: "Sekulako ilusioa dute, eta gogo horretatik egin behar dute tira. Giro oso ona dago taldean, eta hasieran izaten den indar eta motibazio horretan oinarritu behar dute liga hasiera honetan emaitza positiboak lortze-

ko, oraingo puntuak ere garrantzitsuak dira eta".

Biharko kontrario Bosonit Unibasketen gainean galdetuta, zera dio *Arri*-k: "Logroñoeko talde nagusia da; Errioxako talde nagusia, beraz. Baliabide asko dituen taldea da; iaz kategoria honetan igoera faserako sailkatu ziren, nahiz eta ez ziren mailaz igo. Aurten ere apustu sendoa egin dute, eta jokalaria profesionalak eta euren harrobikoak uztartzen dituzte, lehiakorrak izateko. Talde indartsuenetako bat izango da".

## "Denboraldi historiko baten atarian gaude, eta ilusioa dugu"

JOSE MARI BALZATEGI MUKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

Ointxe!-ko zuzendaritzak denboraldi hasiera hau nabarmendu du, lehenengoz izango dituelako klub horrek LF2 eta FEB3 kategorietan ordezkari bana. "Herriko eta eskualdeko saskibaloiairendako urte historikoa da, bereziki emakumezkoetan inoiz ez dugulako hemen halakorik izan", dio Jose Mari Balzategik.

### Ilusioa pizten du denboraldi berri honek. Zuzendaritzan lanak bikoiztu egingo zitzaizkizuen...

Uste dut bikoiztu hitza motz geratzen dela [Barre], laukoiztu ere egin zaigu lana. Azken batean, Espainiako Federaziotik bideratzen dituzten txapelketak dira hauek, eta Madrildik iristen zaizkigun eskakizunak askotarikoak dira. Izan ere, kategoria profesional gisa hartzen dituzte. Saskibaloia kantxak ezaugarri batzuk izan behar ditu, partiduak FEB telebista katerako grabatu behar ditugu, epaileei



GOIENA

dagozkien eskakizunak... Esaterako, etxeko partidu guztietan *speaker* edo esataria behar dugu. Halako eskakizun mordoak gaude, baina, horrekin batera, bazkide kanpaina abian dugu, kanpoan jokatu ditugun partiduetarako bidaiak prestatu behar ditugu... Lan handia dago atzean, bai.

### Bazkide kanpaina aipatu duzu; zer moduz doa?

Ondo, pozik gaude, baina hau hasi baino ez da egin eta jendea animatu nahi dugu denboraldiko abonua egitera. Izan ere, partidu bakoitzeko sarrera 5 eurokoa izango da -20 urtez azpikoek debalde- eta urte osoko gizonzkoen edo emakumezkoen partiduetarako abonua, berriz, 50 eurokoa da. Uste dugu ez dela diru asko denboraldi osoan maila oso politeko saskibaloia ikusteko eta, bide batez, klubari laguntzeko. Eta gizonzkoen eta emakumezkoen partiduak ikusi nahi dituenak aukera izango du 75 euro ordainduta dena ikusteko. 26 partidu inguru dira urte osoan, prezio oso ona da. Ointxe!-ko jokalarien gurusoak bazkide dira jada, eta, oraingoz, beste 80 lagun inguru animatu dira bazkide egitera. Ea kopuru hori hazten doan.

### Zer prestatu duzue biharko partidurako?

Goizetik hasi nahi genuen motorrak berotzen, baina egubakoitzean Maritxu Kajoi ere bada eta... Erabaki dugu dena arratsalderako uztea [Barre]. Jai moduko bat antolatu nahi dugu Iturripera datozenekin; 16:00etan saskibaloia eskolako gaztetxoak izango dira protagonista. Jatekoak eta edatekoak egongo dira salgai, DJa izango da arratsaldea girotzen...

## 'DANBAKAST'

GOIENA TELEBISTA

URRIAREN 10EAN, EGUENA, 20:00 ETA 22:00  
MUSIKARI ESKAINITAKO BIDEOPODCASTA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.





# Bolada ona luzatzeko, etxean irabaztea gakoa

Denboraldiko lehenengo porrota jaso ostean (Basconiaren aurka, 3-2), Ibarrara itzuliko da UDA; izan ere, San Ignacio taldearen bisita jasoko du zapatuan, 16:30ean. Etxeko bi partiduak irabazita, bolada horri jarraipena eman nahi diote Calzonenek

## J. Murua Mesonero ARETXABALETA

Denboraldi hasiera onari jarraipena emateko beste aukera bat izango du UDAk asteburuan. Jokoan egon diren 12 puntuetatik 7 atera ditu Unai Calzoneren taldeak, eta denboraldi amaierako helburua lortzeko puntuak batzen jarraitu nahi dute aretxabaletarrek. Basconiaren aurkako porrotak "eragin positiboa" izan duela dio Calzonek; izan ere, "ligako talde gogorrenetako baten aurka partidua borrokatu eta punturen bat lortzeko aukera" izan zuten. Gaur-gaurkoz, ligako oilarren aurka lehiatzeko gai da UDA, eta talde asko ezustean harrapatu dituela aitortu du Calzonek: "Jokalari, delegatu edo bigarren entrenatzaileen batekin hitz egiteko aukera izan dute batzuek, eta guztiak aitortu digute ezustean harrapatu ditugula. Talde ahulagoa espero zuten, joko zuzenagoa izango zuen eta baloiaren jabetzari ia uko egingo zion talde bat. Bada, ez da gure estiloa. Baloiaren jabetza nahi duen talde bat gara, baditugulako horretarako baliagarriak diren jokalaria, eta partidu guztietan lehiakorrek izan nahi dugu".

## Detalle txikiak erabakigarri

Laugarren jardunaldian iritsi zen UDAREN denboraldiko lehenengo porrota, eta Calzonek dio bazekitela "Hirugarren Mailan lehiatzeko gai" izan zitezkeela. Hala ere, onartu du liga oso luzea dela eta detalle txikiak garrantzi handia izango dutela: "Gure beldur nagusia partiduetan gertatzen diren detaileetan onak ez izatea da. Aurkariaren atera hiru aldiz heldu baina ez badugu golik egiten, besteak gure atera iritsitakoan bi aldi behin gola egingo digute, kalitate oso handiko jokalaria izanda horretarako gai direlako. Erritmo horretara egokitzea da gakoa, eta, nola ez, zortea alde



Ortiz de Urbina, Leioaren aurkako partiduan. IMANOL SORIANO

## 12 PUNTUETATIK 7 ESKURATU DITU UDA-K, ETXEAN JOKATUTAKO BI PARTIDUAK IRABAZITA

edukitzea eta partiduak borrokatzea".

Dagoeneko zazpi puntu eskuratu arren, Calzoneren taldeak "hankak lurrian" mantentzen ditu, badaki-eta liga "oso luzea" dela: "Mailaz igotzen den taldeak dinamika positiboarekin hasten du liga, baina denboraldia oso luzea da, lesioak gerta daitezke eta bolada txar batek eragin handia izan dezake. Puntuak batzen jarraitu behar dugu".

## Talde gogorra aurrean

UDAK ez daki oraindik zer den etxean galtzea, eta bolada on horri jarraipena eman nahi dio taldeak. Aurrean, baina, ez du aurkari erraza izango Aretxabaleako taldeak: "Aurreko taldea mantendu egin dute eta ia oso denboraldi ona egin zuten. Ezagutzen dugu taldea, denboraldiaurrean euren kontra jo-

katu genuelako, eta talde gogorra da. Baliteke ez egitea ligako joko ikusgarriena, baina guztiak dakite zertara jokatu behar duten". Hori esanda, Calzonek argi dauka zer egin beharko duen UDAk hiru puntuak eskuratzeko: "Gure jokoa egin behar dugu: baloiaren jabetza izaten jarraitu, intentsitate handia jarri partidu osoan, trantsizioak aprobetxatu eta denok batera defenditu. Aipatutako horietako zerbait egiteari uzten badiogu, maila honetan asko izango dugu galduta".

## Gainontzeko neurketak

Gizonezkoen Ohorezko Erregional Mailan, Aloñak Vasconiaren bisita jasoko du Azkoagainen (zapatua, 15:30), denboraldiko lehen garaipena lortzeko asmoz. Mondra eta Bergarak, berriz, etxetik kanpo jokatu dute: zuri-moreak Mutrikuren (zapatua, 17:00) eta mahonerok Beasaingo bigarren taldearen aurka jokatu dute (domeka, 17:00). Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailan, Bergarak Agorrosinen jokatu du, Donostiako Irauli Bosteko taldearen aurka (zapatua, 16:30).

## Izena ematea zabalik Futbola Oinez ekimenean parte hartzeko

**FUTBOLA** Arrasaten egingo da, besteak beste, Futbola Oinez ekimena; dagoeneko zabalik dago izen ematea

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Laugarren denboraldia egingo dute aurten Walking Football ekimenekoek. Beste behin, helburua da Gipuzkoako 55 urtetik gorako pertsonen artean bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzea, parte-hartzaileen adinera egokitutako futbolaren bidez. Futbola Oinez ekimenean arauetako batzuk honako hauek dira: oinez jokatzen da, kontaktua saihesten da eta baloia ezin da buruaren gainetik altxatu. Arrasateren kasuan, eguaztentean egiten dituzte saioak, Moja-

tegin, 11:00etatik 12:30era. Urriaren 9an egingo dute lehen saioa.

Ekimenean izena eman daiteke [fundazioa.realsociedad.eus](mailto:fundazioa.realsociedad.eus@webgunean) webgunean. Zalantzaren bat argitu nahi izanez gero edo informazio gehiago eskuratzeko, kontaktuak hauek dira: [fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus](mailto:fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus) helbidea eta 943 46 28 33.

## Realarekin elkarlanean

Real Sociedad Fundazioaren proiektua da eta Arrasateko Udala da bertan laguntzen ari den eragileetako bat.



Futbola Oinez, Mojategin. GOIENA

## ESKUBALOIAREN Denboraldi berriko lehen garaipenaren bila

Lehenengo jardunaldian berdin egin zuten Mugarri Ingouk (23-23) eta Soralue BKEk (21-21), eta, beraz, aurreneko bi puntuen bila irtengo dira bi taldeak. Arrasatearrek Eibar B-ren bisita izango dute; mahonerok, berriz, Urnietan jokatu dute partidua. Fagor Professional Aloña Mendik, bestalde, atzeratu egin du asteburuko partidua.

## ARETO FUTBOLA Hiru puntuak etxean geratzeko borrokan

Laibururen kantxan 1-2 irabazi ostean, Gernikaren bisita jasoko du Mondratek Hirugarren Mailako bigarren jardunaldian; Eskoriatzak, berriz, galdu egin zuen Donipariren aurka (8-4) lehenengo jardunaldian, eta Jarrillerosen bisita jasoko du asteburuan. Bestalde, Coinbroker Aloña Mendik bihar hasiko du liga Afantxoren aurka.

## SASKIBALOIAREN Euskadiko txapelketetako taldeak, hasteko prest

Asteburuan hasiko dute denboraldia Euskadiko Txapelketako taldeek; Euskadiko Lehenengo Mailan, Mondragon Unibertsitateak Iruñeko Aguerri Larraona taldearen kantxa bisitatuko du; Euskadiko Bigarren Mailan, Soralue BKEk Santutxuren aurka jokatu du; Hirugarren FEBeko MUK datorren asteburuan hasiko du liga.

## ERRUGBIAREN Nafarroan hasiko dute liga ARTko senior mutilek

Denboraldiaurrea bukatutzat emanda, asteburu honetan hasiko dute liga Arrasate Rugby Taldeko senior mailako mutilek; talde zuri-moreak BRT Menditarrak taldearen zelaia bisitatuko du (zapatua, 17:00). Bestalde, 16 urtez azpikoek Hiruberri RTren aurka jokatu dute eta 14 urtez azpikoek hiruko txapelketa bat jokatu dute Soraluez.



# Panpina bizidunen ahotik hamaika kontakizun

Taun Taun Teatroak, Bergarako Udalaren laguntzarekin, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XVII. Mostra egingo du gaur hasi eta domekara bitartean; askotariko profiletako artistek hamaika istorio eskainiko dituzte herriko hainbat txokotan

## Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

1991n abiatu zuen Bergarako Taun Taun Teatroak Txotxongiloen Mostra, "programazio orokorrean hutsune bat betetzeko" asmoz. Helburu berarekin jarraitzen dute, ibilbidean zehar nazioarteko eta bertako 190 artista baino gehiago gonbidatuta.

## Hamar ikuskizun

Txotxongiloen esparruan gaur egun dagoenaren erakusleihu izan nahi du aurtengo eskaintzak ere. "Askotariko ereduak eta istorioak erakutsiko ditugu, baina aurtengo indargunea, bereziki, Euskal Herriko eta sor-tzaile hasiberriei tokia ematea izan da. Denetariko ikuskizunak

programatu ditugu, baita *Wireless* filma ere; hain justu, egitaraua zabalduko duena", azaldu dute antolatzaileek.

Maria Urzelai bergararra dago gonbidatuen artean; bakarrizketa bat egingo du. "Mikroantzerki formatua du, 25 minutu inguruko iraupenarekin. Komikoa da, baina atzean ikuspegi

aldarrikatzailea eta feminista du; besteak beste, gorputzaren eta irudiaren hausnarketa egiten dut. Pertsonaiak bere estetika zehatza du, baita erabiltzen dituen objektuek ere. Pozik nago nire jaioterrian erakutsiko dudalako eta gogotsu nago beste ikuskizunekin gozatzeko ere", azaldu du Urzelaiak.

## Tailerra eta erakusketa ere bai

Kalean eta zenbait aretotan – Seminarixoa, Aroztegi aretoa eta gaztetxea – izango diren ikuskizunetaz gainera, Laboratorium museoan dagoen *Automata: mekanismo magikoak* erakusketarekin batu dute proposamenen artera, baita Xavi Lozano katalanak domekan Aroztegi aretoan egingo duen *Musika tresnak* izeneko tailerra ere. "7 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Parte

hartzaile bakoitzak instrumentu bat sortuko du, bertan izango dituzten askotariko materialak erabilita. Dohainik da, baina aurrez gonbidapena eskuratu behar da, 670 22 42 09 telefono-zenbakira deituta, edukiera mugatua izango duelako".

## Sarrerak eskuragarri


Aroztegi aretoan eta kalean egingo dituzten ikuskizunetarako ez da ordaindu beharrik izango, baina gaztetxean eta Seminarixoan izango diren ikuskizunetarako bai. "Kartzela zaharreko ikuskizunetan ez dugu sarreretarako diru kopuru zehatzik eskatuko, baina gustura jasoko ditugu ikusleen propinak. Eta Seminarixoko sarrerak *Seminarixoa.eus* atarian dituzue eskuragarri, zortzi eurotan", gaineratu dute antolatzaileek.

## Asteburuko honetako ikuskizunak




### WIRELESS FILMA

- **Herrialdea:** Mexiko-Katalunia.
- **Egilea:** Zero En Conducta.
- **Noiz:** Egubakoitzean, 19:00etan.
- **Non:** Aroztegi aretoan.



### ORIGEN

- **Herrialdea:** Katalunia.
- **Egilea:** Borja Sand Art.
- **Noiz:** Egubakoitzean, 20:00etan.
- **Non:** Seminarixoan.



### IGARO

- **Herrialdea:** Euskal Herria.
- **Egilea:** Maren Basterretxea.
- **Noiz:** Egubakoitzean, 22:30ean.
- **Non:** Gaztetxean.



### SIE7M

- **Herrialdea:** Andaluzia.
- **Egilea:** Ymedio Teatro.
- **Noiz:** Zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Domekan, 12:00etatik 14:00etara.
- **Non:** Munibe plazan.



### FLEXUS

- **Herrialdea:** Kantabria.
- **Egilea:** MG Producciones.
- **Noiz:** Zapatuan, 12:00etan eta 18:00etan hasita.
- **Non:** Kalean zehar.



### UN RATITO

- **Herrialdea:** Euskal Herria.
- **Egilea:** Maria Urzelai.
- **Noiz:** Zapatuan, 12:30ean eta 13:30ean.
- **Non:** Aroztegi aretoan.



### BUFA&SONS

- **Herrialdea:** Katalunia.
- **Egilea:** Xabi Lozano.
- **Noiz:** Zapatuan, 19:00etan.
- **Non:** San Martin plazan.



### FILAR

- **Herrialdea:** Italia.
- **Egilea:** Antonella D'Ascenzi.
- **Noiz:** Zapatuan, 20:00etan.
- **Non:** Seminarixoan.



### XIMURRAK

- **Herrialdea:** Euskal Herria.
- **Egilea:** Gontzal Royuela.
- **Noiz:** Zapatuan, 22:30ean.
- **Non:** Gaztetxean.



### EROS

- **Herrialdea:** Euskal Herria.
- **Egilea:** Ixo Teatro.
- **Noiz:** Domekan, 20:00etan.
- **Non:** Seminarixoan.



DANBAKA ))))

# Publikoak borobilduko du lehiakideen zerrenda

Urriaren 6ra bitartean 'Danbaka.eus' atarian dago hamaseigarren lehiakidea aukeratzeko botoa emateko bidea; lehiaketaz harago, 'Danbakast' musika-tertulia saioa estreinatuko da datorren egunean Goiena telebistan, 21:00etan hasita

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA Amaia Arriaranek, Ainhoa Vitoriak, Sara Alonsok, Inigo Ugartek eta Julen Narbaizak osatzen duten seigarren Danbaka lehiaketako epaimahaikide taldeak dagoeneko aukeratu ditu urriaren 25ean Seminarixoan abiatuko den musika lehiaketako hamabost lehiakideak (Ikus beheko taula). "Hasteko eta behin, epaimahaikid astebetean egin duen lana go-raipatu nahiko nuke", azaldu du Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak, eta zera gaineratu du: "Aurkeztu diren 24 taldeen hiruna abesti entzun behar izan dituzte; 72 kantu dira, guztira. Badakit zalantza handiak izan dituztela, hainbat irizpide hartu behar izan dituztela aintzat, eta aldagaien arteko oreak horretan dantzan ibili direla hamabost proiektuak aukeratzeko. Hala ere, aukeraketa nahiko antzerakoa izan da; horren adibide da ez dugula berdinketarik hausteko berriro epaimahaikideengana jo behar izan. Zorionak aukeratuei eta besarkada estu bana oraingoz aukeratuak izan ez diren bederatzi proiektuei. Eragin zuen inguruan ahalik eta boto gehien jasotzeko!".

## Publikoaren botoarekin

Hamasei musika proposamen izango dira lehian; epaimahaikideen aukeraturako zerrenda osatuko du publikoak aukeraturakoak. Edonork dauka *Danbaka.eus* atarian botoa emateko aukera domeka bitartean. "Harrirituta gaude jasotzen ari garen boto kopuruarekin. Datu bat

**ETZI, DOMEKA, BITARTEAN DAGO 'DANBAKA.EUS' ATARIAN BOTOA EMATEKO AUKERA**

emango dizuet: astelehenean 15:00etan aktibatu genuen botoa emateko aukera eta 24 orduan 400 boto baino gehiago jaso genituen. Badakigu baten bat boto bat baino gehiago ematen saiatu dela –tranparik ez dugu onartuko–, baina itzela izan da. Berezi hiru zpalau talde ari dira borrokan... Astelehenean jakinaraziko dugu emaitza".

## 'Danbakast' saioa

Seminarixoa aretoa izango da Danbakaren gune nagusia, baina Goiena telebistako platoak ere izango du Danbakaren itzala.

"*Danbakast* saioarekin ilusio handia dugu. Ni izango naiz aurkezlea, baina atzean lan handia dago, eta sekulako lantaldea. Ahalik eta tertuliakide eta gonbidatu erakargarrienak fitxatzen saiatzen ari gara; doakiela besarkada estu bat abentura honetan parte hartzea animatzearen. Hala, urriaren 10an estreinatuko dugu, 20:00etan –eta 22:00etan–, eta eguenero kapitulu berri bat eskainiko dugu lehiaketa bukatu artean. Danbaka izango da oinarria, baina musika arloko beste hainbat kontu ere izango ditugu berbagai".

## 15 aukeratuak

- **721-GOGOR GABILTZA**  
Aretxabaleta. Trap-punka.
- **BANANA SHAKE**  
Arrasate. Ska-punka.
- **DEL VAL**  
Arrasate. Popa.
- **ETEN**  
Aretxabaleta. Rocka.
- **HENKO**  
Oñati. Metala.
- **K-PO**  
Bergara. Housea, funk brasildarra eta reggaetona.
- **KARENA**  
Antzuola eta Hernani. Pop-folka.
- **KORDA ROTA**  
Arrasate. Eskandinaviako rocka.
- **KTARSIA**  
Bergara. Akustikoa.
- **LOW COST DELUXE**  
Bergara. Rocka.
- **MAIDER MIMI**  
Aretxabaleta. Askotariko estiloak.
- **MALKO**  
Oñati. Rocka.
- **REBEL NOISE**  
Arrasate. Punk-oi!-a eta punk-rocka.
- **SOTOALDE**  
Bergara. Musika urbana.
- **TXERRIKUMEAK**  
Aretxabaleta. Punk-rocka.

## Hamaseigarren lehiakidea, hauen artean

Publikoaren botoek erabakiko dute nor izango den hamaseigarrena.

- **BEHI BI BLUES**  
Bergara eta Sorluze. Bluesa.
- **DEBEKU**  
Bergara. Rocka.
- **FANGO**  
Bergara. Rocka.
- **GINKA BILOBA**  
Arrasate. Rocka.
- **GOLDEN BLEND**  
Bergara eta Antzuola. Rocka.
- **HANKAZ GORA**  
Arrasate. Punk-oi!-a.
- **HECETU WELO**  
Arrasate, Deba, Lezo eta Beasain. Grungea, blues-rocka eta stoner-rocka.
- **LAPUR**  
Oñati. Grungea.
- **ONDARE**  
Arrasate. Rock alternatiboa eta post-punka.



Hamaseigarren hautagaia bozkatzeko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIAK



TD Systems telebista (32")

Parte hartzeko sariaren izena: telebista



## Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ  
OSTILO D O B A K

www.harremandenda.org  
www.roskibizkaia.com

## Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

## PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus | Whatsapp: GOIENAKIDE  
"Goienakidea" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia  
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10ET 15:00etako irabazlearen izena izango da. Irabazlearen izena zozketaren bidez zozketatuko da. Irabazlearen izena zozketaren bidez zozketatuko da. Irabazlearen izena zozketaren bidez zozketatuko da. Irabazlearen izena zozketaren bidez zozketatuko da.

## BERGARAKO SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: urriak 8

943 25 05 05 | goienakide@goiena.eus | "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE | Jatetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate eta inguruak.** Etxebizitza errentan hartuko genuke. Bikote arduratsua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 42 71 27

**Bergara.** Errentan hartzeko pisu bila nabil. Bi pertsona gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 72 92 87

**Debagoiena.** Pisu bila dabilen bikote bat gara. Ez daukagu animalirik eta biok lan egonkorra dugu. Deitu 652 37 52 09 edo 650 18 65 27 telefono zenbakietara.

## 105. ETXEA OSATU

**Etxea osatu Bilbon.** Bilbon, 24-25 ikasturterako, ikasle pixu bat osatzeko pertsona baten bila gabilta. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 90 71 67

## 2. GARAJEAK

## 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke Oñatin. Deitu telefono zenbaki honetara: 615 74 17 87

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Adineko pertsona bati lagundu eta konpainia egingo dion norbaiten bila nabil, baita garbiketa-lanak egin ditzan. Astelehenerik larunbatera, goizez eta arratsaldean, orduka lan egingo duen norbait behar dugu. 669 11 28 94

## 402. ESKAERA

**Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza.** Nagusiak zaintzen eta hauek pasiatzera atereaz lana egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egiteko prest nago. Pertsona arduratsua naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 35 40 08

**Aretxabaleta-Eskoriatza baserria.** Baserrri batean, adineko emakumea zaindu eta etxeko lanak egin-gin dituen emakume baten bila gabilta. Astelehenerik larunbatera bitarteko 40 orduko kontratua, goiz eta arratsaldean. Ibilgailua edo gidabaimena eta Soziosanitario titulua beharrezkoak dira. Baldintza onak. Deitu 628 44 00 49 telefono zenbakira 15:00etatik aurrera.

**Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergara.** Emakume gaztea ostalaritzan edo enpresen garbiketetan lan egiteko gertu. Asteburuetan edozein orduetan eta aste barruan arratsaldean lan egin dezaket. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 77 58 82

**Arrasate.** Arratsaldetan, 16:00etatik aurrera, lana egingo nuke. Garbiketa lanetan, nagusiak zaintzen eta hauek pasiatzera atereaz. Pertsona arduratsua naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 682 31 97 37

**Bergara eta inguruak.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario titulua dut. Esperientzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 72 88 97

**Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza.** Nagusiak zaintzen eta hauek pasiatzera atereaz lana egingo nuke. Umeen zaintzan esperientzia izateaz gain, goi mailako Haur Hezkuntzako zikloa eta Haur Hezkuntzako gradua dut. Edozein zalantza baduzue deitu edo idatzi hurrengo zenbakira: 634 42 85 11

**Bergara.** Goizetan haurren zaintzaila izateko prest. 21 urte dituen neska arduratsua eta euskalduna. Nirekin harremanetan jartzeko zenbaki honetara deitu edo whatsapp bat bidali, mesedez: 638 21 48 19

**Debagoiena.** Emakumea orduka pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 37 01 92

**Debagoiena.** Emakumea prest orduka pertsona nagusiak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko eta etxeetan garbiketa lanak egiteko. 642 37 01 92

**Debagoiena.** Goizetan etxeko lanak egiten, nagusiak zaintzen, garbiketarik egiten. Lan egiteko prest nago. 603 77 58 82

**Debagoiena.** Emakumezkoa zaintza edo garbiketa lanetan aritzeko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke. Deitu 687 45 91 76 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxeak, lantegiak, elkarteak eta bestelako garbitzeko prest dagoen gizonezkoa. Esperientzia dut ospitalen eta enpresa industrialen garbiketetan. Orduetegi aldetik malgutasuna daukat. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Etxeko langile gisa lan egiteko prest dagoen emakumea, nagusien zaintzan edota garbiketa lanak egiten. Etxean bertan bizi izaten lan egin nahi nuke. Deitu 632 89 09 25 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomentio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Gizonezkoa hainbat lan egiteko prest. Batez ere eraikuntza zein garbiketa lanak egingo nituzke. Malgutasun osoa. 632 18 53 17

**Debagoiena.** Gizonezkoa hainbat lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaindu, garbiketa lanak, sukaldari

ri laguntzaila gisa. Lan egingo nuke. Malgutasun osoa dut. Pertsona arduratsua naiz. 624 69 84 52

**Debagoiena.** Gizonezkoa orduka etxe zein ospitalean pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Telefona: 642 36 70 42

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, baita orduka ere. Asteazkenetara lan egingo nuke. Telefona: 602 82 64 84

**Debagoiena.** Neska euskalduna nagusiak edo umeak zaindu, taberna zein dendetan lan egin edota bestelako lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua eta gidabaimena ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 79 28 37

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin eta txakurrak paseatzera ateratzeko gertu. Malgutasun osoa dut, etxean bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Lan-baimena daukat.

Deitu 612 29 74 89 (Andrea) telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 99 55 58

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko gertu dagoen emakumea. Malgutasun osoa aste barruan zein asteburuetan. Soziosanitario titulua dut. 625 25 57 78

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Soziosanitario titulua dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 14 68 25

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Orduka lan egingo nuke. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. 662 02 45 80

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo umeak zaindu, taberna zein dendetan lan egin edota bestelako lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 89 09 25

**Debagoiena.** Prestasun osoa lanean hasteko; garbiketa lanetan, eraikuntza, konponketa edo pintura-lanetan. Deitu +380 994 65 08 51 edo 641 39 49 31 telefono zenbakietara.

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Perkusio irakasle bila.** Arrasateko neska euskalduna naiz. Perkusio instrumentu ezberdinak (bongoa, djembea, ka-joi...) jotzen ikasteko irakasle bila nabil. Telefona: 686 33 43 83

## 502. EMAN

**Arrasate.** Haurrak zaindu edota DBH eta LH-ko ikasleei klase partikularrik emateko gertu. Neska gazte eta euskalduna naiz. Unibertsitateko ikasketak amaitzen. Deitu 650 79 51 66 telefono zenbakira.

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Hustutako katu emea opari.** Hustutako katu emea oparitzen da. 9 urte inguru ditu. 615 73 68 07 edo 606 65 66 61

## ZORION AGURRAK



**BERGARA**  
**Izaro Esnaola Tello**  
Urriaren 10an, 11 urte. Zorionak, prexioxi! 11 belarri tirakada zuretzat. Egun bikaina pasa dezazula! Asko maite zaitugu denok.



**ARETXABALETZA**  
**Xabier Laspiur Rubio**  
Urriaren 9an, 4 urte. Zorionak, artista! Azkenean heldu da hainbeste desiatzen zenuen eguna! 4 urte! Oso ondo ospatuko dugu daukazun energia horrekin! Asko maite zaitugu!



**ARRASATE**  
**Julen Del Palacio Orellana**  
Urriaren 7an, 9 urte. Zorionak familia guztiaren partetik! Egun ona izan.



**ARRASATE**  
**Amets Merino Oribe**  
Urriaren 6an, 8 urte. Zorionak, pitxin! disfrutatuko piloto familia ta lagunekin!



**BERGARA**  
**Hodei Aretxaga Arabalaza**  
Urriaren 6an, 7 urte. Zorionak, Hodei! 7 urte jadanik. Zelako ondo ospatuko zure egunian!



**ARETXABALETZA**  
**Ariane Uribe Covas**  
Urriaren 4an, 11 urte. Zorionak! Ondo ospatu zure eguna lagun eta etxeokekin. Patxo handi bat denon partetik.



**ARRASATE**  
**M Eugenia Urroz**  
Urriaren 3an, 74 urte. Zorionak, amama! Ederto ospatu zure urtebetetze eguna familia guztiarekin eta ez ahaztu iñtilde! oiz asko maite zaitugula! Familia guztiaren partetik patxo handi bat batez ere Izar, Unax eta Iontxun partetik...



**ESKORIATZA**  
**Txaro Kortazar Uribesalgo**  
Urriaren 1an, 79 urte. Zorionak eta gorde beti zure irribarre hori. Zorionak familia osoaren partetik. Muxu potolo bat danon partetik



**ARRASATE**  
**Xuban Etxeberria Agirreurreta**  
Urriaren 1an, 4 urte. Zorionak, Xuban! familia osoaren partetik ederto ospatu zure eguna. Patxo erraldoi eta besakada handi bat, aitona eta amamaren partetik.



**BERGARA**  
**Naroa Markina Urizarbarrena**  
Irailaren 30an, 9 urte. Zorionak, Naroa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Muxu handi bat familixako denon partetik!

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

## Korosti

Inmobiliaria

**Bergara: Matxiategi,**  
etxea, 60m<sup>2</sup>,  
3 logela, igogailua,  
trastelekua  
oso argitsua  
**165.000€**

**Bergara: Basalgo auzoa,**  
baserrri ederra,  
32 hektareako  
lursailarekin  
**315.000€**

**Bergara: Emal,**  
60m<sup>2</sup>, apartamentua,  
logela 1, terraza,  
trastelekua eta igogailua.  
**163.000€**

**Ibargarai 3 BERGARA**

Tel.: 943 76 97 97

[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

Informazio gehiago:



BERRI-ZAKUA




100 urte

Irailaren 17an bete zituen 100 urte Suñako (Aramaio) Palazio baserriko Eustaki Agiriano-Zabalak. Etxekoekin ospatu zuen, eta Asier Agirre alkatearen bisita jaso zuen.

HILDAKOAK

- **Mauri Lasaga Belategi.** Arrasaten, irailaren 26an. 102 urte.
- **Jose Ramon Cagigas Garay.** Arrasaten, urriaren 2an. 57 urte.
- **Jesús Sanz Segovia.** Bergaran, irailaren 26an. 61 urte.
- **Mari Luz Garicano Ganchegui.** Bergaran, irailaren 30ean. 82.
- **Jose Antonio Irazabal Aranzabal.** Elgetan, irailaren 27an. 80.
- **Piedad Gorostiza Uribe.** Eskoriatzan, urriaren 1ean. 73 urte.
- **Maria Angeles Guridi Zumalde.** Oñatin, irailaren 29an. 89 urte.
- **Carmen Vicuña Dorronsoro.** Oñatin, urriaren 2an. 84 urte.
- **Maria Luisa Alcelay Corcostegui "Maritxu".** Oñatin, ur. 2an. 85.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



MARITXU KAJOIREN MIRARIA ZUZENEAN

'Bereziak' Gaur, egubakoitza, 20:30ean



ERROSAIXO BIXAMONA ZUZENEAN

'Bereziak' Astelehena, 13:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ESKER ONA

Jesus Sanz Segovia



2024ko irailaren 26an hil zen, 61 urte zituela.

Momentu latz honetan gure ondoan egon zareten guztioi mila esker eta besarkada bero bana denon partetik. Eskerrik asko.

Bergaran, 2024ko urriaren 4an.

ESKER ONA

Mauri Lasaga Belategi



Imanol Ormaetxearen alarguna

2024ko irailaren 26an hil zen, 102 urte zituela.

*Ehun eta bi urtetan  
Ama bat kuttuna  
Zure seme-alaboi  
Tokatu zaiguna  
orain iritsi zaizu  
joateko eguna  
gurekin gelditzen da  
zure maitasuna.*

Bere bizitzan poza eman zeniotenei eta maitasun keinu guztiak eskertzen dizkizuegu.

Bere familia.  
Arrasaten, 2024ko urriaren 4an.

ESKER ONA

Jose Antonio Irazabal Aranzabal



2024ko irailaren 27an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2024ko urriaren 4an.

ESKER ONA

Maria Luisa Alcelay Corcostegui



"Maritxu"  
Juan Aizpeurrutiaren alarguna

2024ko urriaren 2an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko urriaren 4an.

OROIGARRIA

Antonio Rubio De La Nava



Leire Etxebarria lankidearen aitita

2024ko urriaren 2an hil zen, Guadalajaran, 97 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Goiena Komunikazio Taldea.  
Arrasaten, 2024ko urriaren 4an.

OROIGARRIA

Jose Antonio Irazabal



*Intxortako atean  
hur makilakin  
gogoratuko zaitugu.  
Maitxe-maitxe tio.*

Urrejaleiko lobak.  
Elgetan, 2024ko urriaren 4an.

URTEURRENA

Dioni Larrañaga Iturbe



2023ko urriaren 3an hil zen, 67 urte zituela.

*Zure oroimena beti dago eta egongo da  
gure bihotzetan.*

Zure familia.  
Bergaran, 2024ko urriaren 4an.

Oroilore  
Hileta zerbitzuak

BABESLEA

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei  
gure bidez aurkitzen lagunduz  
diegu, orain arte bezala, eta guztiak  
izango dute agur berezia Oroiloren.  
Gure eskerrik beronenak gurean  
izan dituen konfiantzazatik eta  
maitasunazatik.*

Mario, Iban eta Maribeli

617 44 21 55  
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI





# AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 4

**ARRASATE Maritxu Kajoi Eguna**  
Informazio osoa erdiko orrietako gehigarrian.  
*Arrasaten.*

### ELGETA Dantza ikastaroa, hasiera

16:15ean, HHko 3., 4. eta 5. mailetakoa eta LHko 1., 2. eta 3. mailetakoa; eta 17:15ean, LHko 4., 5. eta 6. mailetakoa eta DBHTik aurrerakoak.  
*Elgetan.*

### BERGARA 'Karlsten oldarraldiaren aurrekariak eta ondoko gerra (1821-1839)' hitzaldia

Joseba Agirreazkuenagak egingo du berba, Lanbroa kultur elkarteak gonbidatuta.  
*Irizar jauregian, 19:00etan.*

**BERGARA 'Wireless' filma**  
Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XVII. Mostraren baitan.  
*Aroztegi aretoan, 19:00etan.*

### ESKORIATZA Aniztasunaren jaialdia

19:00etan, ongietorri ekitaldia; 19:30ean, mahai-ingurua; 21:00etan, afaria; eta 23:00etan, *Tierra de Dios* pelikula eta solasaldia.  
*Eskoriatzan.*

### OÑATI Esne Beltza taldea

Errosoxo jaien barruan. Aurretik, 19:00etan, pintxo-poteoa musikarekin girotuta.  
*Foruen plazan.*

### ARAMAIO Untzillako jaiak

19:30ean, kanpai jotzea eta etxafuegoak; 21:00etan, bertso-afaria Sustrai Colina, Onintza Enbeita eta Xabi Igoa bertsolariekin.  
*Untzilla auzoan.*

### BERGARA 'Origen' ikuskizuna

Artea, hondarra, txotxongiloak, itzal-antzerkia, argiak eta musika uztartuko ditu Borja Sand Art-ek, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XVII. Mostran.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

### BERGARA 'Igaro' ikuskizuna

Maren Basterretxearen saioa, zuzenean manipulaturako txotxongiloekin eta objektuekin, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XVII. Mostran.  
*Kartzela zaharrea, 22:30ean.*

## ZAPATUA 5

### ARETXABALETA 'Argazkia.eus' jaialdia

Sari banaketa ekitaldia. Zortzi argazkilari sarituko dituzte eta bakoitzak bere lana aurkeztuko du.  
*Arkupen, 10:30ean.*

### OÑATI Herri Eguna

Egitaraua 29. orrian.  
*Oñatin.*

### ESKORIATZA Lur Anitz fFest

11:00etan, Gaylur Euskadi Elkartearen aurkezpena; 13:00etan, Los Txipirones txaranga; 15:00etan, paella; 16:00etan, kenpo erakustaldia; 17:00etan, zumba erakustaldia; 18:00etan, DJ Borre; 19:00etan, Euskal Okela jatorri izeneko hanburgesak; eta 21:00etan, Las Fellini Show.  
*Fernando Eskoriatza plazan.*

### BERGARA Skate festa

11:30etik 13:00etara, skate hastapenak; 14:00etan, parrillada; 15:00etan, skate libre; 17:00etan, txapelketak; eta 19:00etan, Fly Shit eta Geels taldeak.  
*Labegaraietan.*

### ARAMAIO Untzillako jaiak

12:00etan, meza; ostean, trikitilariak eta umeentzako puzgarriak; 14:00etan, bazkaria; 16:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, *Naita kontu eta kanta* ikuskizuna; 18:00etan, parrillada; 18:30ean, txokolate-jana; 19:00etan, dantzaldia Elustondo anai-arrebekin; 21:00etan, afaria eta ostean dantzaldia; 23:00etan, bola txapelketa.  
*Untzilla auzoan.*

### BERGARA 'SIE7m' ikuskizuna

Eguneroko objektuen manipulazioa abiapuntu duten esketx barregarriak, Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostran.

Debalde, baina gonbidapenarekin. Ordutegia: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.  
*Munibe plazan.*

### BERGARA 'Flexus' ikuskizuna

Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostran. Emanaldi bikoitza: 12:00etan eta 18:00etan.  
*Herriko kaleetan.*

### BERGARA 'Un ratito' bakarrizketa

Maria Urcelay bergararraren eskutik, Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostran. Emanaldi bikoitza: 12:30ean eta 13:30ean.  
*Aroztegi aretoan.*

**ARETXABALETA Euskal Herriko bola-joko txapelketako saioa**  
Lehenengo jardunaldia.  
*Bolatokian, 17:00etan.*

### ARRASATE Hiruko saskibalo txapelketa

Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

### BERGARA 'Bufa&Sons' ikuskizuna

Bufa&Sons taldearen lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostran.  
*San Martin plazan, 19:00etan.*

### BERGARA 'Filar' ikuskizuna

Dantza garaikidea eta poesia bisuala batzen dituen ikuskizuna, Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostran.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

### BERGARA 'Ximurak' ikuskizuna

Testutik aldenduz, antzerki bisualago batera hurbiltzen den proposamen eszenikoa, Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostran.  
*Kartzela zaharrea, 22:30ean.*

## DOMEKA 6

### ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: 943-79 80 22 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.  
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 11:00etan.*



TEATRO PARAISO

### ARETXABALETA 'Leihoak' antzezlan

Jolasaren bidez, bizitzako lehenbiziko urteetako irudien eraikuntza eta deseraikuntza gogora ekartzeko bidaian murgilduko ditu ikus-entzuleak Teatro Paraisok. Sarrerak, hiru euro.  
*Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.*

### ESKORIATZA Lur Anitz fest

11:00etan, Bolibarrera bisita; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, bingo musikatu; 17:30ean, txokolate-jana; eta 19:00etan, agurra.  
*Joseba Iñurrategi frontoian.*

### ARAMAIO Untzillako jaiak

12:00etan, meza, Aramaio abesbatzarekin; eta 13:00etan, bermuta eta Elustondo anai-arrebekin dantzaldia.  
*Untzilla auzoan.*

### BERGARA 'SIE7m' ikuskizuna

Gurpil Eguneroko objektuen manipulazioa abiapuntu duten esketx barregarriak, Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostran. Debalde, baina gonbidapenarekin. Ordutegia: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.  
*Munibe plaza, Bergara 12:00etan*

### BERGARA Txotxongiloen Mostra: musika tresnen tailerra

Xavi Lozano kataluniarraren eskutik, 7 urtetik gorakoendako, Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostran.  
*Aroztegi aretoan, 12:00etan.*

### BERGARA Beart Eguna

Taldeko kideek egindako lanak ikusgai.  
*Irala kalean, 12:00etan.*

### BERGARA Txistulari Bandaren kontzertua

Irekia.  
*Udaletxean, 13:00etan.*

### ARETXABALETA 'Leihoak' antzezlan

Jolasaren bidez, bizitzako lehenbiziko urteetako irudien eraikuntza eta deseraikuntza gogora ekartzeko bidaia egingo du Teatro Paraisok. Sarrerak, hiru euro.  
*Arkupen, 17:00etan.*

### BERGARA Organo emanaldia

Juan de la Rubia eta Xabier Urtasun organo-joleen eskutik.  
*Santa Marina parrokian, 18:00etan.*

### ARRASATE 'Sua erraldoia'

Gaztetxoentzako mahai-jolasa.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

### BERGARA 'Eros eta bere maskarak' ikuskizuna

Bi maitemindu maskaraturen istorioa, Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostraren baitan.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## ASTELEHENA 7

### BERGARA 'Haurdunaldi subrogatuen analisi feministak' hitzaldia

June Fernandez Casetek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Seminarixoan, 10:00etan.*

### DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Antzuolan, Arrasaten eta Bergaran egingo dute.  
*Herri horietan, 12:00etan.*



## MARTITZENA 8

## BERGARA 'El reto de la nueva longevidad' hitzaldia

Javier Yanguas Lezaun gerontologoa egingo du berba, gazteleraz.

Udaletxean, 19:00etan.

## ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea

Adriano Mataren *Sanrokeetarako*, etxean liburuaren gaineko saioa.

Liburutegian, 19:00etan.

## ARRASATE 'El 47' pelikula

Martitzenetako emanaldia.

Amaia antzokian, 20:00etan.

## EGUAZTENA 9

## BERGARA Kafe-konpon

Hondatutako etxeko trasteak konpontzen ikasteko saioa.

San Joxepe elkartean, 16:00etan.

## BERGARA Ate irekiak Arin eguneko zentroan

Adinekoen Nazioarteko Egunaren harira, zerbitzua ezagutzeko aukera.

San Joxepe elkartean, 17:30ean.

## ARETXABALETA Gazteen ongizate emozionala: hezkuntza formala

Ikastetxeetako ordezkariak, gurasoak, guraso elkarteetako kideak eta osasungintzako profesionalak elkartuko dira.

Arkupen, 18:00etan.

## BERGARA 'Irala: gure heroia?' solasaldia

Gure heroiak liburuaren idazle Asier Lopezek egingo du berba eta gidatuko du solasaldia.

Kartzela zaharrea, 18:00etan.

## BERGARA Baserritarren azoka

Herriko baserritarren garaiako produktuak erosteko aukera.

Oxirondon, 18:00etan.

## ELGETA Astrotopaketa: teleskopioa

lletargi elkarteak gidatuta, ikasturteko lehena egingo dute. 18 urtetik gorakoendako.

Liburutegian, 18:30ean.

## BERGARA 'Memory' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixoan, 20:00etan.

## EGUENA 10

## ARETXABALETA Odol ematea

Autobusa egongo da, 16:45etik 20:00etara.

Durana kalean.

## BERGARA Kulturaldia: dantza topaketa

Eibarko, Elgoibarko, Ordiziako eta Trintxerpeko erretiratuen elkarteetako dantza taldeak elkartuko dira San Joxeperen Kulturaldia hasteko.

Seminarixoan, 17:00etan.

## ARRASATE '1934ko iraultza Euskal Herrian eta Arrasaten' hitzaldia

Iosu Chueca Intxustak egingo du berba, Kontseilu Sozialista Deba Bailarak gonbidatuta.

Kulturaten, 18:00etan.

## ARETXABALETA '¿Desmadradas? Amatasuna feminismitik' hitzaldia

Jabetze Eskolaren baitan.

Arkupen, 18:00etan.

## ANTZUOLA Jose Luis Elkorori omenaldia

Herriko bandera eta gutuna jasoko ditu, Antzuolan eginiako ekarpenak eskertzeko. Ondoren, *Han egon zen. Jose Luis Elkorro, bizitza bete bat* liburuaren aurkeztuko du Mikel Zubimendi kazetari bergararrak.

Torresoroan, 18:30ean.

## ARETXABALETA Literatura solasaldia

Ernest Hemingway idazlearen *Fiesta* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.

Arkupen, 18:30ean.

## BERGARA 'Irulegiko eskua, segurantzak eta zalantzak' hitzaldia

Juan Martin Elexpuruk egingo du berba, Olaso Dorreak Fundazioak gonbidatuta.

Olaso dorrea, Bergara 19:00etan

## ESKORIATZA 'Dario' liburuaren aurkezpena

Jaione Fernandez de Jauregi eskoriatzarrak etxean aurkeztuko du liburu.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

## ARRASATE Bamms taldea

Donostiako taldeak hirugarren diskoa aurkeztuko du, Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

## EGUBAKOITZA 11

## ANTZUOLA Zinema ikusezina

Anelkar Elkartasun Taldearen eskutik, hainbat film ikusteko aukera.

Torresoroan, 18:30ean.

## OÑATI Erradiologiaren gaineko hitzaldia

*Descubriendo los secretos detrás de las imágenes médicas: Una introducción a la radiología* izeneko hitzaldia egingo du Laura Oleaga oñatiarrak, Goienagusik gonbidatuta.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

## ARETXABALETA 'Herrixa kuartelera'

19:00etan, kalejira gaiteroekin; eta 20:00etan hasita, Wood Strings, Nick Linbött eta Jasan taldeak.

Kuarterean.

## BERGARA 'Euskararen egoera Lehen Karlistaldian Bergara aldean' hitzaldia

Juantxo Madariaga historialariak egingo du berba, Lanbroa kultur elkarteak gonbidatuta.

Irizar jauregian, 19:00etan.

## ZAPATUA 12

## ANTZUOLA Erreka garbiketa

Errekak Bizi Auzolanean egitasmoak antolatuta. Gainerako herrietan hilaren 19an egingo dute.

Herriko Plazan, 10:00etan.

## OÑATI Film laburren ikastaroa

IKusiHI! lehiaketara aurkeztu diren taldeek ikastaroa izango dute gaur, film laburrak nola egin ikasteko.

Gaztelekuan, 10:00etan.

## ZINEMA

## ARRASATE

## AMAIA ANTZOKIA

**Bitelchús, Bitelchús**  
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30.

**Transformers one**  
Domeka eta astelehena: 17:00.

## GASTEIZ

## FLORIDA

**Buffalo kids**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.  
Domeka: 12:00, 16:30.

**El 47**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15.  
Domeka: 12:00, 16:00, 18:15.

Astelehena: 17:00.  
Martitzena: 17:15.  
Eguaztena eta eguna: 17:15, 19:30.

**Emmanuelle**  
Egubakoitza eta zapatua: 21:30.  
Domeka: 12:00, 17:00.

Astelehenetik eguenera: 19:15.

## La virgen roja

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15, 21:45.  
Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.  
Astelehena: 17:15, 19:30.  
Martitzenetik eguenera: 16:45, 19:00.

## Megalópolis

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 21:30.  
Domekatik eguenera: 19:30.

## Soy Nevenka

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 21:45.  
Domeka: 12:00, 17:00, 19:15.  
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:15.

## Crossing

Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 21:45.  
Domeka: 18:15, 20:30.

Astelehena: 20:00.  
Martitzenetik eguenera: 17:00, 19:30.

**Joker**  
Egubakoitza eta zapatua: 16:30,

19:15, 21:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:15, 20:00.

Astelehena: 17:00, 19:30.  
Martitzena: 16:45, 19:30.  
Eguaztena eta eguna: 17:00, 19:45.

## Los destellos

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:45, 22:00.  
Domeka: 12:00, 16:00, 18:15, 20:30.

## Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:45.

## Una casa en llamas

Egubakoitza eta zapatua: 19:15.  
Domeka: 12:00, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

## Transformers one

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15.  
Domeka: 12:00, 17:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

## BOULEVARD

## Joker

Zapatua eta domeka: 16:00.  
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 21:30, 22:00.  
Egubakoitzetik domeka: 17:15, 20:15..

## Alas blancas

Egunero, martitzena izan ezik: 17:10, 19:45, 22:20.  
Martitzena: 17:10, 22:20.

## Soy Nevenka

Egunero: 17:00, 19:15.

## No hables con extraños

Egunero: 18:10, 20:25, 22:40.

## Buffalo kids

Egubakoitzetik domeka: 17:00, 20:00.

Astelehenetik eguenera: 18:00.  
Zapatua eta domeka: 16:00.

## Odio el verano

Egunero, domeka izan ezik: 18:15.  
Domeka: 20:15.

## KRITIKA

## Soy Nevenka

★★★★★

Zuz.: Iciar Bollain. Herr.: Espainia (2024). Aktoreak: Mireia Oriol, Urko Olazabal, Ricardo Gomez. Iraupena: 110 minutu.

## Jazarpen basati baten kronika

## ANTONIO ZABALA

Iciar Bollainek Nevenka Fernandezi gertatu zitzaionaren kronika egiten du. Alde batetik, Ponferradako alkatearen partetik jasandako sexu-jazarpenaren azalpena egiten du, eta, beste alde batetik, neskaren sufrimenduaren aurrean gizarteak izandako portaeraren jarraipena egiten du.

Pausoz pauso Nevenkaren istorioan sartzen gara: zinegotzi moduan Udalean sartzen denean, alkatea haren atzetik hasten denean...

Hasieran modu lasaiagoan, baina neskak euren arteko harremanean atzeraka egitea erabakitzen duenean, haren erreakzioa gero eta itzelagoa izango da. Eta gizarteak, beldurratik, interesagatik edo sentsibilitate gutxiagatik,

zalantzan jarriko du edo ez du sinistuko neskaren salaketa.

Pertsonaia nagusiaren egoera emozionalak ezagutzea joango gara: hasierako ilusioa lan berriarekin; deskontzertua, alkatearen hurbilpenarekin; larritasuna, gorteatzea jazarpen beldurgarri bihurtzen denean; hondoratzea, gizartearen babesgabetasun ezaren aurrean; eta berpiztea, erasotzaileari indartsu eta ausart aurre egiteko. Eta ikusiko dugu jauntxoak pertsonengan eta gizartearengan ezartzen duen kontrola. Hori guztia zehaztasunez kontatzeko denbora asko erabiltzen du. Hala, denbora gutxi geratzen zaio epaiketan gertatzen dena sakontasunean azaltzeko.





AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

1934

Ohituak gaude komunikabideetan zenbait urtemuga esanguratsuren berri izatera; sarritan urruti samar geratzen zaizkigunak, gainera. Badira, ordea, gure gertuko historiari erreparatuz gero oso aipagarriak diren zenbait gertakari; esaterako, 1934ko urriaren 5a.

Gerra aurreko urteak ziren, giro politikoa bero-bero zegoen eta langileen aldarrikapenak ere indarra hartzen hasiak ziren. Estatu mailan sozialistek greba orokorrerako deia egin zuten egun hartarako eta zenbait lekutan -Asturiasko meatzariak- langileen aldetik altxamendu esanguratsuak izan ziren.

Gure eskualdera etorrita, aipatu greba deialdiaren ondotik Arrasaten gertatutakoak ez ziren nolana hikoak izan. Urriko iraultza hartan grebalariek herria hartu zuten eta bertako autoritateak atxilotu, Guardia Zibilaren kasernari eraso egin eta Errepublikari Soziala aldarrikatu zuten. Altxamenduaren beroaldian, Marcelino Oreja Union Cerrajerako burua eta diputatu karlista zena eta Dagoberto Rezusta kontseilaria eta diputatu erradikala hil zituzten. Sei hilabetez luzatu omen zen gerra egoera Arrasate inguruetan; 200 herritar espetxeratuak edo ihes egitera behartuak eta horietako asko torturatuak.

BUKATZEKO

# Antzerkiko Besarkada saria Errastirendako

Aretxabaletako aktoreak antzerki kategoriako gizonezko aktore onenaren Besarkada saria jaso du, 'Posdatarik gabeko gutunak' obran egindako lanarengatik. Maila horretan hautagai zen Aitor Borobia bergararra, 'Festen' lanarengatik

**Mireia Bikuña Madrid** ARETXABALETA Euskal Aktoreen Batasuneko (EAB) afiliazioak lankideen antzerki, telebista eta zinema arloetako interpretazio lanak nabarmentzen ditu bi urtean behin. Urriaren 3an XX. Besarkada sariak banatu zituzten. EABko kideek aukeratzen dituzte hautagaiak eta sarituak. Horregatik, bereziki oso eskertuta jaso du antzerki ataleko gizonezko aktore onenaren saria Kepa Errastik, *Posdatarik gabeko gutunak* lanarengatik. "Oso berezi da Besarkada saria. Nire lankide direnen edo izan direnen eskutik jasotako aipamena da. Horrek bete egiten nau, profesionalki eta pertsonalki. Lanean ezagutu ditudan pertsonekin dudan harremanaren seinale da saria. Lankideek didaten estimuaren seinale, alegia", esan dio GOIENARI aretxabaletarrak.

Hautagaitzak abuztu bukaeran jakinarazi zituen EABk. Errastik bi hautagaitza zituen: antzerkian eta zineman. Ez dio buelta handirik eman: "Gala antolatzen ibili naiz, gidodia idazten. Gura genuen ekitaldi polita egin, eta horretan ibili gara buru-belarri, ikusgarritasuna oinarri hartuta. Sari bat



Kepa Errasti, Besarkada sariarekin. AINHOA RESANO

irabazi dut, eta oso eskertuta nago. Baina, irabazi izan ez banu, pozik egongo nintzen nire lankideengatik, eta gala zoragarria izan delako. Nerea Ariznabarretarekin partekatu gura dut sari hau".

## Hemezortzi hautagaitza

Hemezortzi hautagaitza zeuden, sei kategoriatan. Lan mota adina hautagaitza. "Lan oso onak egon dira izendatuta. Are gehiago, lan ezberdinak batzuk. Ohiotik aldentzen direnak. Adibi-

dez, asko poztu ninduen Garbiñe Intxaustiren hautagaitzak: antzezan mutua eta maskarekin egindakoa. Ikustera ohituta ez gauden interpretazioa lana. Era berean, asko poztu nau Olatz Ganboaren sariak. Lan itzela egiten du *Festen* obran", esan du Errastik.

Antzerkiko gizonezko aktore onenaren hautagaien artean zegoen Aitor Borobia bergararra, *Festen* obrarengatik. Hautagaitzarekin "oso pozik" zegoen Borobia. Ez zen sari banaketa ekitaldian egon, Bartzelonan zegoelako *Altsasu* antzezlana-rekin.

## Beste sariak

Telebistan, emakumezko aktore onenaren saria Itziar Atienzak eskuratu du, *Entrevías* telesailaren egindako lanarengatik; eta gizonezko aktore onenarena, bestalde, Gorka Otxoarendako izan da, *Machos Alfa* telesailarengatik. Telebistako errebelazio sariak, bestalde, Sambou Diabyri eta Leire Ormazabali eman dizkiete.

Zinemako sariak bi izen ezagunen eskuetara joan dira: Ane Gabarainek eta Eneko Sagardoyk jaso dituzte, *20.000 especies de abejas* eta *Irati* pelikuletan egindako lanarengatik, hurrenez hurren.

## Ohorezko Saria

Golden Apple Quartet taldeak jaso du Euskal Aktoreen Batasunaren Ohorezko Saria. Eta haiek abesten eskertu zuten. Taldearen agerraldia gaueko unerik "hunkigarrietako" bat izan zen, eta, horrela, laukoteak amaiera bikaina eman zion musika ibilbideari.

**DANBAKA))))))** **6.**  
MUSIKA LEHIAKETA

**AUKERATU!**

Aukeratu Danbaka lehiaketako 16. taldea  
Danbakaren epaimahaiak aukeratu ditu 15 talde.

Azkena zeuk erabaki.  
Eman botoa QR kodea erabiliz!  
Epemuga: urriak 6, domeka.

Bergarako Udala  
GIPUZKOA  
SEIN  
goiena  
EMERITZU